# Elkartasuna lan egiteko baliabide

# Gida

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

elkartasuna
lan egiteko
baliabide

# Gida

EDUCACCIÓN
TREBAKINTZA
EDUCAZIONE
EDUCACTION

Gida hau EducAcción proiektuaren barruan dago.
Programa honen bitartez, Hegoak bi helburu bete nahi ditu: batetik, heziketa komunitatearen eta beste erakunde batzuen esku jartzea prestakuntza lanetarako laguntza materialak eta baliabideak; eta, beste alde batetik, mundu globalizatuan Garapenerako Hezkuntzak dituen erronkei buruzko gogoeta eta eztabaida prozesuak bultzatzea eta horren inguruko proposamenak egitea.


Proiektu hau babesten du:

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Saiburuordetza
*Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Bienestar Social
*Dirección de Cooperación al Desarrollo*

Comisión Europea

Agiri hau Europako Erkidegoaren laguntza finantzarioarekin egin da. Gidaliburu honen edukia egileen erantzukizunpekoa da, eta inolaz ere ez da ulertu behar Europar Batasunaren jarrera islatzen duenik.

Edizioa eta egokitzapena:

hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila (UPV/EHU)
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxa: 945 01 42 87
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege-Zenbakia: BI-339-05
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi, S.A.

# AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| Aurkezpena | 5 |
| Bakea eta Gatazkak | 7 |
| Balio Hezkuntza | 14 |
| Elkartasuna | 18 |
| Garapenerako Hezkuntza | 23 |
| Garapenerako Lankidetza | 53 |
| Generoa | 62 |
| Giza Eskubideak | 71 |
| Hezkuntza | 76 |
| Ingurumena | 79 |
| Komunikazioa | 87 |
| Kontsumoa eta Bidezko Merkataritza | 93 |
| Kulturartekotasuna | 97 |
| Teknologia berriak | 109 |
| Baliabide-motaren araberako zerrenda | 113 |

Gida hau aurkeztean, Hegoak gaur egun aukeran ditugun material didaktiko eta baliabide sorta itzelean orientatzeko laguntza eskaini nahi du.

Egunetik egunera, gero eta material, testu eta dokumentu gehiago sortzen dituzte elkarte eta erakundeek, gure hezkuntza-jarduerarako lagungarri. Beste erakunde batzuk informazio ugari ematen digute auzi esanguratsuen inguruan gure lan-esparrurako: Giza Eskubideak, garapena, genero dimentsioa, interkulturalitatea, eta abar. Gainera, baliabide-zentroek dokumentazio-fondo espezializatuak jartzen dizkigute eskura. Informazio hori guztia sistematizatzea ia-ia ezinezko zeregina da; alabaina, gure ustean interesgarria da lan hori erraztuko diguten tresnak izatea.

Baliabide Gida hau osatzeko hiru irizpide erabili ditugu:

Berritasuna: hau da, azken lauzpabost urteetan argitaratutako materialak.

Esanguratasun tematikoa: hots, hezkuntza global kritikoko egungo gaiak eta ikuspegiak eguneratzeko aukera ematen digutenak.

Beste informazio-iturri batzuetara hurbiltzeko aukera ematen diguten material, baliabide-zentro eta web-orrialdeak.

Gidako baliabideak gai nagusien zerrendari jarraiki antolatu ditugu; gai nagusien sailkapena, aldiz, baliabide-motaren arabera, eta horietako bakoitzaren azpian daudenak hurrenkera alfabetikoaren bidez aurki daitezke. Hiru kasuetan, erraz identifikatzen da erreferentzia bakoitza berariazko aurkibide bati esker.

Gure esker ona eman nahi diegu Gida honetan sartzeko moduko materialen berri eman diguten guztiei; Hegoarekin batera EducAcción proiektuan parte hartzen dutenak: Mimosa Arienzo eta Manuela Guardiani (ASAL, Erroma) eta Roberto Porras (ACSUR-Las Segovias, Asturias).

Baliabide Gida lanabes praktiko era erabilerraza izango dela espero dugu, laguntza-materialen bilaketa bizkor eta errazago bihurtuko duelakoan.

---

OHARRA. Gidak jasotzen dituen baliabideak leku ugaritan eginak daude, hizkuntza desberdinetan. Eskuratu nahi dituenari baliabidea zuzen identifikatzen, eta egileekin harremanetan jartzen lagundu asmoz, fitxako elementu jakin batzuk jatorrizko hizkuntzan datoz emanak: izenburua eta harremanetarako helbidea.

| | |
|---|---|
| Izenburua | Gernika Gogoratuz – Bakerako ikerketa zentroa |
| Hizkuntza | Euskara, gaztelania, ingelesa |
| Baliabide mota | Baliabide zentroa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |



Laburpena

Gernika Gogoratuz Bakerako Ikerketa Zentroa 1987an sortu zen, Eusko Legebiltzarraren aho bateko erabakiaz, Gernikaren Bonbardaketaren 50. urteurrena zela eta.

Gernika Gogoratuz-en eginkizuna da Gernikaren sinboloa indartzea, bai iraganari begira, bere historia gogoratuz eta omenduz, eta bai etorkizunari begira, gogoeta zientifikoaren bidez askatasunean, justizian eta adiskidetzean oinarritutako bakea eraikitzen lagunduz, Euskal Herrian zein nazioartean.

Zentroak dokumentuak, txostenak eta ikasmateriala prestatzen ditu. Gatazkak ebazteko prestakuntza ikastaroak ere ematen ditu, Mintegiak eta Jardunaldiak antolatzeaz gain.

Gernika Gogoratuz-ek jende guztiaren eskura jartzen du bere Dokumentazio Zentroa (liburutegi espezializatu baten modura funtzionatzen du), eta baita bere Hemeroteka eta Bideoteka ere.

Harremanetarako helbidea

Gernika Gogoratuz
Artekalea, 1 – 1.a E • 48300 Gernika-Lumo - Bizkaia
34 946 253 558 34 946 256 765 • gernikag@gernikagogoratuz.org

Esteka interesgarria

www.gernikagogoratuz.org/

| | |
|---|---|
| Izenburua | Desadostasunerako informazioa |
| Egilea | Undercurrents / Peace News |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.peacenews.info |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara, ingelesa |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |



Laburpena

Gerraren aurkako DVDa Undercurrents-ek eta Peace News-ek (Britainia Handia) ekoitzi dute. Bertan, bakezale-talde batek Noam Chomskyri egindako elkarrizketak aurkezten dira esklusibotasunez, bai eta AEBetan zein Britainia Handian gerraren aurka egindako ekintzen zenbait mikrodokumental ere. Era berean, saritutako "Globalizazioa eta komunikabideak" dokumentala ere azaltzen da.

- Gerrarik ez. 5 m.
- New York. 5 m.
- Globalizazioa eta komunikabideak. 21 m.
- AEB. Munduko estatu terrorista nagusietakoa. 8 m.
- Ikerketa eta garapen militarra. Ekonomia berria. Petrolio-erreserbak kontrolatzeko borrokak. 7 m.

Harremanetarako helbidea

Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

Esteka interesgarria

www.undercurrents.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Munduko Hiritarrok – Gatazkak konpontzea |
| Egilea | ALBOAN |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | ALBOAN |
| Urtea | 2003 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Hiritartasunaren arazoa eta, zehatzean, gatazkak aztertu eta konpontzearena jorratzen dituen hezkuntza-proposamena. Prozesu integrala da lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleentzat. Curriculumera egokitutako proposamen didaktikoak eskaintzen ditu, ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzen dutenak esperientzia parte-hartzaileen bitartez. |
| Harremanetarako helbidea | ALBOAN<br>Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao<br>34 944 153 592 34 944 161 938 • info@alboan.org |
| Esteka interesgarria | www.alboan.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Educar para la paz en tiempos difíciles |
| Egilea | Jarés, X. R. |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Bakeaz |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-88949-66-9 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Liburu honetan *Bakeaz*-ek egile honi argitaratu dizkioten lanak biltzen dira. Bildutako lau azterlanetan modu argi eta laburtuan aurkezten dira bake-hezkuntzarako nukleo teorikoak eta oinarrizko jarduera-eremuak. Horrela, lehenbizikoan haren oinarri teorikoak, kontestualizazio historikoa, osagaiak eta inplikazio edukatiboak jasotzen dira. Bigarrenean hezkuntzaren eta giza eskubideen arteko erlazioa aztertzen du, eta giza eskubideetatik abiatuz eta giza eskubideentzako heziketa-proiektu baterako printzipioak jartzen ditu agerian. Hirugarrena 2001eko irailaren 11n Estatu Batuetan izandako atentatuen ondorioei buruz Espainian egindako lehenbiziko lan edukatiboa da. Amaitzeko, azkenengo azterlanean, bake-hezkuntzarako gai nagusiari ekin zaio, hau da gatazken eta elkarbizitzaren arteko erlazioari eta, gainera, baita beste gai klabe bati ere, irakasleen prestakuntzari. |
| Harremanetarako helbidea | xjarés@bakeaz.org |
| Esteka interesgarria | www.bakeaz.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Las buenas intenciones. Intervención humanitaria en África |
| Egilea | Ruiz-Giménez, I. |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Icaria |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-7426-689-0 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Liburu hau gerraoste hotzeko Sahara Azpiko Afrikan gertatutako bi fenomenoren konplexutasunera hurbiltzen da: barruko gatazka armatuak eta “nazioarteko erkidegoaren” partaidetza ikusgarria gatazka horien konponketan.<br>Afrikako gatazken zergatiak eta dinamikak aztertzean, argi eta garbi ikusten dugu diskurtsoek (etnikotasuna, azpigarapena, gerrako jaunak) zenbait arrazoi, dinamika eta erantzukizun ezkutatzen dituztela eta mendebaldeko zenbait ekintza politiko legeztatzen dituztela, jokoan dauden faktoreak zeintzuk diren azaldu beharrean. Bestetik, laurogeita hamarreko hamarkadan nazioartea gatazka horietan esku hartzen hasi zenean, partaidetza militar humanitarioa areagotu zen. Afrikako lau esperientziek (Liberia, Sierra Leona, Somalia eta Ruanda) humanitarismoaren “neutraltasunaren” mitoa jarriko dute auzitan, eta, horrez gain, nazioarteko sistemako partaidetza humanitarioaren aldeko bozkarioa hoztuko dute. |
| Harremanetarako helbidea | Icaria editorial, S.A.<br>Ausiàs Marc, 16 - 3º 2ª • 08010 Barcelona<br>☎ 34 933 011 723 📠 34 933 178 242 • icaria@icariaeditorial.com |
| Esteka interesgarria | www.icariaeditorial.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Pensamiento pacifista |
| Egilea | Prat, E. (ed.) |
| Edizioaren lekua | Barcelona |
| Argitaletxea | Icaria |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-7426-723-4 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Pazifismoak, emankor izan nahi badu, Historian orain artean izandako ideia eta esperientzia pazifistak ezagutzea, eguneratzea eta elkarren artean harremanetan jartzea eskatzen du. Liburu honek Historian zehar izandako zenbait pazifista ospetsuren (hala nola Thoreau, Tolstoi, Gandhi, Einstein, Luther King, Woolf, Arendt, Thompson,... ) ekarpenak eta hausnarketa esanguratsuak biltzen ditu, egun mugimendu pazifistan diharduten adituen eskutik. |
| Harremanetarako helbidea | Icaria editorial, S.A.<br>Ausiàs Marc, 16 - 3º 2ª • 08010 Barcelona<br>☎ 34 933 011 723 📠 34 933 178 242 • icaria@icariaeditorial.com |
| Esteka interesgarria | www.icariaeditorial.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Aipaz - Asociación española de investigación para la paz |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | 1997an sortua, AIPAZ elkarteak ikuspuntu global, multidiziplinar eta kritiko batetik indarkeriarekin loturiko fenomeno guztiak aztertzen ditu. Bere ustez, bakea ez da gatazka belikoen falta soilik; elementu hauen presentziarekin ere hertsiki loturik dago: justizia soziala, garapen iraunkorra, herritartasunaren erabilera demokratikoa, eta giza eskubideekiko errespetua estatuen barruan zein estatuen artean. Horregatik, AIPAZ edozein indarkeria motaren aurka dago, eta bakearen kultura eta gizartea eraikitzen lagunduko duten balio zein praktika sozialekin konprometitutа.<br><br>AIPAZen web orrialdeak elkarteko kide diren zentroei eta beren ikerketa ildoei buruzko informazioa ematen du. Aldizkari eta artikulu elektronikoak ere badaude. Albisteen atalak duela gutxiko topaketa eta gertakizunen berri ematen du. |
| Harremanetarako helbidea | AIPAZ. Asociación española de investigación para la paz<br>Departamento de Sociología • Universidad de Alicante<br>Apartado de Correos 90 • 03080 Alicante<br>gepyd@ua.es |
| Esteka interesgarria | www.ua.es/es/cultura/aipaz/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | CIP. Centro de Investigación para la Paz |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Bakerako Ikerketa Zentroa (CIP-FUHEM) nazioarteko gaiak aztertzeko institutua da, eta, diziplina anitzeko ikuspegitik, gatazka armatuak, euren zergatika eta eragileak, prebentzioa, berreraikuntza eta gatazken konponbidea jorratzen ditu. Horrez gain, honako arlo hauekin zerikusia duten gaiak aztertu eta hedatu egiten ditu: globalizazioa, estatu ahulak, alderdi anitzeko sistema, giza eskubideak, migrazioak, nortasunak, herri indigenak, generoa, nazioarteko justizia eta bakerako zein garapenerako hezkuntza. Honako hau dago ikusgai web orrialdean:<br>• Artikuluak eta azterlanak.<br>• Txostenak.<br>• Material didaktikoak.<br>• Erakusketak.<br>• Argitalpenak.<br>Horrez gain, dokumentazio-zentroan eta beste arlo interesgarri batzuetan ere sartu gaitezke. |
| Harremanetarako helbidea | fuhem@fuhem.es |
| Esteka interesgarria | www.fuhem.es/portal/areas/paz |

**Izenburua:** ECP - Escola de Cultura de Pau

**Hizkuntza:** Katalana, gaztelania

**Baliabide mota:** Web orrialdea

**Hartzaileak:** Irakasleak

**Laburpena:**

Escola de Cultura de Pau (ECP) edo Bakearen Kulturarako Eskola 1999. urtean sortu zen, honako asmo hauekin: bakearen kulturaren eta giza eskubideen alde lan egitea, gatazkak eta bake prozesuak aztertzea, bake hezkuntza eta desarmea bultzatzea, eta gatazka armatuak saihestea.

ECPren helburu zehatzak hauek dira:

- Bakearen kulturaren ulermena eta praktika bultzatzea.
- Ikerketa egitea eta esku hartzea gai hauen inguruan: gatazkak, bake prozesuak, gerraosteko errehabilitazioa, armen salerosketa, giza eskubideak, diplomazia paraleloa eta bake hezkuntza.
- Bakearen kulturaren mezua eta praktika zabalduko duten pertsonak trebatzea.

Jarduerak, prentsa, irakaskuntza, bake hezkuntzarako baliabideak eta albisteen buletinaz gain, ECPren web orrialdeak programa hauek eskaintzen ditu:

- Programak:
    - Gatazkei, giza eskubideei eta bakearen eraikuntzari buruzko Alerta Unitatea.
    - Kolonbia.
    - Desarmea eta Giza Segurtasuna.
    - Bake Hezkuntza (BH). Gatazkak ebazteko hezkuntza.
    - Giza Eskubideak. Giza eskubideen egoera nazioartean.
    - Gerraosteko errehabilitazioa. 18 herrialderen eguneroko jarraipena.
    - Bake prozesuak.

**Harremanetarako helbidea:**

Escola de Cultura de Pau
Edifici G-6, UAB • 08193 Bellaterra - Barcelona
34 935 812 414 • 34 935 813 294 • escolapau@pangea.or

**Esteka interesgarria:** www.pangea.org/unescopau/

**Izenburua:** INET – Instituto de Estudios Transnacionales

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Baliabide mota:** Web orrialdea

**Hartzaileak:** Jendea oro har

**Laburpena:**

1994ko udaberrian, Nazioz Harandiko Ikasketen Elkartea (SET) sortu zen Kordoban. Bere helburua zera zen: herritarrei demokraziaren eraikuntzan parte hartzeko hartu behar dituzten erabaki ilustratuak, eta beraz libreak, hartzea eragozten dien hutsune teorikoa gizarte zibiletik betetzea.

Transnazionalizazioak, internazionalizazioak, globalizazioak eta unibertsalizazioak mundializazioaren ideia dakarte berekin. Ghetto nazionalaren amaiera, mugen porositate geroz eta handiagoa eta fenomeno sozialen interdependentzia adierazten dute; fenomenook geroz eta gutxiago dira sortzen diren herrialdeetan isolatutako faktoreak.

Gure arazoek eta haientzako irtenbideek nazioz haraindiko izaera duten uste osoarekin, SETek Nazioz Haraindiko Ikasketen Institutua (INET) sortu zuen. Bere helburua Estatuen mugak

zeharkatzen dituzten arazoak ikertzea da (baliabideak, biztanleria eta migrazioak, politika komertzialak, garapenerako lankidetza, giza gatazkak eta ingurumenarekin loturikoak, informazioa eta komunikazioa...). INETek zehaztasun eta sakontasun handiko diagnostikoak eta irtenbideak eskaintzen ditu, haiek pertsonen, kolektiboen eta erakundeen eskura jarriz, gure gizartearen garapen justu eta demokratikoari laguntzeko. INETemas aldizkariko zenbaki guztiak Institutuaren web orrialdean kontsulta daitezke. Horrez gain, web orrialdeak INETen jarduerei buruzko informazioa ematen du (mintegi iraunkorrak, biltzarrak, mahai inguruak, ikastaroak eta topaketak), eta baita azken urteetako ikerketa ildoei buruzkoa ere.

Harremanetarako helbidea
INET
Sevilla 4, 2º izq. • 14002 Córdoba
34 957 490 069 • inet@pangea.org

Esteka interesgarria
www.pangea.org/inet

Izenburua
Instituto de la paz y los conflictos. Universidad de Granada

Hizkuntza
Gaztelania

Baliabide mota
Web orrialdea

Hartzaileak
Irakasleak

Laburpena
Bakearen eta Gatazken Institutua Granadako Unibertsitateko irakasle talde multidiziplinar batek sortu zuen, bi gai horiei buruzko ikasketak sakontzeko asmoz.

Institutuan irakasle, ikertzaile eta ikasleek elkarrekin lan egiten dute, indarkeriaren zergatiak eta bakea lortzeko baldintzak aztertzeko. Horren helburua da jokabideak aldatzea, gure gizartea eta harreman nazionalak zein nazioartekoak lankidetzan, giza eskubideekiko errespetuan eta bakea lortzeko behar diren baldintza material eta sozialetan oinarritu daitezen.

Bere web orrialdean argitalpenen katalogoa aurkituko dugu. Argitalpen batzuek formatu elektronikoa dute.

Horrez gain, web orrialdeak egungo ikerketa ildoen, doktorego programen eta ikastaroen berri ematen du.

Harremanetarako helbidea
Instituto de la paz y los conflictos. Universidad de Granada
Rector López Argüeta s/n (Centro de Documentación Científica)
18071 Granada
34 958 244 142 34 958 248 974 • eirene@ugr.es

Esteka interesgarria
www.ugr.es/~eirene/

| | |
|---|---|
| Izenburua | Juegos y dinámicas para educar |
| Egilea | Moreira, O. |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Web orrialde honek taldeko jolas eta dinamika batzuk biltzen ditu, taldeekin lan egiten duten hezitzaileek erabil ditzaten, elkarreragin aktibo eta aberasgarria egon dadin, taldekideen adina eta esku hartzearen eremua edozein dela ere (hezkuntza formala nahiz ez formala).<br>Dinamikak gaika sailkatuta daude: aurkezpen jolasak, ezagutza, lankidetza, finkatzea, konfiantza, komunikazioa, gatazken ebazpena eta distentsioa. Horrez gain, web orrialdeak antzeko edukiak dituzten beste orrialde batzuetarako estekak ditu. |
| Harremanetarako helbidea | omoreira@encina.pntic.mec.es |
| Esteka interesgarria | encina.pntic.mec.es/~omoreira/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Observatori Solidaritat |
| Egilea | Fundació Solidaritat de la Universitat de Barcelona |
| Iturria | www.ub.es/solidaritat/som.htm |
| Hizkuntza | Katalana |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Observatori Solidaritat-ek ageriko edo ezkutuko gatazken eraginez mundu osoan gertatzen diren Giza Eskubideen urratzeak jasotzen, deskribatzen, aztertzen eta salatzen ditu. Observatori Solidaritat tresna erabilgarria da nazioarteko egoeraz, bakeaz eta giza eskubide-ez arduratzen den edozeinentzat, eta baita ere indarkeriazko egoerak nahiz Giza Eskubideen urratzeak ezagutarazi eta herritarrak haien inguruan sentsibilizatu nahi dituztenentzat.<br>Gaikako eta herrialdekako txostenez gain, bere web orrialdeak baliabideak, estekak, kanpainak, agenda, prestakuntza ikastaroak eta abar eskaintzen ditu. |
| Harremanetarako helbidea | solidari@pangea.org |
| Esteka interesgarria | www.observatori.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Aprendiendo a ser ciudadanos |
| Egilea | Benedicto, J.; Morán, Mª L. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Gazteen Institutua |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-96028-11-9 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Zer prozesutan eta zer eremutan ikasten dute gazteek gaur egungo gizarteetako hiritarrak izaten? Nolako eragina izan dute sistema demokratikoetan inplikatzeko jarduerak eraldatu dituzten aldaketa sakonek gazteek "hiritar ona" izatea zer den ulertzeko orduan? Gazteez eta hiritarrez hitz egin dezakegu aldi berean, bi mailok gaur egungo gizarteetan nolako harremanak dituzten aztertzeko? Bestela, beti bezala, zain egoteko eta prestatzeko etapatzat hartu behar dugu gaztaroa eta gazteak erdi-hiritarrak edo bigarren mailako hiritarrak direla esan behar dugu? Horra hor ale honetan jasotako ekarpenek erantzun nahi dituzten zenbait galdera. |
| Harremanetarako helbidea | Instituto de la Juventud<br>José Ortega y Gasset, 71 • 28006 Madrid |
| Esteka interesgarria | www.mtas.es/injuve |



| | |
|---|---|
| Izenburua | AMEI - WAECE. Asociación Mundial de Educadores Infantiles |
| Hizkuntza | Gaztelania, portugesa, ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | AMEI edo Haur Hezitzaileen Munduko Elkarteak helburu hauek ditu:<br>• Haur Hezkuntzan pedagogia berritzeko ekintzak bultzatzea eta koordinatzea.<br>• Azterketak eta ikerketak egitea haur hezitzaileei beren lana egiten laguntzeko.<br>• Mintegiak, ikastaroak eta topaketak antolatzea haur hezitzaileak prestatzeko.<br>• Haur hezitzaileen arteko esperientzia trukeak egitea eta bultzatzea.<br>• Ikerketa didaktikoa bultzatzea.<br>• Haur Hezkuntzaren egoerari buruzko mota guztietako ikerketak egitea.<br>• Guztien intereserako diren gaietan haur hezitzaileen arteko elkartasuna eta lankidetza bultzatzea.<br>Bere web orrialdea atal hauetan dago banaturik: informazio pedagogikoa, legeria, jarduerak, esperientzia trukea, praktika profesionalak, informazio buletinak, prestakuntza planak, albisteak eta gaiarekin loturiko estekak. |
| Harremanetarako helbidea | AMEI-WAECE<br>Averroes, 3 • 28007 Madrid<br>34 91 501 87 54 34 91 501 87 46 • info2@waece.org |
| Esteka interesgarria | www.waece.org/ |



**Izenburua** CNICE - Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa
**Egilea** MEC – Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** Irakasleak
**Laburpena** CNICEren atariak hezkuntza komunitatearentzat interesgarriak diren informazio eta prestakuntza baliabideak eskaintzen ditu.

Informazioa bost ataletan banaturik dago:

- Proiektuak. Erakundeen ekintzak; ikastetxeak; nazioarteko lankidetza; internet-hezkuntza biltzarra.
- Hezkuntza baliabideak, etapaka antolaturik. Atal honetan beste baliabide lagungarri batzuk, hiztegiak eta hezkuntzaren inguruko legeria ere aurkituko dugu.
- Urrutiko prestakuntza. Helduentzako ikastaroak; hezkuntza arautua; irakasleen prestakuntza; atzerritarrentzako ikastaroak; bekak eta dirulaguntzak.
- Hezkuntza telebista eta ikus-entzunezkoen produkzioa.
- Behatoki teknologikoa. Teknologia informatikoa; softwarea; dokumentuak; baliabide teknologikoak.

**Harremanetarako helbidea** Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa
Ministerio de Educación y Ciencia
Torrelaguna, 58 • 28027 Madrid
34 913 778 300 34 913 680 709 • webmaster@cnice.mec.es
**Esteka interesgarria** www.cnice.mec.es/

**Izenburua** Edualter
**Hizkuntza** Gaztelania, katalana
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak
**Laburpena** Edualter atariak honako arlo hauekin zerikusia duen bibliografia eskaintzen du: garapenerako hezkuntza, kultura arteko hezkuntza, balioetan oinarritutako hezkuntza eta bakerako hezkuntza. Era berean, ikasmaterialei buruzko datu-basea eta arlo horretan diharduten pertsonen eta taldeen helbideak ere badaude ikusgai. Bestetik, Jardueren Agenda eta Gaur-gaurkoak atalak ere badira interesgarriak, eta kanpainen zein proposamen pedagogikoen berri ematen dute.
**Harremanetarako helbidea** edualter@pangea.org
**Esteka interesgarria** www.edualter.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Educared |
| ISBN | Iturria |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Educared ataria hezkuntza-munduko zenbait erakundek bultzatutako ekimena da, eta, elkarte profesional, gurasoen konfederazio eta sindikatu nagusiak dira bertako kideak.<br>Educared atariak baliabide didaktiko, jarduera eta informazio ugari eskaintzen dizkio hezkuntza-erkidego osoari. Hala ere, lehentasuna ematen die teknologia berriei, ikastetxeetako jarduera erabiltzeko eta ezartzeko proposamenen bidez. Horrez gain, honako hauek ere badaude ikusgai: prestakuntza-ikastaroak, beste web orri batzuetarako estekak eta hezkuntzako bilatzailea. |
| Esteka interesgarria | www.educared.net |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Elkarrekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasleen Ataria |
| Hizkuntza | Euskara, gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Elkarrekin irakasleei eta hezkuntza komunitate osoari zuzenduriko ataria da. Hezkuntzaren alorreko gaurkotasun albisteak, foroak, beste atari batzuetarako estekak eta nobedadeak eskaintzen ditu, besteak beste. Liburutegia bereziki interesgarria da, eta bertatik gaika antolatutako hainbat baliabide deskarga daitezke: IKTen erabilera hezkuntzan, eskola inklusiboa, esperientziak, kultura artekotasuna, elkarlana, legeria etab. |
| Harremanetarako helbidea | elkarrekin@elkarrekin.org |
| Esteka interesgarria | www.elkarrekin.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Global Education Center |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Web orri hau Australiako Global Education Center GKErena da, eta laguntza zein baliabideak eskaintzen dizkie hezitzaileei, ikasleei eta hezkuntza-erkidego osoari. Erkidegoaren kontzientzia kritikoa sustatzea du helburu. Horrela, bada, jabetu egingo da eta bidezkoagoa den mundu seguru eta iraunkorragoaren alde jardungo du.<br>Honako hauen arabera ondo egituratutako web orri osatua da:<br>• Gai orokorrak: umeen eskubideak, hezkuntza, elikaduraren segurtasuna, generoa, osasuna, ingurumena...<br>• Kontinenteak: Afrika, Asia, Pazifikoa.<br>• Irakaskuntzarako tresnak eta baliabideak: kasuen azterketak, jarduerak...<br>• Sareentzako laguntza: eztabaida-taldeak, aldizkariak, egutegia...<br>• Curriculumetarako estekak: eskolak, baliabideak... |
| Harremanetarako helbidea | Global Education Centre (SA)<br>1st Floor, Torrens Building, 220 Victoria Square • 5000 Adelaide (South Australia)<br>gecsa@global-education.asn.au |
| Esteka interesgarria | www.globaleducation.edna.edu.au |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Senderi |
| Hizkuntza | Gaztelania, katalana |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Senderi balioetan oinarritutako hezkuntzaren aldizkaria da, eta hezkuntzaren munduarekin zerikusia duten zenbait erakundek batera garatutako ekimena da. Argitalpen honek balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko ideiak, lan-esperientziak eta materialak egitea eta hedatzea du helburu, hausnarketan, elkarrizketan eta gure entitateen arteko ahaleginen koordinazioan oinarrituta. Web orrialdean bertan, zenbait baliabide didaktiko eskaintzen dira on line. Era berean, honako atal hauen arabera antolatutako mediatekan ere badaude agiriak: liburuak, filmografia, estekak eta materialak. |
| Harremanetarako helbidea | butlleti@senderi.org |
| Esteka interesgarria | www.senderi.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Altermondes |
| Edizioaren lekua | Paris |
| Argitaletxea | CRID |
| ISBN | 1772-869X |
| Hizkuntza | Frantsesa |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | *Altermondes* nazioarteko solidaritateari buruz hiru hilabetero argitaratzen den aldizkaria da, *Crid* (*Centre de Recherche et d'Information pour le Developpement*), *Frères des Hommes*, *Peuples Solidaires*, *Ritimo* eta *Terre des Hommes-France*-k batera argitaratutakoa. Hiru hilabetean behin nazioarteko solidaritatearen aldeko antolakuntzek eta euren *partenaireek* nazioarteko aktualitatearen irakurketa proposatzen digute, 16 orrialdeko dossierra gai jakin bati buruzko hausnarketan sakontzeko eta nazioarteko solidaritatearen agenteek eskala lokalean eta nazioartekoan garatutako hausnarketa, jarduera eta ekintzapideen panorama zabala izateko. |
| Harremanetarako helbidea | CRID - Centre de Recherche et d'Information pour le Developpement<br>14, passage Dubail • 75010 Paris (France)<br>☎ 33 01 44 72 07 71 ☎ 33 01 44 72 06 84 • d.eloy@crid.asso.fr |
| Esteka interesgarria | www.crid.asso.fr |



| | |
|---|---|
| Izenburua | CRAC - Centro de Recursos para Asociaciones de Cádiz y la Bahía |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Baliabide zentroa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | CRACek garapen asoziatiboan interesatutako erakunde sozial eta publikoei eskaintzen die zerbitzua. Hona hemen, besteak beste eskaintzen dituen zerbitzuak: |



- Ikerketa eta autodiagnosi asoziatiboa. Ikerketa parte-hartzaileak, egitura asoziatibo lokala kontuan hartuta, bakoitzak bere egoera eta hobekuntzarako aukerak azter ditzan. Autodiagnosi prozesuan eta plangintza estrategiko prozesuan dauden elkarteei aholkularitza.
- Prestakuntza asoziatiboa. Prestakuntza, era guztietako tresnak eta metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea erabiliz.
- Garapen asoziatiboari buruzko aholkularitza. CRACek garapen asoziatiboari buruzko aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dizkie elkarte eta erakunde publikoei, euron beharrizanen eta eskaera zehatzen arabera.
- Elkarteentzako materialak. CRACek azken urteotan hainbat material eta tresna argitaratu eta kaleratu ditu praktika asoziatiboaren inguruan.
- Bilkurak, jardunaldiak, erakustaldiak. CRACek era horretako hainbat jarduera eratu ditu, komunikaziorako espazioak eta elkarteen arteko trukaketarako espazioak antolatu eta dinamizatzeko berariazko metodologiak garatuz. Aholkularitza teknikoa elkarteentzat.
- Elkarteen arteko sareak Interneten. CRACek www.redasociativa.org proiektua dinamizatzen eta animatzen du Interneten. Portal asoziatibo horretan Cadizko badiako 60 elkartek baino gehiagok parte hartzen dute, eta beraren bitartez

informazio, komunikazio, prestakuntza eta kudeaketarako hainbat baliabide kanalizatzen dira elkarteentzat.

Era berean, CRACek Cadizen Aula Conecta deritzana dinamizatzen eta animatzen du, teknologia berrien erabileran prestakuntza jasotzeko espazioa.

CRACek aholkularitza formatiboa eta teknikoa ere eskaintzen ditu Interneten sare asoziatiboak eraikitzeko (territorialak edo sektorialak) eta mundu asoziatiboan Informazio eta Komunikazio Teknologia Berriez (IKTB) jabetzeko.

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | crac@redasociativa.org |
| Esteka interesgarria | www.redasociativa.org/crac |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Los movimientos sociales. Conciencia y acción de una sociedad politizada |
| Egilea | Román, P. eta Ferri, J. (arg.) |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Consejo de la Juventud de España |
| Urtea | 2002 |
| ISBN | 84-921107-6-7 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Gazteria |
| Laburpena | Gizartea giza mugimenduen bidez konturatzen da eraldatzeko daukan ekintzapideaz eta gaitasunaz. Mugimendu horiek dira hartarako jarduera-plataforma nagusia. Giza mugimenduak zein egoeratan sortu eta protagonismo handiena noiz garatu izan duten aztertzen da liburu honetan. Esate baterako, langileen mugimenduak, ikasle eta gazteek bultzatutakoak, bakearen eta ekologiaren aldekoak, mugimendu feminista eta homosexualen eskubideak aldarrikatzearen alde borrokatzen duen mugimendua. |
| Harremanetarako helbidea | Consejo de la Juventud de España<br>Montera, 24 – 6ª planta • 28013 Madrid<br>34 917 010 420 34 917 010 440 • info@cje.org |
| Esteka interesgarria | www.cje.org |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Boluntariotza.net – Boluntariotzaren web orrialdea |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara, galiziera, katalana |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Boluntariotza.net elkartegintzatik sortutako ekimena da, eta boluntariotza interesatzen zaion edozeini orientabidea ematea du helburu, bere adina edozein dela ere. Horrez gain, web orrialdea boluntariotzako erakundeen zerbitzura dago: boluntario berriak artatzen ditu, oinarrizko kontzeptuak argitzen ditu eta boluntario izan nahi dutenei laguntza eskaintzen die. |
| Harremanetarako helbidea | info@boluntariotza.net |
| Esteka interesgarria | www.boluntariotza.net |



**Izenburua** Foro Social Mundial
**Hizkuntza** Portugesa, gaztelania, frantsesa, ingelesa
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKEak eta Gizarte Mugimenduak
**Laburpena** Munduko Foro Soziala ideien eztabaida demokratikorako, etengabeko hausnarketarako, proposamenak formulatzeko, esperientziak elkartrukatzeko eta neoliberalismoaren eta mundua kapitalaren edota beste edozein inperialismoren menpe egotearen kontra lan egiten duten giza mugimenduak, sareak, GKEak eta gizarte zibileko antolakuntzak artikulatzeko espazioa da. Munduko lehenbiziko biltzarra egin ondoren, 2001ean, etengabeko prozesu mundial gisa egituratu zen, alternatiba politiko neoliberalak bilatu eta eraikitzeko xedez. Definizio hori Printzipioen Gutunean jasota dago, Munduko Foro Sozialaren dokumentu nagusian.

Munduko Foro Sozialaren ezaugarri dira pluraltasuna eta aniztasuna, izaera ez konfesionalduna, ez gubernamentala eta ez partidarioa izatea. Foroak jarduera jakinetan konprometituko diren erakundeak eta mugimenduak artikulatzea erraztu nahi du, bai modu deszentralizatuan bai sarean, bai maila lokalean bai nazioartekoan, beste mundu posible bat eraiki nahian; baina ez du nahi munduko gizarte zibilaren instantzia ordezkaria izan.

**Harremanetarako helbidea** Oficina FSM
Rua General Jardim, 660 - 8. andar, sala 81 • Cep 01223-010 - São Paulo- SP (Brasil)
☎ 55 11 3258 8914 ℻ 55 11 3258 8469 • fsminfo@forumsocialmundial.org.br

**Esteka interesgarria** www.forumsocialmundial.org.br/

**Izenburua** REAS - Red de Economía Alternativa y Solidaria
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKEak eta Gizarte Mugimenduak
**Laburpena** Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarea da REAS, ehun baino erakunde gehiagok osatua, sare territorialetan eta sektorialetan banatuta. Nazioartean ere badu presentzia, Sozioekonomia Solidarioaren Sare Globalean. Ekonomia alternatibo eta solidarioaren printzipio hauek arautzen dute sarearen jarduna:

1. Berdintasuna. Enpresaren edo antolakuntzaren jardueretan protagonista diren pertsona guztien interesak modu orekatuan asetzea.
2. Enplegua. Lanpostu egonkorrak sortzea eta gutxietsitako trebakuntza txikiko pertsonei lanpostua lortzen laguntzea. Langileei lan-baldintza egokiak eta soldata duina ziurtatzea, bakoitzaren garapen pertsonala estimulatuz eta erantzukizunak har ditzaten alde eginez.
3. Ingurumena. Ingurumena errespetatzen duten jarduera, produktu eta ekoizpen-metodoen alde egitea.
4. Lankidetza. Lankidetzaren alde jokatzea eta ez lehiakortasunaren alde, antolakuntzaren barruan zein kanpoan.
5. Irabazpide gabe. Ekintzapide sozialen helburu nagusia dira gizakiaren eta gizartearen sustapena. Irabazitakoa gizartearen onurarako izango da, proiektu sozialak lagunduz, ekintzapide solidario berriak bideratuz edo garapenerako lankidetza programak eratuz, besteak beste.

6. Inguruarekin konpromisoa. Ekintzapide solidarioek konpromiso estua dute garatzen diren inguru sozialarekin, eta horrek ezinbestean eskatzen du beste antolakuntza batzuekin lankidetzan jardutea eta sareetan parte hartzea, esperientzia solidario zehatzek eredu sozioekonomiko alternatiboa sor dezaten.

Harremanetarako helbidea: secretaria@reasnet.com

Esteka interesgarria: www.reasnet.com

Izenburua: RINOCEROS - Réseauu internationale d'échanges d'informations pour un développement responsable et solidaire

Hizkuntza: Frantsesa

Baliabide mota: Web orrialdea

Hartzaileak: GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena: Rinoceros atariak herritarrek mundu hobeago bat eraikitzeko abiarazitako ekimenen berri ematen du.

Rinoceros-ek mundializazio liberalaren aurrean alternatibak bultzatzen ditu, helburu hauek lortzeko: demokrazia eta gobernatzeko moduak berreraikitzea, garapen iraunkorra lortzea, oinarrizko eskubideak defendatzea, bakearen alde eta gerraren kontra egitea, kultura eta giza aniztasuna babestea, hedabideen independentzia defendatzea, herritarrak IKTez jabetzea, zientziak eta teknikak kontrolatzea, pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia bat asmatzea.

Printzipio horiek atariaren gaikako egitura osatzen dute. Atariak artikulu, monografia eta txosten ugari eskaintzen ditu, eta baita eragileei buruzko informazioa ere.

Rinoceros proiektua Ritimok sustatu du, Fondation Charles Léopod Mayer pour le progrès de l'homme delakoarekin lankidetzan.

Harremanetarako helbidea: Ritimo
21 ter rue Voltaire • 75011 Paris (France)
✆ 33 01 44 64 74 16

Esteka interesgarria: www.rinoceros.org

Izenburua: Universia Solidaridad

Hizkuntza: Gaztelania

Baliabide mota: Web orrialdea

Hartzaileak: Gazteak

Laburpena: Universia Solidaridad gizarte bidezkoago eta partehartzaileago bat eraikitzeko Universiak eta unibertsitateak ezarritako estrategien erakusgarria da. Universia Solidaridad-en helburu nagusia unibertsitateen baitan sortutako ekintza solidarioak bultzatzea eta jakinaraztea da, unibertsitarioak kontzientziatzeaz gain.

Atari berri honek ikerketarako baliabide erabilgarriak eskainiko ditu, gaian interesa duen edozeini zuzenduriko edukiez gain.

Solidaridad-ek erreferentzia bihurtu nahi du unibertsitateen ekintza solidarioen zabalkundean. Erabiltzaileei gai hauen inguruko informazioa emango die: programak eta deialdiak, ezta-

| | |
|---|---|
| | baidak, kasuen azterketa eta jardunbide egokiak, GKEak, premiazko operazioak eta laguntza humanitarioa. Bestalde, atariak albisteak ere eskainiko ditu.<br>Atariak bost gai nagusi jorratuko ditu: lankidetza, kultura aniztasuna, giza eskubideak, bakea eta gatazkekin loturiko alderdiak eta minusbaliotasuna. Albisteak, erreferentzia erabilgarriak, dokumentuak, behatokiak eta sarean eskura daitezkeen baliabideen katalogoak eskainiko ditu, edukiak unibertsitatearen ikuspuntutik aztertuz. |
| Harremanetarako helbidea | Universia Solidaridad - Portal Universia.es<br>Avda. de Cantabria, s/n – Edificio Arrecife, planta 00<br>28660 Boadilla del Monte - Madrid<br>34 912 895 949 34 912 571 506 • solidaridad@universia.net |
| Esteka interesgarria | www.solidaridad.universia.es/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Antipodes |
| Hizkuntza | Frantsesa |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | GGKE eta giza mugimenduak |
| Laburpena | Antipodes ITECOren hiruhilabetekaria da. Ale bakoitzean dossier bana eskaintzen du, non garapenerako prestakuntza eta hezkuntza arloan erakundeak egiten duen lanarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituen.<br>Aldizkaria prestakuntzarako material gisa sortua izan da. |
| Harremanetarako helbidea | antoniodelafuente@iteco.be |
| Esteka interesgarria | www.iteco.be |

| | |
|---|---|
| Izenburua | DE Times - A Newsletter on Development Education in Europe |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | DE Times aldizkaria DEEEPek (Development Education Exchange in Europe Project) kaleratzen du, eta Europan Garapenerako Hezkuntzaren arloan diharduten GGKEei zuzendurik dago.<br>DEEEPen helburua da GGKEen arteko informazio eta esperientzia trukea indartzea. Aldizkariak Garapenerako Hezkuntza eta Garapenerako Lankidetzarekin loturiko informazioa eskaintzen du, albisteez gain: biltzarrak, mintegiak, topaketak, finantzaketa aukerak, baliabideak, jardunbide egokiak etab. |
| Harremanetarako helbidea | l.paoletti@deeep.org |
| Esteka interesgarria | www.deeep.org/english/news/de_times/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Global Education Newsletter |
| Egilea | North & South Centre |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Global Education Newsletter hilean behin kaleratzen den buletin elektronikoa da, eta hezkuntza globalari, gertakariei zein ikasmaterialei buruzko informazioa eta gaikako estekak eskaintzen ditu. Buletina 1989an Europako Batzordeak sortutako Iparraldea & Hegoaldea Zentroak (Interdependentzia Globalerako eta Elkartasunerako Europako Zentroak) argitaratzen du, eta bere helburuak hauek dira: Iparraldea eta Hegoaldearen arteko lankidetza eta elkartasuna indartzea, munduko biztanle guztiak lotzen gaituzten interdependentziazko harremanari buruzko informazioa eta hezkuntza ematea, eta giza eskubideekiko, demokraziarekiko eta kohesio sozialarekiko errespetua bultzatzea. |
| Harremanetarako helbidea | Miguel.silva@coe.int |
| Esteka interesgarria | www.coe.int/T/E/North-South_Centre/Programmes/3_Global_Education/g_GE_Newsletter/ |

**Izenburua** Global express. La actualidad en el aula
**Egilea** Intermón Oxfam
**Hizkuntza** Katalana, euskara, galegoa eta gaztelania
**Baliabide mota** Aldizkaria
**Hartzaileak** Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)
**Laburpena**



*Global express* Intermón Oxfam, Curriculum Development Unit (Irlanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Centrum Voor Mondiaal Onderwijs (Holanda) elkarteen artean garatutako ekintzapidea da.

Global express dimentsio globaleko gaiak eta gertaerak lantzeko tresna da. Proposamen didaktikoa, irakasleentzako orientabideak eta gaiari buruzko testuinguruko informazioa biltzen ditu. Global expressek komunikabideetan entzuten diren albisteei buruzko galderak egin nahi dizkie gure eskoletako ikasleei. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatzea da xedea, munduaren eta, batez ere, garapenean dauden herrialdeen egoera hobeto ulertzeko lagungarri izan dezaten.

Orain arte, honako ale hauek argitaratu dira:

- Su-etena: armen negozioa.
- Demokrazia hautestontzietatik haratago.
- Joko Olinpikoak: citius, altius, fortius.
- Tsunamia: larrialditik solidaritatera.
- Kiotok salbatuko gaitu?
- Pobrezia: Nazio Batuek ahaztutako arazoa.

**Harremanetarako helbidea** Intermon Oxfam
Urkixo zumarkalea 11 • 48008 Bilbao
info@intermonOxfam.org
**Esteka interesgarria** www.intermonoxfam.org

**Izenburua** EDUCASOL
Plate-forme Française d'Éducation au Développement et à la Solidarité Internationale
**Hizkuntza** Frantsesa
**Baliabide mota** Baliabide zentroa
**Hartzaileak** Hezitzaileak
**Laburpena**



Educasol garapenerako hezkuntza eta nazioarteko elkartasunaren aktoreen praktikak sendotzeko eta balioesteko gune irekia da. Plataforma lau aktore desberdinez osaturik dago: nazioarteko elkartasuneko erakundeak; sarean funtzionatzen duten erakundeak; kolektiboak ordezkatzen dituzten elkarteak; kanpainak eta programak.

Educasolen helburuak hauek dira:

- Garapenerako Hezkuntzaren alorreko elkarteen koordinazioa indartzea.
- Garapenerako Hezkuntzarekin loturiko ekintzak koherenteagoak eta ikusgaiagoak bihurtzea.
- Elkarteak ordezkatzea beren iritziak eta aldarrikapenak Frantziako eta Europako erakundeen aurrean azaldu ahal izateko.

Hori guztia hiru ardatzen bidez gauzatzen da:

- Esperientzia trukeak.
- Baliabide pedagogikoak bateratzea.
- Prestakuntza metodologikoa.

Bere web orrialdean, elkarteek hezkuntzaren eremu guztietan–formala, ez formala eta informala- garatutako 400 esperientziatik gora kontsulta daitezke. Esperientzia berriak datu baseari eransteko aukera ere badago. Horrez gain, web orrialdeak zenbait gairi buruzko 1.300 tresna pedagogiko baino gehiago eskaintzen ditu, publiko anitz bati zuzendurikoak.

Educasol 2004an sortu zen, eta Terre d'Avenir programa ordezkatu du.

Harremanetarako helbidea
Educasol c/o CRID
14 passage Dubail • 75010 Paris (France)
☎ 33 01 44 72 07 71 ✆ 33 01 44 72 06 8 • info@educasol.org

Esteka interesgarria
www.educasol.org/index.htm

Izenburua
Euskal Herriko Haurren inguruko Gaietarako Baliabideen Zentroa

Egilea
UNICEF

Hizkuntza
Gaztelania, euskara, ingelesa

Baliabide mota
Baliabide zentroa

Hartzaileak
Hezitzaileak



Laburpena
Haurrei buruzko Baliabide Zentroak (CRIN-EUSKAL HERRIA) erreferentzia bihurtu nahi du haurrekin loturiko gaietan. Bere web orrialdeak honako hau eskaintzen du:

- Euskal Herriko haurrei buruzko zerbitzua.
- Kideen nahiz erakundeen ekintza, programa eta finantzaketa iturriei buruzko informazioa, besteak beste.
- Euskal Herriko haurrentzako informazioa.
- Haurrekin eta haurrentzat lan egiten duten profesionalentzako laguntza.

Harremanetarako helbidea
UNICEF. Euskal Herriko Batzordea
Iparraguirre, 9 • 48009 Bilbao

Esteka interesgarria
www.crin.info

Izenburua
Hegoa – Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

Hizkuntza
Gaztelania, euskara

Baliabide mota
Baliabide zentroa

Hartzaileak
GGKE eta Gizarte Mugimenduak



Laburpena
Hegoa herrien giza garapen iraunkorraren alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakundea da. Bere jarduera hurrengo arloetan egituratuta dago: dokumentazioa, prestakuntza, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, aholkularitza eta ikerketa.

Hegoak nazioarteko Garapena eta Lankidetzan espezializatutako Dokumentazio Zentroa du. Zentroak 14.000 erreferentzia baino gehiago eskaintzen ditu, liburu, dokumentu, urtekari eta

aldizkarietako artikuluei buruzkoak, eta Interneten eskuragarri dago. On line katalogoa kontsultatzeko helbide honetara jo behar da: http://www.ehu.es/hegoaweb/webpages/

Horrez gain, jende guztiari eta bereziki hezkuntza komunitateari zuzenduriko Baliabide Didaktikoen Zentroa du, hezitzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen literatura pedagogikoa eta gida didaktikoak eskaintzen dituena. On line katalogoa kontsultatzeko helbide honetara jo behar da: http://www.bantaba.ehu.es/lab/bibl/

**Harremanetarako helbidea**
Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
✆ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

**Esteka interesgarria**
www.hegoa.ehu.es

---

**Izenburua**: Kent and the wider world
**Hizkuntza**: Ingelesa
**Baliabide mota**: Baliabide zentroa
**Hartzaileak**: Hezitzaileak



**Laburpena**
Kent and the wider world Erresuma Batuan Garapenerako Hezkuntzaren alorrean diharduten 45 zentroetako bat da, eta Development Education Asociation elkarteko kidea. Bere helburua interdependentzia globalari buruz kontzientziatzea da, eta ekintza bultzatzea mundu bidezkoago eta iraunkorragoa lortzeko. Bere web orrialdeak hiritartasuna, bidezko merkataritza, errefuxiatuak, globalizazioa eta beste gai batzuk lantzeko hezkuntza baliabideak eskaintzen ditu, hainbat euskarritan: bideoak, jolasak, gidak...

**Harremanetarako helbidea**
Kent and the Wider World
2-3 Bedford Place • Maidstone, Kent, ME16 8JB (United Kingdom)
kww@csr.org.uk

**Esteka interesgarria**
www.kww.org.uk

---

**Izenburua**: RITIMO - Réseau des centres de documentation et d'information pour le développement et la solidarité internationale
**Hizkuntza**: Frantsesa
**Baliabide mota**: Baliabide zentroa
**Hartzaileak**: GGKE eta Gizarte Mugimenduak



**Laburpena**
Ritimo Frantziako 40 informazio zentrok osaturiko sarea da, helburu hauek dituena:

- Munduaren eta gaur egungo egoeraren konplexutasuna azaltzea eta horri buruzko gogoeta egitea.
- Ezagutzak, esperientziak eta proposamenak trukatzea.
- Munduko herritar guztiak heztea.
- Praktika solidarioak eta herritarren ekimenak bultzatzea.

Ritimok hainbat gai jorratzen ditu, garrantzitsuenak hauek direlarik:

- Nazioarteko harremanak, batik bat Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoak.
- Nazioarteko elkartasuna.

- Zapalkuntza, indarkeria eta gerraren aurkako borroka, pertsonen nahiz herrien eskubideen defentsa.
- Berrikuntza sozialak, garapen iraunkorra lortzeko alternatibak.

Sareak honako hau eskaintzen du:

- Dokumentazioa.
- Datu baseak: zentroetan eta Interneten daude eskuragarri, aldian behin eguneratzen direlarik.
- Animazio tresnak.
- Informazioa eta eztabaidak.

Harremanetarako helbidea
Ritimo
21 ter, rue Voltaire • 75011 Paris (France)
33 01 44 64 74 14 33 01 44 64 74 55 • contact@ritimo.org

Esteka interesgarria
www.ritimo.org

Izenburua: Tide~ Teachers in development education
Hizkuntza: Ingelesa
Baliabide mota: Baliabide zentroa
Hartzaileak: Hezitzaileak



Laburpena
Tide~ irakaslez osaturiko sarea da eta helburu hauek ditu:

- Garapenerako hezkuntzaren praktika indartzea irakasleen trebakuntzaren bidez, ikastetxeak zein erakundeak animatuz dimentsio globala eta garapenaren ikuspuntua beren agendan sar ditzaten.
- Proiektuak eskaintzea, hezkuntza komunitateak curriculumaren zenbait alderditan edo garapenarekin loturiko gai jakinetan oinarritutako prozesu sortzaile batean parte har dezan.
- Aipatu proiektuen ondorioz sortutako ideiak eta estrategiak zabaltzea. Tide~k baliabide zentro baten modura funtzionatzen du, eta bertara hezitzaileak joan daitezke garapenerako hezkuntzako tailer eta mintegietan parte hartzera, edota zentroak eskaintzen dizkien baliabideak kontsultatzera: gida didaktikoak, posterrak, bideoak, bibliografia, katalogoak etab.

Harremanetarako helbidea
Tide~ Centre
G04 Millennium Point, Curzon Street • Birmingham B4 7XG (United Kingdom)
0121 202 3290 • info@tidec.org

Esteka interesgarria
www.tidec.org/

Izenburua: Sokaburuak lotzen. Garapenean aldeko hezkuntza Iruñeko eta Nafarroako 12-18 urte bitarteko gazteen artean. Azterlana
Egilea: Atando Cabos lantaldea; Huici, C.; García, I.; Chocarro, J. et al. (koord.)
Edizioaren lekua: Iruñea
Argitaletxea: Nafarroako GGKEen Koordinakundea
Urtea: 2004

Hizkuntza: Gaztelania, euskara
Baliabide mota: CD-Roma edo DVDa
Hartzaileak: GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena:

Nafarroako GGKEen Koordinakundeko Sokaburuak Lotzen lantaldearen ideia, ikerlan hau planteatzean, hezkuntzaz, proiektuez, helburuez, gazteriarekin elkarreragiteko moduez, epe luzerako lanaz eta antzeko arazoez berrausnarketa egitea izan da. Garapenerako hezkuntza eragin sozial sakon eta eraldatzaileaz hornitzea da asmoa.

CDan lantalde desberdinek egindako hiru ikerlan biltzen dira:

- Garapenerako hezkuntza Nafarroan. Taller de Sociología S.L.k egindako azterlana.
- Proiektuen eta materialen azterketa. ABRA kolektiboak egina.
- Nafarroako gazteriari buruzko ikerketen berrazterketa. Sokaburuak Lotzen lantaldearen lana.

Beste alde batetik, argitalpena ere erakusgai jarri du –liburu formatuan ere kaleratu baitzen–, non goian aipatutako ikerketetako ondorioak biltzeaz gain ikerlan aurreko hipotesiak ere aurkezten diren, ondorioekin kontrastean, eta Sokaburuak Lotzen lantaldeak GHren inguruan dituen hausnarketak ere bai, baita jarduera-lerro nagusiak eta egindako proposamen zehatzen aurrerapena ere.

Harremanetarako helbidea:
Nafarroako GGKEen Koordinakundea
Tudela, 4 - 2. ezk. • 31002 Iruñea
34 948 204 123 • congdn@congdnavarra.org

Esteka interesgarria: www.congdnavarra.org

Izenburua: Porto Alegre, 2003
Egilea: Joubert, M. A.; Belaigues, S.; Popper, A.; Clec'h, Y.
Edizioaren lekua: Bilbao
Argitaletxea: Hegoa
Urtea: 2005
Hizkuntza: Gaztelania, euskara, frantsesa
Baliabide mota: CD-Roma edo DVDa
Hartzaileak: Hezitzaileak

Laburpena:

Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroa, 2003. Ibilbide politiko desberdineko eta baliabide gutxiko lau gazte frantses Brasilgo hirira doaz, komunikabideek aurkeztutakoak ez beste irudi batzuk hartzeko asmoz. Horren ondorioz, 52 minutuko dokumentala egin dute Irakeko gerra eta eratzen ari den munduko hiritar-mugimendua nagusi diren foroari buruz. Lau gazte militanteak zenbait erakundetakoak dira: Selma Marokokoa da; Etienne, Frantziakoa; Hale Turkiakoa; eta Ibrahim, Nigeriakoa. Foroko eguneroko bizitasuna, sustatzen dituen trukeak, parte-hartzaileen itxaropenak eta ezustekoak gizarte-foroen gai eta borroka anitzen adierazgarri dira, bai eta globalizazioaren zein aukerako proposamenen azterketak erkatzeko interesaren adierazgarri ere.

Harremanetarako helbidea:
Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

Esteka interesgarria: www.hegoa.ehu.es

| | |
|---|---|
| Izenburua | ASAL |
| Hizkuntza | Italiera |
| Baliabide mota | GGKE |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | ASAL (Associazione Studi America Latina) garapenerako gobernuz kanpoko erakundea da. Hegoaldean Latinoamerikako demokratizazio prozesuei laguntzeko ekimenak, elkartasunezko kanpainak eta nazioarteko lankidetzarako programak egiten ditu. Europa mailan, ASALek herritarren Europa eraikitzearen aldeko kanpaina, sare eta koordinakundeetan parte hartzen du. Italian, berriz, garapenerako hezkuntza eta kultura artekotasunerako ekimenak bultzatzen ditu.<br>ASALek hezitzaileei, irakasleei eta ikastetxeei zuzenduriko proiektuak, ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu, eta Giza Eskubideei, Bakeari, Kultura Artekotasunari eta Garapenerako Hezkuntzari buruzko ikasmaterialak egiten ditu. |
| Harremanetarako helbidea | ASAL<br>Vía Tacito, 10 • 00193 Roma (Italia)<br>✆ 39 06 32 35 389 • asal@asalong.org |
| Esteka interesgarria | www.asalong.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | ITECO – Centre de formation pour le développement et la solidarité internationale |
| Hizkuntza | Frantsesa |
| Baliabide mota | GGKE |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | ITECO garapenerako hezkuntzako proiektuen akonpainamendu pedagogikoa eta ebaluazioa egiten duen erakundea da. Bere jarduerak bost arlotan banatzen dira:<br>• Prestakuntza. ITECOk programa finkoak eskaintzen ditu urtero, eta elkarte eta kolektiboek eskatutako beste batzuk ere bai. Prestakuntza antolatua da. Urtero oinarrizko lau prestakuntza ematen ditu: "Hemen edo beste nonbaiten, zer egin?"; garapenerako hezkuntzako animatzaileentzako ziklo bat: "Garapenerako heztea, lankidetzan aritzeko beste modua"; "Gizarte lana kultura arteko ingurunean" izeneko zikloa; azkenik, garapenerako agenteentzako prestakuntza ziklo bat eta garapenerako hezkuntzan erabiltzeko tresna pedagogikoei buruzko bi modulu.<br>• Jarraipena eta ebaluazioa.<br>• Garapenerako hezkuntzako ekintzen akonpainamendu metodologikoa.<br>• Garapeneko eta garapenerako hezkuntzako ekintzen ebaluazioa.<br>• Argitalpenak. Antipodes aldizkariaren lau zenbakiez gain, ITECOk urtero Outil pédagogique delakoa kaleratzen du, eskuhartze pedagogikoei eta prestakuntza saioei buruzkoa. |
| Harremanetarako helbidea | ITECO<br>2, rue Renkin • 1030 Bruxelles (Belgique)<br>✆ 32 2 243 70 30 ✆ 32 2 245 39 29 • iteco@iteco.be |
| Esteka interesgarria | www.iteco.be |

**Izenburua** Asia, kontinente anitza. Himalaiako herrialdeak. Nepal, Tibet, Butan
**Egilea** Llort i Juncadella, I.
**Edizioaren lekua** Bilbao
**Argitaletxea** Hegoa
**Urtea** 2005
**Iturria** www.hegoa.ehu.es
**Hizkuntza** Gaztelania, euskara
**Baliabide mota** Gida didaktikoa
**Hartzaileak** Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

**Laburpena**

Gida didaktiko honek oso-oso gutxi ezagutu edo behar den moduan ezagutzen ez dugun kontinenteko eta herrialdeetako errealitatera hurbiltzeko aukera eskaintzen digu. Zenbait gai jorratu arren, honako hauek dira nagusi: turismoaren ondorioak, umeen lana, iheslariak eta budismoa.

Hegoa-k gida didaktikoa itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Hasiera batean, Icaria-Concertació N/Sk 1999. urtean argitaratu zuen Bartzelonan, "L´Àsia. Un continent divers. Països de L´Himàlaia, El Tibet, El Bhutan" izenburupean.

**Harremanetarako helbidea**
Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

**Esteka interesgarria** www.casaasia.org

---

**Izenburua** Exploring our world. Investigating issues of interdependence and social justice in the 21st centrury
**Egilea** Cuthbert, C.
**Edizioaren lekua** Belfast
**Argitaletxea** One World Centre
**Urtea** 2001
**ISBN** 0-9525929-1-6
**Hizkuntza** Ingelesa
**Baliabide mota** Gida didaktikoa
**Hartzaileak** Irakasleak

**Laburpena**

*Exploring Our World* ikaskuntza aktiborako baliabidea da, Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleentzat. Gidako edukiak Geografia arloko curriculumekoak dira eta garapenarekin zerikusia duten gaiak ulertzen laguntzeko prestatuta daude. Proposatutako metodologiak ikasleak animatu egiten ditu mundu bidezkoagoa eta garapen iraunkorragoduna nola sustatu hausnartzera.

Irakaslearentzako liburuak, ikasleentzakoak eta koloretan prestatutako transparentzia sorta batek osatzen dute gida. Baliabide horiei esker ikasleek euren bizimodua egituratzen duten indar politiko, sozial eta ekonomikoen klabeak identifikatzeko aukera izango dute eta pobreziaren eta gaizki bideratutako garapenen zergatiak aztertu ahal izango dituzte. Hona hemen bereziki landutako zenbait gai:

- Desberdintasuna.
- Garapen iraunkorra.
- Baliabideak.

- Merkataritza.
- Haurrek egindako lana.
- Zorra.
- Laguntza.
- Emakumezkoek egindako lana.
- Babesa / asiloa.

Harremanetarako helbidea
One World Centre for N. Ireland
4 lower Crescent • Belfast, BT7 1NR (Ireland)
028 9024 1879 • ccuthbert@belfastdec.org

Esteka interesgarria
www.belfastdec.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Food & farming - local & global. Planting ideas, growing ideas |
| Egilea | Graham, B.; Ballin, B.; Emerson, C. |
| Edizioaren lekua | Birmingham |
| Argitaletxea | Teachers in Development Education / Farming and Countryside Education |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 0-948838-89-2 |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Lehen hezkuntza (6-12 urte) |

Laburpena



Janariak eta jaten dugunak gure geure herrialdeko eta munduko beste herrialde batzuetako bizimoduekin eta lekuekin nola lotzen gaituen erakusten duen gida hau West Midlands-eko irakasle-talde batek diseinatu du. Materialean eztabaida horri buruzko ideiak partekatzeaz gain gaia ikasgelan garatzeko zenbait adibide praktiko ere biltzen dira. 10-12 urteko ikasleentzat prestatua izan da eta honako gai hauetan zentratutako azterlanen kasuak ere eskaintzen ditu:

- Elikagaiak, landaketa eta elkarmenpekotasuna.
- Evesham bailaran hazten diren marrubiak.
- Eskola lorategia Ganbian.
- Platanoen ekoizpena Windward irletan.

Harremanetarako helbidea
Teachers in Development Education - Tide~ Centre
G04 Millenium Point
Curzon Street • Birmingham B4 7XG (United Kingdom)
0121 202 3290 • wmc@tidec.org

Esteka interesgarria
www.tidec.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Giza harremanak, botere harremanak? Material didaktikoa filosofia arlorako |
| Egilea | Urdanoz, J. eta ALBOAN |
| Argitaletxea | Bilbao |
| Argitaletxea | Mensajero / ALBOAN |
| Urtea | 2002 |
| ISBN | 84-271-2493-7 |
| Hizkuntza | Gaztelani, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |
| Laburpena | Unitate didaktikoaren asmoa da hausnarketa filosofikotik ondorioztatu behar den dimentsio gehienbat praktikoaz ikaslea jabetu dadin lortzea. Tresna kontzeptual ugari eskaintzen dira inguratzen gaituen mundua aztertu eta ulertzeko, eta hainbat jarduera egoki proposatzen dira ikasitakoa kontrastatzeko eta arrazonamendu filosofiko eta praktiko konplexuagoak bideratzeko. |
| Harremanetarako helbidea | ALBOAN<br>Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao<br>34 944 153 592 34 944 161 938 • info@alboan.org |
| Esteka interesgarria | www.alboan.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Maleta Pedagógica. Um mundo de crianças |
| Egilea | OIKOS, Projecto "Um Mundo de Crianças" |
| Edizioaren lekua | Lisboa |
| Argitaletxea | Espaço OIKOS |
| Urtea | 2004 |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Maleta pedagogiko honetan, zenbait material elkarreragile daude, eta Luisa Ducla Soares idazlearen "Meninos de Todas as Cores" ipuinean oinarrituta daude. Maletak zenbait lan-tresna eskaintzen ditu Lehen eta Bigarren Zikloko irakasleentzat eta animatzaile soziokulturalentzat, garapenerako hezkuntza eskoletara eramateko eta curriculum ofizialean zeharkakotasunez txertatzeko asmoz. |
| Harremanetarako helbidea | OIKOS - Cooperaçao e Desenvolvimento<br>Rua de Santiago, 9 • 1100-493 Lisboa (Portugal)<br>351 21 8 82 36 30 • oikos.sec@oikos.pt |
| Esteka interesgarria | www.oikos.pt |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Merkataritza eta globalizazioa |
| Egilea | Trôcaire |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.hegoa.ehu.es |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |

Laburpena

Gida hau material malgua da, eta erraz egokitzen da curriculumera. Edukia egituratzen duten saio batzuk edo guztiak landuz gero, ikasleek globalizazio ekonomikoaren zenbait ezaugarri bereizgarri ezagutuko dituzte, bai eta globalizazioak gure planetako hegoaldeko eta iparraldeko pertsona ugarien eguneroko bizimoduan eragindako zenbait ondorio ere. Horrela, bada, honako gai hauek jorratzen dira: globalizazioa, gizarte-protestak, Merkataritzaren Munduko Erakundearen zeregina edo nazioz haraindiko enpresen errealitatea.

Hala ere, hori bezain garrantzitsua iruditzen zaigu neska-mutilei aztarnak ematen dizkieten jarduerak iradokitzea, eurentzat oso lagungarriak direlako jarrera aktiboa eta konprometitua hartzeko eta eraldaketarako ekintza txikietan inplikatzeko orduan.

Hegoa-k gida didaktiko hau itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Jatorriz, Trôcaire-k 2003. urtean argitaratu zuen Dublinen, "Trade and Globalisation. A resource for Geography" izenburupean.

Harremanetarako helbidea

Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
✆ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

Esteka interesgarria

www.trocaire.org/

| | |
|---|---|
| Izenburua | "El prisma del sur" bideoteka |
| Egilea | Sodepaz |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Jendea oro har |

Laburpena

"El prisma del sur" bideoteka Sodepaz GGKEren proiektua da, eta hegoaldeko herrialdeetako ekoizpen bideografikoak (Amerika Latinokoak, batez ere) eta, iparraldean eginda egon arren, hegoaldeko errealitateak diren moduan erakusten duten ekoizpen biodegrafikoak biltzea du helburu. Hain zuzen ere, errealizazioen aukeraketa eskaintzen du, eta, bertan, hegoaldeko herrien aldarrikapenak, salaketak, adierazpen kulturalak eta irudiak daude ikusgai.

Bideotekak hegoaldeko ikus-entzunezkoen zentroa sortu nahi du, Hispanoamerikako zenbait talderen eta herriren errealitatea inolako bitartekaririk gabe edonorengana eta, batez ere, gazteengana iritsi dadin. Horrela, bada, honako gai hauen inguruko interesa sortuko da: lankidetza, elkartasunaren sustapena eta errealitate horrenganako sentsibilitate eta ulermen kritiko handiagoa.

Horretarako, sentsibilizazio-programa diseinatu da. Horiek horrela, hegoaldeko material bideografikoak ezagututa eta hedatuta, prestakuntza eta informazioa eskainiko zaio hartza-

ile-unibertso zabalari. Horrez gain, garapenerako hezkuntzako eskola-programa ere diseinatu da, ikus-entzunezkoen erabilera bultzatzeko.

Hona hemen programa horietako materialak: unitate didaktikoa, irakasleak bideoa lan-tresna moduan erabiltzeko ohiturara hurbiltzeko baliabidea izan nahi du, eta ikasgelan bertan eta/edo ikasgelatik kanpo ikasleekin hausnartzeko eta lan egiteko gida izan nahi du; katalogoa, hedapenerako materiala izan nahi du, baina lanerako tresna ere bai; triptikoa, "El Prisma del sur" bideoteka zuzenean zabaldu nahi du; web gunea, proiektua Interneten bidez hedatu nahi du. “El prisma del sur” Sodepaz GGKEren web guneko orri nagusiaren bitartez dago eskuragarri: www.sodepaz.org

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | Sodepaz<br>Pez 27, 311. bulegoa • 28004 Madrid<br>videoteca@sodepaz.org |
| Esteka interesgarria | www.sodepaz.org/prismadelsur |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Zientzia eta (Erre)eboluzioa |
| Egilea | ALBOAN; Fernández de Manzanos, Mª T. |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Mensajero / ALBOAN |
| Urtea | 2002 |
| ISBN | 84-271-2478-3 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |
| Laburpena | Ikasgai-zerrenda ofizialeko edukietan oinarrituta (zientzia eta metodo zientifikoa, biziaren jatorria, teoria ebolutiboak eta “arrazakeria zientifikoa” deitu izan dena), zientziaren neutraltasunaren arazoa aurkezten zaio ikasleari: zientzia, absolutua da?, aldagaitz mantentzen da faktore ekonomiko, sozial edo kulturalen aurrean?, zertarako balio du zientziak? Dinamika ugari erabili dira: laborategiko esperimentuak, bakterien jatorria eta maitasunaren jatorria ikertzeko (ala maitasuna ez da haiek bezain erreala? Errealagoa al da zientziaren laguntzaz egiazta daitekeena?); ikerlan konparatiboak: Manuel Patarroyoren kasua, malariaren kontrako txertoaren aurkitzailearena, pertsonen kontrako minen ikerlan eta ekoizpenaren ikerlanarekin konparatuta, edo zientzia ulertzeko bi modu desberdinen adibidea; edo zenbait teoria zientifikoren erabilera historikoa hainbat giza talderen jokaerak baztertzeko xedez (beste kultura batzuetako gizakiak, homosexualak, emakumezkoak, ijitoak...). |
| Harremanetarako helbidea | ALBOAN<br>Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao<br>34 944 153 592 34 944 161 938 • info@alboan.org |
| Esteka interesgarria | www.alboan.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | De exóticos paraísos y miserias diversas. Publicidad y (re)construcción del imaginario colectivo sobre el Sur |
| Egilea | Fueyo, A. |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Icaria / ACSUR Las Segovias |
| Urtea | 2002 |
| ISBN | 84-7426-615-7 |
| Iturria | "Hacia el Sur" bilduma |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Garai hau ez da batere ona hegoaldearekiko lankidetzari zein elkartasunari begira. "Globalizazioaren" ondorioz, elkartasuna eta lankidetza beste merkantzia batzuk dira, eta kontsumorako "balio erantsia" dute. Testuinguru horretan, solidarioa izatea garagardo solidarioa edatea eta tabako solidarioa erretzea baino ez da. Bien bitartean, telemaratoi solidarioa ikusten dugu, eta, dei solidarioaren bidez, hirugarren munduko ume bat babesten dugu.<br>Liburu honek zorroztasunez eta ausardiaz aztertzen ditu gizarte-ordezkaritzarako mekanismo erraldoi bezain ahaltsuaren (ber) eraketa, eta, horrez gain, ondorio bat edo beste kalkulatuta, "hezkuntza-erresistentziarako" zenbait lerro zehazten ditu. |
| Harremanetarako helbidea | Icaria editorial, S.A.<br>Ausiàs Marc, 16 - 3º 2ª • 08010 Barcelona<br>✆ 34 933 011 723 ℻ 34 933 178 242 • icaria@icariaeditorial.com |
| Esteka interesgarria | www.acsur.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Developing the global dimension in the school curriculum |
| Argitaletxea | DfES, DFID, DEA, QCA eta British Council |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.oxfam.org.uk |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Material honek honako hauek ditu helburu: zuzendaritza-taldeak, irakasleak, tokian tokiko hezkuntza-agintariak eta eskolako curriculumak antolatu eta abian jartzen dituzten langileak. Adibide zehatzen bitartez, erakutsi egiten da dimentsio globala eskolako curriculumean hartu behar dela kontuan, eskolako jarduera aberastu dezakeela eta hezitzaileen zein ikasleen motibazioa areagotu dezakeela. |
| Harremanetarako helbidea | Development Education Association (DEA)<br>1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)<br>✆ 44 (0)20 7812 1282 ℻ 44 (0)20 7812 1272 • dea@dea.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.dea.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible |
| Egilea | CONGDEko garapenerako hezkuntza taldea |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | CONGDE |
| Urtea | 2005 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Argitalpenean CONGDEko GHrako taldeak eta CONCORD Europako plataformako GH taldeak egin eta kontsentsu zabalez izenpetutako zenbait hitzarmen biltzen dira. Espainiako GHaren gaur egungo egoera ulertzeko beharrezko aktoreei eta jarduera-eremuei buruzko diagnosia jartzen da irakurleen eskura. Eta proposamen zehatzak egiten dira GHari dagokionez SECIk eta Hezkuntza Ministerioak garatzen dituzten laguntza-politikak hobetzeko.<br>Dokumentua sei ataletan egituratuta dago: GHaren ibilbidearen azterketa, GHaren definiziorako proposamena, inplikatutako aktoreak, GHaren ezarpen-eremuak eta, amaitzeko, gomendio orokorren atala eta azken ondorioena.<br>Dokumentuaren osagarri bi suposamendu praktiko bildu dituzte, eta Europan eta Estatuan GHaren arloan egiten den lana erakusten dira. Bi eranskinetan testu nagusian bildutako zenbait arlo zabalago jorratzen dira.<br>Argitalpena honako esteka honetan ikus daiteke:<br>http://autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf |
| Harremanetarako helbidea | Coordinadora de ONG de Desarrollo<br>Calle de la Reina 17, 3º • 28004 Madrid<br>☎ 34 902 454 600 ℻ 34 915 213 843 • coordinadora@congde.org |
| Esteka interesgarria | www.congde.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Educación y desarrollo. Problemas del tercer mundo |
| Egilea | Velloso, A. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | UHUNeko Liburu-denda |
| Urtea | 2004 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Lan honek hezkuntzaren eta garapenaren arteko lotura du aztergai nagusi. Lehenengo eta behin, hirugarren munduko garapenaren historia aurkezten da bere fase nagusietan: Europako hedapena, inperialismoa, kolonialismoa eta globalizazioa, gaur egungo etapa. Ondoren, garapenari ekiten zaio, eta, bertan, lankidetza nahiz hezkuntzarekin dituen loturak aztertzen dira. Garapenaren edo garapenik ezaren inguruko adibideak eskaintzen dira: Palestina, bertako historia eta gaur egungo hezkuntza-sistema aztertzen dira; Irak, zigorrek eta gerrak hezkuntza-sisteman duten eraginak aztertzen dira; Sahara, erbesteratutako herria; eta iheslariak, giza eskubideen urraketaren biktimak. Era berean, honako hauek ere eskaintzen dira: arlo horretako ikerketa-proposamena, garapen-bideko herrialdeetan ikertzeko orientazioak eta bibliografia. |

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | Librería UNED<br>Bravo Murillo, 38 • 28015 Madrid<br>☎ 34 913 987 560 |
| Esteka interesgarria | www.uned.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Fame e squilibri internazionali. Introduzione alle problematiche dei rapporti Nord-Sud |
| Egilea | Beretta, W. |
| Edizioaren lekua | Firenze |
| Argitaletxea | Editore Bulgarini Firenze / Manitese |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 88-234-1598-5 |
| Hizkuntza | Italiera |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
|  Laburpena | Liburua, eskolan erabiltzeko egina, bereziki bigarren hezkuntzan eta goragoko mailetan, planetako hainbat guneren ezaugarri diren arazo nagusiei buruz eta munduko iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko desorekari buruz hausnarketa egin nahi duen herritarrak orokorrean da erabilgarria. Hezkuntza arloan, gidaliburu hau hainbat gaitarako erabil daiteke, esate baterako, testu-liburuek gosearen gaia lantzeko aurkezten duten informazioa integratzeko, edo herrialde aberastu eta herrialde pobretuen arteko erlazioen berezko zenbait mekanismo politiko, ekonomiko eta soziokultural aurkezteko. Gai horiei ez zaie ia inolako aipamenik egiten eskoletako testu-liburuetan, ez da batzuen eta besteen arteko kausa-efektu erlaziorik ezartzen, eta horrek ez digu uzten arazoaren elkarmenpekotasuna ikusten, gugan nola eragiten duen konturatzen edo erantzunaren zailtasunaz ohartzen.<br><br>Testua garapenerako hezkuntzarako eskuliburu txiki gisa proposatzen da, gosearen arazoaren inguruan –ikuspuntu logiko eta historikotik modu egokian landutako sarearen bidez– hainbat kontzeptu aurkeztu eta erlazionatzen baititu, hala nola kolonialismoa eta neokolonialismoa, baliabideen xahuketa eta garapenaren mugak, kanpo-zorra, haurrek egindako lana, nazioarteko migrazioak, guda eta armamentuen ibilbidea, multinazionalak, nekazaritza, deslokalizazio industriala, hirigintza, emakumezkoen bazterkeria eta nazioarteko lankidetza.<br><br>Gidaliburuaz gain, irakasleentzako gida ere prestatu da hura aurkezteko, garapenaren hezkuntza curriculumean sartzeko ikuspegi bat erakusteko eta ikasgelan lan egiteko orduan kontuan hartzeko zenbait iradokizun egiteko. |
| Harremanetarako helbidea | Manitese<br>Piazza Gambara 7/9 • 20146 Milano (Italia)<br>☎ 39 024 075 165 📠 39 024 046 890 • manitese@manitese.it |
| Esteka interesgarria | www.manitese.it |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Garapenerako Hezkuntzaren Lan Koadernoa |
| Egilea | Caballero, I. (koord.) |
| Argitaletxea | Bilbao |
| Argitaletxea | UNESCO Etxea |
| Urtea | 2004 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Garapenerako hezkuntza, azken urteotako bultzada handia izan arren, bigarren mailan geratzen da ikastetxeetako plangintzan. Askotan, une puntualetan baino ez da lantzen edo hezkuntza horretako jardunbide ugariak inolako lotura gabe eta isolatuta aurkezten dira. Halere, hezkuntza modu berezia da, etengabe eta modu iraunkorrean ekin behar zaiona, eta curriculumeko zeharkako dimentsio den aldetik, hezkuntza arlo eta etapa guztietan eragiten duena.<br>Hemen aurkeztutako ikerlanean urte eta erdi luzean UNESCO Etxeak eta EAEko GGKEen Koordinakundeko Bizkaiko Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntza taldeak egindako lanaren emaitza da ikastetxe, GGKE eta Berritzeguneekin lankidetzan. Ekintzapide horrek EAEko Garapenerako Hezkuntzan inbolukratutako agente ugarik esperimentutako premian izan zuen abiapuntua, diagnosi parte-hartzailea egitearen premian hain zuen, arlo honetan jorratzen diren jardueren gaur egungo egoera baloratzeko lagungarri izango litzatekeen diagnosiaren premian. Gero, ikerlan hau guztien artean egoera hobetzeko lagungarri izan litezkeen estrategiak diseinatu ahal izateko oinarri gisa erabiltzea zen asmoa. |
| Harremanetarako helbidea | UNESCO ETXEA<br>Urkixo zumardia 60, esk. nag. • 48011 Bilbao<br>☎ 34 944 276 432 ℻ 34 944 272 548 • info@unescoeh.org |
| Esteka interesgarria | www.unescoeh.org/dokumentuak/EducacionDesarrollo.PDF |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Global citizenship. The handbook for primary teaching |
| Egilea | Oxfam |
| Edizioaren lekua | Londres |
| Argitaletxea | Oxfam/Chris Kington |
| Urtea | 2001 |
| ISBN | 189-98-5747-8 |
| Iturria | www.publications.oxfam.org.uk |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Liburu honek “hiritartasun globala” zer den azaltzen du, eta bai eskolan bai hezkuntza ez formalean erabiltzeko moduko jarraibide argiak eskaintzen ditu. Liburuak proposatutako ideien eta eztabaidagaien bitartez, irakurleek hiritartasun globalaren berezko kontzeptua garatu eta hezkuntza-jardunera eraman ahal izango dute erraztasunez . |
| Harremanetarako helbidea | publish@oxfam.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.oxfam.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Global Perspectives in Education: the contribution of development education |
| Egilea | DEA |
| Edizioaren lekua | Londres |
| Argitaletxea | DEA, Cyfanfyd, IDEAS |
| Urtea | 2000 |
| ISBN | 190-01-0912-3 |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Liburuak hiritarrok hiritartasun globalean dugun zeregina onesten, gaur egungo gizartea ulertzen eta era globalean jarduten lagundu nahi digu. Liburuan bertan, nabarmendu egiten da ikuspegi globalaren kontzeptua eta garapen iraunkorra hezkuntza-jardueraren bihotzean egon behar direla. |
| Harremanetarako helbidea | Development Education Association (DEA)<br>1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)<br>☎ 44 (0)20 7812 1282 ☎ 44 (0)20 7812 1272 • dea@dea.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.dea.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Globalización, sociedad y escuela. Cómo hacer frente a los principales problemas actuales desde la psicología social crítica |
| Egilea | Ovejero, A. |
| Edizioaren lekua | Valladolid |
| Argitaletxea | Valladolideko Unibertsitatea; Argitalpenen eta Argitalpen Trukeen Idazkaritza |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-8448-315-0 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Gizarte-psikologiak zentzua dauka, gizartearen eta bertako arazoen ulermena hobetzen duen neurrian. Horretarako, Ovejerok globalizazioa ezaugarri duen gaur egungo testuingurua berrikusten du arlo ekonomikoan; neoliberalismoa, arlo ideologikoan; eta postmodernitatea, gizartearen eta kulturaren arloan.<br>Jakin badaki beste mundu bat sortu daitekeela eta, horretarako, behar den moduko estrategia politikoak zein gizarte-jarduerak garatzeko gai izan behar garela. Egileak eskolan bertan amaitzen du azterketa, eta ikaskuntza kooperatiboa gizarte hobea lortzeko tresna eraginkorra izan daitekeela proposatzen du. |
| Harremanetarako helbidea | tasiob@psi.uva.es |
| Esteka interesgarria | www.uva.es/psicologia |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Guidelines on producing resources for global youth work |
| Egilea | Adams, Paul |
| Edizioaren lekua | Londres |
| Argitaletxea | DEA |
| Urtea | 2000 |
| ISBN | 190-01-090-8-5 |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
|  Laburpena | Gida gazteekin lan egiten dutenentzat da, beti ere talde horrentzako hezkuntza-baliabideak antolatu, egin eta argitaratu nahi badituzte. Eztabaida eta era guztietako euskarrietan sortutako material eraginkorren ekoizpena suspertzea du helburu. Horra hor mahai-jokoak, bideoak, musika, informazio-liburuxkak, web orrialdeak... |
| Harremanetarako helbidea | Development Education Association (DEA)<br>1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)<br>✆ 44 (0)20 7812 1282 ✆ 44 (0)20 7812 1272 • devedassoc@gn.apc.org |
| Esteka interesgarria | www.dea.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Hacia un curriculum para una ciudadanía global |
| Egilea | Polo, F. |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Intermón Oxfam |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-8452-330-6 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
|  Laburpena | Liburua Intermon Oxfamek balioen hezkuntzaren arloan egindako ekarpen interesgarria da. Gaur egungo munduaren azterketatik abiatuz, globalizazioak erabat menperatuta daukan munduaren azterketatik hain zuzen, eta helburu nagusia haren ezaugarri negatiboenak eraldatzea izanik, bosgarren belaunaldiko garapenerako hezkuntza bultzatzearen beharrizana funtsezko bihurtu da. Horretarako, hiritartasun globalaren kontzeptua, hezkuntza kritikoa eta demokratikoa lekutuko den marko gisa, definitu eta justifikatzen da. Hezkuntzaren erreforma posiblea eztabaidagai dugun garai honetan Ferrán Poloren txostena hausnarketarako dokumentu interesgarria izan liteke. |
| Harremanetarako helbidea | info@intermonOxfam.org |
| Esteka interesgarria | www.intermonoxfam.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | La educación para el desarrollo en el ámbito formal, espacio común de la cooperación y la educación. Propuestas para una estrategia de acción integrada |
| Egilea | Baselga, P.; Ferrero, G.; Boni, A. (koord.) |
| Edizioaren lekua | Valentzia |
| Argitaletxea | Editorial Universidad Politécnica de Valencia |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-9705-664-7 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Sektore formalean bideratutako garapenerako hezkuntzari (GH) buruzko txostena, zeinaren bidez, batetik, hezkuntza-eredu horren garrantzia justifikatu nahi den eta, bestetik, Espainiako estatuko hezkuntza-sisteman garapenerako hezkuntza epe luzean modu bateratu eta integratuan ezartzeko erabiliko den estrategiarako oinarriak zehazteko proposamenak planteatu nahi diren.<br><br>Lehenengo atalean Espainiako estatuan GHaren jatorria eta ibilbidea aztertzen dira. Bigarrenean, kontzeptua zehaztu ezezik definizio horretan bil daitezkeen jardueren ezaugarriak jasotzen ditu. Hirugarren atalean gaur egungo hezkuntza-maparen egituraketa aztertzen da. Laugarren atalean GHrako prozesuetan inbolukratutako aktoreak deskribatu eta hezkuntza-sisteman GH horren ezarpenerako estrategia diseinatzeko zenbait proposamen biltzen dira. Amaitzeko, bosgarren atalean, erreferentzia bibliografikoak eskaintzeaz gain arlo formaleko garapenerako hezkuntzari buruzko zenbait argitalpen nabarmentzen dira. |
| Harremanetarako helbidea | Centro de Cooperación al Desarrollo<br>Universidad Politécnica de Valencia<br>Camino de Vera, s/n • 46022 Valencia<br>☎ 34 963 877 898 ☏ 34 963 877 899 • ccd@upvnet.upv.es |
| Esteka interesgarria | www.upv.es/ccd/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | La Educación para el Desarrollo en un mundo globalizado |
| Egilea | Naya, L. M. (koord.) |
| Edizioaren lekua | Donostia |
| Argitaletxea | Erein |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-9746-138-X |
| Iturria | Espacio Universitario, 13 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Azken hamarkadan, “globalizazioa” terminoa hizkuntza arruntean zein jarduera politiko eta ekonomiko guztietan ezarri da, herrialdeen arteko ageriko harremanen adierazgarri. Testuinguru horretan, garapenerako hezkuntzak mundu berdintasunezkoagoa eta bidezkoagoa lortu nahi du, eta, horretarako, herrialde aberatsetako zein herrialde txiroetako gizarte-mugimenduak, erakundeak eta eragile politikoak inplikatu nahi ditu.<br><br>Hona hemen zenbait helburu: kalitateko hezkuntza-politikak bultzatzea eta pertsonak zein taldeak inplikatzea giza garapen bidezko eta solidarioaren aldeko gizarte-eraldaketarako |

| | |
|---|---|
| | ekintzetan. Liburu hau 2002ko abenduan Euskal Herriko Unibertsitatean egindako “Elkarrizketa pedagogikoen” emaitza da. |
| Harremanetarako helbidea | Erein Argitaletxea<br>Tolosa Etorbidea, 107 • 20018 Donostia-(Espainia)<br>( 34 943 218 300 |
| Esteka interesgarria | www.erein.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Lecciones de Paulo Freire. Cruzando fronteras, experiencias que se completan |
| Egilea | Gadotti, M.; Gómez, M.; Frerie, L. |
| Edizioaren lekua | Buenos Aires |
| Argitaletxea | CLACSO |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 950-9231-83-5 |
| Iturria | Campus Virtual bilduma |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Liburu hau hezkuntzako eta gizarte-ikerketako profesionalek eta intelektualek batera egindako lanaren emaitza da. Testu bitxia da benetan, Internet bidez egindako topaketak eta eztabaidak jasotzen dituelako. Zenbait herrialdetako pertsonek sare hori ehundu zuten, esperientziak sortu zituzten eta bizipenez zein loturez betetako alderdi anitzeko bilbea sistematizatu zuten. Paulo Freirek zioenez, inork ez dio inori irakasten: ikastaroko parte-hartzaileek batera ikasi zuten, euren jardueretako mundu digital eta “birtualaren” eraginpean. (On line dago eskuragarri). |
| Harremanetarako helbidea | Amerika Latinoko Gizarte Zientzien Kontseilua<br>erol@clacso.edu.ar |
| Esteka interesgarria | www.clacso.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Measuring our effectiveness, the improving practice series |
| Egilea | DEA; Alexander, T.; Kirby, B.; McCollum, A.; McKenzie, A. |
| Edizioaren lekua | Londres |
| Argitaletxea | DEA |
| Urtea | 2000 |
| ISBN | 190-01-090-7 |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Liburu honek garapenerako hezkuntza ebaluatzeko gaur egungo jardueraren ikuspegia eskaintzen digu. 8 kasuren azterketaren bidez, garapenerako hezkuntzako argitalpenen, baliabideen, proiektuen zein erakundeen eta erabilitako metodoen eraginkortasuna neurtzen da. Kasuen azterketan oinarrituta, kontuan hartu beharreko giltzarriak ateratzen dira; zer, zergatik eta nola ebaluatzen dugun jartzen da auzitan; eta zailtasunak, ikasitako ikasgaiak eta eman beharreko hurrengo urratsak azaltzen dira. |

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | Development Education Association (DEA)<br>1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)<br>44 (0)20 7812 1282 44 (0)20 7812 1272 • dea@dea.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.dea.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Sistematizazioa, gure jardueretarako begirada berria.<br>Gizartearen eraldaketarako esperientziak sistematizatzeko gida |
| Egilea | ALBOAN; Hegoa; Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | ALBOAN / Hegoa / Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua |
| Urtea | 2003 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
|  Laburpena | Argitalpen hau "Giza garapena / Esperientziak partekatzen" proiektuaren barruan sortu da, eta honako hauen baterako ekimena izan da: ALBOAN, Hegoa eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea). "Erakundeontzat interesgarria izan da hegoaldean zein iparraldean giza garapenaren alde lan egiten duten eragileen jarduerak batera aztertzeko aukera edukitzea. Jarduera horien azterketan, zenbait giltzarri aurkitu ditzakegu, jarduerok hobetzeko eta garapenerako lankidetzan zein gure inguruneko nahiz beste herri batzuetako gizartearen eraldaketarako edozein lanetan bide berriak proposatzeko. Ikuspegi horretatik, esperientzien sistematizazioa eta ekarpen teorikoak nahiz metodologikoak oso erabilgarriak izan daitezke, gizartearen eraldaketarako jardueretara hurbiltzeko, ondorioak ateratzeko eta etorkizuneko lana behar den moduan bideratzeko. Labur-labur esanda, sistematizazioak gure laneko oinarrizko premiari erantzun nahi dio: jardunetik ikasi, hobetu ahal izateko". |
| Harremanetarako helbidea | ALBOAN<br>Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao<br>34 944 153 592 34 944 161 938 • info@alboan.org |
| Esteka interesgarria | www.alboan.org/sistematizacion |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Annoncer la couleur |
| Hizkuntza | Frantsesa, nederlandera |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
|  Laburpena | 1997. urtetik, Annoncer la Couleur erakundeak 12 urtetik gorako gaztetxoak sentsibilizatu nahi ditu iparraldea-hegoaldea harremanei buruzko gaien inguruan, irakasleekin, hezitzaileekin egindako lanaren bidez. Web orrialdearen bitartez, erakundeak egindako material pedagogikoak eskuratu daitezke, bai eta beste erakunde batzuek eragileen zein prestakuntza-zentroen esku jartzen dituzten baliabideak ere. |
| Harremanetarako helbidea | annoncerlacouleur@btcctb.org |
| Esteka interesgarria | www.annoncerlacouleur.be/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Bantaba<br>Giza garapenerako, hezkuntza globalerako eta herritarren partaidetzarako baliabideak |
| Egilea | Hegoa |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Bantabak hainbat baliabide eskaintzen dizkie giza garapena, hezkuntza globala eta herritarren partaidetzaren arloan dihardutenei edo gai horietan interesa dutenei. Bere web orrialdea bost ataletan dago banaturik, eta dokumentazioa, estekak, proposamen didaktikoak, erreferentzia bibliografikoak eta tresnak eskaintzen ditu. Guztiak oso erabilgarriak dira giza garapena, elkartasuna eta berdintasunaren ikuspuntutik gizarte eraldaketaren alde lan egiten duten pertsona, gizarte mugimendu, GGKE, ikerketa zentro eta abarrentzat.<br>• Gaikako behatokia<br>Partaidetza eta Demokrazia, Berdintasuna, Tokiko Garapena, Generoa eta Garapena, Kultura Artekotasuna, Gatazkak...<br>• Erraz hezten<br>Proposamen didaktikoak, argibide metodologikoak eta beharrezko baliabide guztiak barne: eskemak, aurkezpenak, testuak, dinamikak, bibliografiak...<br>• Hezkuntza laborategia<br>Baliabide didaktikoen erreferentziak; beste web orrialde batzuetarako estekak; Hegoak Gasteizen duen Hezkuntza Baliabideen Zentroko (CEREC) Katalogorako on line sarbidea; ikastetxeek beren esperientziak trukatzeko gune bat.<br>• Gizarte mugimendua(k)<br>GGKE eta lankidetza solidarioa, gizarte mugimenduak eta ekintza globala; gizarte komunikazioa; teknologia berrien erabilera alternatiboak eta jardueren agenda.<br>• Tokiko lankidetza<br>Dokumentazioa, estekak eta zenbait baliabide. |
| Harremanetarako helbidea | Hegoa<br>Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao<br>☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es |
| Esteka interesgarria | www.bantaba.ehu.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | CME - Campaña Mundial por la Educación |
| Egilea | ALBOAN, Ayuda en Acción, Entreculturas, Intermón Oxfam |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Kanpaina hau munduko biztanle guztiek kalitatezko hezkuntza bat izan dezaketelako uste osoak bultzatzen du, eta hezkuntzarik ez jasotzeak pertsonengan nahiz herrialdeengan duen eraginarekiko kezkak.<br>CMEren ustez, egungo ekonomia gero eta gehiago ezagutzan oinarritzen da, eta beraz, hezkuntzarako eskubiderik ez izateak pobrezia, desberdintasuna eta gabezia sorrarazten du. |

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpainak bere helburua objektibotasunez, gardentasunez eta era arduratsuan lortuko duela hitzeman du, eta bere plan zein ekintza guztietan arau eta prozesu demokratikoak jarraituko dituela.

Kanpainaren iritziz, hezkuntza da:

- Giza eskubide unibertsala.
- Pobrezia gutxitzeko eta giza garapen iraunkorra lortzeko gakoa.
- Estatuen erantzukizun nagusietako bat.
- Lor daitekeen helburu bat, gobernuek borondate politikoa erakusten badute eta baliabideak jartzen badituzte.

Web orrialdeak kanpainako dokumentuei eta munduko hainbat tokitan egindako ekintzei buruzko informazioa eskaintzen du, baliabideez eta ekintza horiekin loturiko albisteez gain.

Harremanetarako helbidea: info@cme-espana.org

Esteka interesgarria: www.cme-espana.org/

Izenburua: CJE – Consejo de la Juventud España
Hizkuntza: Gaztelania
Baliabide mota: Web orrialdea
Hartzaileak: Gazteak

Laburpena: Espainiako Gazteria Kontseilua (CJE) 1983an sortu zen legez, eta Autonomia Erkidegoetako Gazteriaren Kontseiluek eta Estatuko gazteen erakundeek osatzen dute. Bere helburua da Espainiako garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean gazteek duten partaidetza indartzea, ingurune global baten barruan. Bere web orrialdeak Espainiako Gazteria Kontseiluaren jarduera eta argitalpenei buruzko informazio eguneratua eskaintzen du, eta baita beste zerbitzu batzuk ere, esaterako eztabaida foroak, informazio interesgarria, prentsako laburpenak etab.

Harremanetarako helbidea: info@cje.org

Esteka interesgarria: www.cje.org

Izenburua: Control Ciudadano
Hizkuntza: Gaztelania, ingelesa
Baliabide mota: Web orrialdea
Hartzaileak: GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena: Control Ciudadano herritarren erakundeez osaturiko nazioarteko sarea da. Pobrezia eta bere zergatiak errotik kentzea du helburu, aberastasunaren bidezko banaketa eta giza eskubideak bermatzeko. Justizia sozial eta ekonomikoarekin konprometituta dago, eta baita genero justiziarekin ere. Control Ciudadanok kontuak eskatzen dizkie gobernuei, NBEaren sistemari eta nazioarteko erakundeei, pobrezia errotik kentzeko egitasmo nazional, erregional eta internazionalen betetze mailari buruz.

Bere web orrialdeak informazio eguneratua eskaintzen du gai hauen inguruan: garapen adierazleak, nazioarteko gailurretan hartutako konpromisoak eta dokumentuak, urteko txostenak,

| | |
|---|---|
| | gizarte garapenaren arloan egondako aurrerapausoak eta atzerakadak, herrialdekako txostenak, albisteak eta estekak. |
| Harremanetarako helbidea | Control Ciudadano<br>Jackson, 1136 • 11200 Montevideo (Uruguai)<br>☎ 598 2 419 61 92 ℻ 598 2 411 92 22 • socwatch@socialwatch.org |
| Esteka interesgarria | www.socwatch.org/es/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | DEEEP - Development Education Exchange in Europe Project |
| Hizkuntza | Ingelesa, frantsesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | DEEEP 3 urteko proiektua da, eta GGKEek oinarrizko garapenerako hezkuntza hedatzeko duten gaitasuna areagotzea du helburu, honako hauen bidez: truke metodologikoa, prestakuntza, sareen finkapena eta politiken zein proiektu erkideen garapena.<br>Web orrian bertan daude ikusgai bileretako, udako eskoletako, forumeko... txostenak; Europar Batasuneko Kontseiluak garapenerako hezkuntzari buruz emandako ebazpenak; aldizkariak, lan-gomendioak eta garapenerako hezkuntzari buruzko beste eztabaida-agiri batzuk.<br>DEEEP lau GGKEk osatutako partzuergoa da: ITECO (Belgika), UCODEP (Italia), TAKSVÄRKKI (Finlandia), DEA (Britainia Handia), eta CONCORDeko Garapenerako Hezkuntzaren Forumaren babespean eta koordinaziopean dago. |
| Harremanetarako helbidea | deeep@deeep.org |
| Esteka interesgarria | www.deeep.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Éducation et Développement |
| Hizkuntza | Frantsesa, alemana, italiera, ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Hezkuntza eta Garapena Fundazioa (Foundation Éducation et Desenvoluppement FED) baliabide pedagogiko ugari ekoizten eta zabaltzen dituen elkarte suitzarra da. Gai hauek jorratzen ditu: giza eskubideak eta haurren eskubideak, kultura arteko pedagogia, bake hezkuntza, Iparraldea eta Hegoaldearen arteko interdependentziak, garapen iraunkorra. FEDek laguntza pedagogikoa eta didaktikoa ematen du ikastaroak egiteko –adibidez, material pedagogikoa eta proiektuak eskainiz-; irakasleen prestakuntzari ikuspuntu global batetik heltzen dio, trebakuntza eta aholkularitzaren bidez; antzeko helburuak eta proiektuak dituzten erakundeei elkartruke eta koordinaziorako plataforma bat eskaintzen die. |
| Harremanetarako helbidea | Fondation Education et Développement Secrétariat central<br>Monbijoustrasse, 31 • CH-3011 Bern (Suiza)<br>☎ 41 (0)31 389 20 20 ℻ 41 (0)31 389 20 29 • info@globaleducation.ch |
| Esteka interesgarria | www.globaleducation.ch |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Global gateway |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Global Gateway proiektuak mundu zabaleko eskolak jartzen ditu harremanetan, hezkuntzari nazioarteko dimentsioa emateko asmoz. Web orrian bertan, hezkuntza-baliabideak eta orientazioa daude eskuragarri, irakasle, gazte, eskolako lider, guraso eta toki-agintarientzat. |
| Harremanetarako helbidea | info@globalgateway.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.globalgateway.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Gobal Dimension |
| Iturria | www.oxfam.org.uk |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Web orri hau irakasleentzakoa da, eta, bertan, liburuak, bideoak, posterrak eta era guztietako gaiei buruzko hezkuntza-materialak daude ikusgai: eguraldi-aldaketa, txirotasuna, bidezko merkataritza... Web orriko datu-basearen bidez, zenbait irizpideren arabera bilatu daitezke materialak: gaia, hartzaileen adina, proposamenen helburu diren curriculum-arloak... |
| Harremanetarako helbidea | gdeditor@dea.org.uk. |
| Esteka interesgarria | www.globaldimension.org.uk |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Guía de Recursos de Educación para el Desarrollo de la CONGDE |
| Egilea | GGKEen Estatuko Koordinakundea |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | GGKEen Estatuko Koordinakundeko web orrialdearen barruan, "Garapenerako hezkuntzako baliabideen gida" dago, eta tresna erabilgarria izan nahi du, CONGDEko GGKE kideek garapenerako hezkuntzaren arloan garatzen dituzten materialen eta esperientzien berri emateko. Gidari esker, erraz-erraz dakigu nolako metodologiak ezartzen diren gaur egun garapenerako hezkuntzaren arloan. Horrez gain, GGKEek euren kanpainetatik atera dituzten esperientziak, lorpenak eta ikaskuntzak trukatzen dira. Gidako materialak zenbait formatutan daude eskuragarri: jokoak, unitate didaktikoak, lan-koadernoak, tailerrak, CDak, bideoak... Gaiak eurak ere oso ugariak dira: globalizazioa, kultura artekotasuna, generoa, bakerako hezkuntza, bidezko merkataritza... |
| Harremanetarako helbidea | Coordinadora de ONG de Desarrollo<br>Calle de la Reina 17, 3º • 28004 Madrid<br>☎ 34 902 454 600 ℻ 34 915 213 843 • coordinadora@congde.org |
| Esteka interesgarria | www.congde.org/guia |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Guía del Mundo |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Munduko Gidak 247 herrialderi buruzko informazio eguneratua eskaintzen du: oinarrizko datuak; ingurumena, gizartea eta gobernuari buruzko laburpena; herrialdearen historia lehenengo biztanleetatik egunera arte; mapa nazionalak eta erregionalak; argazkiak eta estatistikak; giza eskubideen eta gizarte baldintzen egoera. Euskarri elektronikoan kontsulta daiteke, edo liburu edo cd-rom formatuan eskuratu IEPALA argitaletxearen bidez (gaztelaniazko bertsioa). |
| Harremanetarako helbidea | IEPALA<br>García Noblejas, 41 - 8º • 28037 Madrid<br>✆ 34 914 084 112 ✆ 34 914 087 047 • iepala@eurosur.org<br>www.iepala.es • www.gloobal.net |
| Esteka interesgarria | www.guiadelmundo.org.uy |

| | |
|---|---|
| Izenburua | id21- Communicating development research |
| Egilea | Institute of Development Studies |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | id21 Erresuma Batuko Sussex-eko Unibertsitateko Institute of Development Studies (www.ids.ac.uk/ids) delakoak kudeatzen du. Garapenari buruzko nazioarteko ikerketen berri ematen duen doako zerbitzua da. Id21ek ikerketen inguruko 2.500 laburpen baino gehiago dituen on line datu basea eskaintzen du, eta gaiarekin loturiko txostenak eta dokumentazioa eskuratzeko estekak ere bai. Hiru hilean behin azkeneko ikerketei buruzko laburpenak argitaratzen ditu, hainbat gai jorratuz: pobrezia, hezkuntza, gizarte zibila, garraioa, ura, hondamendi naturalak, elikagaien segurtasuna, genero indarkeria, nekazaritza, klima, merkataritza, demokrazia, giza eskubideak, GIB/HIESa, amen osasuna... |
| Harremanetarako helbidea | id21<br>The Institute of Development Studies University of Sussex Brighton<br>BN1 9RE (United Kingdom)<br>✆ 44 (0) 1273 678 787 ✆ 44 (0) 1273 877 335 • id21@ids.ac.uk |
| Esteka interesgarria | www.id21.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Intered |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Intered bi arlo lantzen dituen GGKE da: lankidetza eta garapenerako hezkuntza. Izan ere, bidegabekeriak sortzen dituen gaur egungo errealitatea eraldatzen laguntzea eta guztiontzako bidezko bizimodu duina eta gizalegezkoagoa lortzea du helburu nagusi. Hezkuntzarako eta giza |

eskubideen sustapenerako zein babeserako prozesuen bidez lan egiten dute. Garapenerako hezkuntzaren arloan, Intered-ek hezkuntza formalean eta ez-formalean lan egiten du, balio eta jarrera solidarioak sustatzeko materialak egiten ditu, kontzientzia kritikoa bultzatzeko agiriak zabaltzen ditu eta boluntarioen prestakuntza sustatzen du. Bere web orrialdean, ikastetxeentzako eta hezkuntza ez-formaleko taldeentzako materialak daude ikusgai.

**Harremanetarako helbidea**
Intered
Frantzia etorbidea, 8 • 20012 Donostia
34 943 279 044 • intered@euskalnet.net

**Esteka interesgarria**
www.intered.org

---

**Izenburua** ITDG Practical answers to poverty
**Hizkuntza** Ingelesa
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** Irakasleak

**Laburpena**
ITDGk (Intermediate Technology Development Group-ek) teknologia erabiltzen du, hegoaldeko herrialdeetako txirotasuna murrizteko. Hona hemen bere helburuak: talde txiroen zaurgarritasuna gutxitzea, bizi-baldintza hobeak lortzen laguntzea, oinarrizko zerbitzuak eskaintzea, teknologia berrien erronkei erantzutea eta talde horiei teknologia errazak bezain eraginkorrak eskuratzen laguntzea, euren bizimodua aldatzeko aukera izan dezaten. Hezkuntzaren arloan, ITDGk laguntza-zerbitzuak eskaintzen dizkie irakasleei eta gazteei, garapen iraunkorraren gaia lantzeko. Bere web orrialdean, teknologiako eta diseinuko hezitzaileentzako hezkuntza-baliabide bereziak daude eskuragarri. Hona hemen baliabideon helburuak: kultura desberdinetako teknologien berri ematea, teknologian hartutako erabakiek tokian-tokian eta oro har duten eragina aztertzea eta teknologien erabilerak garapen iraunkorrean duen zeregina onestea.

**Harremanetarako helbidea**
Intermediate Technology Development Group Practical Action
The Schumacher Centre for Technology & Development
RUGBY CV23 9QZ • Bourton-on-Dunsmore (United Kingdom)
education@itdg.org.uk

**Esteka interesgarria**
www.itdg.org

---

**Izenburua** Madrid. Redes solidarias
**Egilea** CIP - Bakerako Ikerketa Zentroa
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** Jendea oro har

**Laburpena**
CIPek Interneten sortutako “Madrid: redes solidari@s” eremua Madrileko Erkidegoan garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan abian jarritako ekimenei buruzko informazioa trukatzeko eta elkartzeko gunea da. Sentsibilizaziorako proiektua da, eta, Interneten bidez, garapenerako hezkuntzako, bakegintzako eta kultura artekotasuneko materialak eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Web orrialdea hiru atal nagusitan egituratuta dago:

- Direktorioa: garapenerako hezkuntzako baliabideen gida da, eta garapenerako hezkuntzarekin zerikusia duten erakundeen eta Internet guneen helbideak eskaintzen ditu.
- Sareko jarduerak: bakerako hezkuntzako, garapeneko eta kultura artekotasuneko proiektuei buruzko informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak daude ikusgai.
- Gai interesgarriak: artikuluen aukeraketa, proposamen didaktikoak eta honako arlo hauetarako estekak: bakerako hezkuntza, generoa eta garapena, migrazioak, kultura artekotasuna, komunikabideak eta gatazkak, besteak beste.

Harremanetarako helbidea: educa@fuhem.es

Esteka interesgarria: www.fuhem.es/portal/areas/paz/Educa/mrs

Izenburua: Mundializaciones

Egilea: GERM - Groupe d'Etudes et de Recherches sur les Mondialisations

Hizkuntza: Gaztelania, portugesa, frantsesa, alemana eta ingelesa

Baliabide mota: Web orrialdea

Hartzaileak: Hezitzaileak

Laburpena: "Mundializazioa" eta "globalizazioa" hitzek merkatu ekonomiaren printzipioak mundu osora zabaltzen dituen prozesua adierazten dute. Hitz horiek, ordea, mugimendu konplexuago baten alderdi ekonomikoa baino ez dute kontuan hartzen. "Mundializazioak" hitza (pluralean), berriz, ekintza esparru guztietan gertatzen diren mundializazio prozesuen aniztasuna eta berezitasuna adierazten saiatzen da.

2001ean, GERMek datu base bat sortu, garatu eta Interneten jarri zuen, bere web orrialdean sartzen denak eta bertako baliabideak erabiltzen dituenak berari dagozkion mundializazio erak hobeto uler ditzan.

Web orrialde honetan, mundializazioak funtsezko gaikako txostenen inguruan sortutako errubrika eta azpierrubriken ikuspuntutik jorratzen dira (kultura aniztasuna, garapen iraunkorra, Europar Batasuna, Hezkuntza etab.). Web orrialdeak GERM sareko kideek edo beste norbaitek egindako ikerketa artikuluak biltzen ditu, eta baita ere "mundializazioen gaurkotasuna" egunero eta sakonki jarraitzeko balio duten prentsako artikuluak, adierazpenak eta dokumentu ofizialak. Testuez gain multimedia dokumentuak daude (bideo soinudunak, argazkiak) eta azterketa tresnak ere bai, esaterako grafikoak, mapak eta estatistikak.

Harremanetarako helbidea: germ@mondialisations.org

Esteka interesgarria: www.mondialisations.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Oxfam's cool planet for teachers |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Web orri hau Oxfam-ena da, eta Ingalaterrako, Eskoziako eta Galesko irakasleak ditu helburu. Hiritartasun globalaren kontzeptuan oinarrituta, dimentsio globala eskolara eramatea du helburu. Web orrialdea Ingalaterrako, Eskoziako eta Galesko Oxfam-eko garapenerako hezkuntzako taldeak editatu du, eta irakasleek ere parte hartu dute bertan. Web orrialdean bertan, ikasgeletan lantzeko hezkuntza-baliabideak, Oxfam-eko materialen katalogoa eta umeentzako atal berezia daude eskuragarri. |
| Harremanetarako helbidea | education@oxfam.org.uk |
| Esteka interesgarria | www.oxfam.org.uk/coolplanet/index.htm |

| | |
|---|---|
| Izenburua | PED. Programa de Educación para el Desarrollo |
| Egilea | Munduko Bankua |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa, frantsesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Munduko Bankuko garapenerako hezkuntzako programaren web orrialdea da. Programak tresnak eta baliabideak diseinatzen ditu, Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei, batez ere, garapen iraunkorraren gizarte, ekonomia eta ingurumen alderdiak aztertzen laguntzeko, beti ere euren herrialdeetan, eskualdeetan eta munduan eraginik badute. Era berean, zentzu kritikoaz pentsatzen laguntzen die. Programak hezitzaileekin, gobernuekin eta hezkuntza-erakundeekin batera lan egiten du, eta, bere web orrialdean, irakasleentzako (ikaskuntza-moduluak, esaterako) zein gazteentzako (joko eta lehiaketa elkarreragileak, adibidez) baliabideak daude eskuragarri. |
| Harremanetarako helbidea | Danielle Carbonneau<br>Manager, Development Education Program • World Bank Institute<br>dep@worldbank.org |
| Esteka interesgarria | www.worldbank.org/challenge |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Polygone. Red Internacional de Educación para el Desarrollo y Educación Popular |
| Hizkuntza | Gaztelania, portugesa, frantsesa eta ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Polygone edo Herri Hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarearen helburua zera da: hezkuntzak, praktika eraldatzailea den aldetik, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetan izan behar duen eginkizuna eztabaidatzea. Polygone gizartea aldatzeko bidea hezkuntza dela uste duten Afrika, Amerika, Asia eta Europako 39 erakundek osatzen dute. Beren xedea iritzi berbera duten mundu osoko erakundeei irekitako Hezkuntza Foro bat sortzea da. |

Zenbait urte ikerketak egiten eta hezitzaileak prestatzeko ikastaroak antolatzen eman ondoren, ITECO (Belgika), CIDAC (Portugal), CIP (Espainia) eta HEGOA (Euskal Herria) erakundeek osaturiko partzuergoak 1999. urtean erabaki zuen "Herri Hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarea" sortzea, beren kezkak eta lorpenak Hegoaldeko herrialdeekin partekatzeko asmoz. Sareak lankidetzaren munduan nagusi den emaile aktibo eta hartzaile pasiboen logika hautsi nahi zuen, berdinen arteko harreman bat sortzeko. Hau da: Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen arteko harremanak, eztabaidak eta trukeak berdintasun baldintzetan gertatzeko, batzuk besteei gailendu beharrean.

Web orrialdean dokumentuak, ekarpen teorikoak, sareko kide diren erakundeen fitxak eta esperientziak aurkituko ditugu. 2002ko nazioarteko topaketaren edukiak eta eztabaidak ere bertan daude, eta baita topaketako ondorioak jasotzen dituen argitalpena ere.

**Harremanetarako helbidea** ed@cidac.pt

**Esteka interesgarria** www.webpolygone.net

**Izenburua** Fundació CIDOB – Centro de investigación, docencia, documentación y divulgación de Relaciones Internacionales y Desarrollo

**Hizkuntza** Katalana, gaztelania, ingelesa

**Baliabide mota** Baliabide zentroa

**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak



**Laburpena** CIDOB Fundazioaren web orrialdean bere liburutegiko katalogorako sarbidea aurkituko dugu. Liburutegiak monografiei eta aldizkarietako artikuluei buruzko 60.000 erreferentzia bibliografikotik gora biltzen ditu. Web orrialdean, gainera, Fundazioaren argitalpenak kontsulta daitezke (CIDOB Nazioarteko Urtekaria, CIDOB d'Afers Internacional Aldizkaria, CIDOB Dokumentuak, Mediterraneoko Urtekaria); horietako batzuetan testu osoa irakurri daiteke.

Irakaskuntzari eta CIDOBek bultzaturiko programei buruzko informazioak, albisteen buletinak eta esteken atalak web orrialdearen eskaintza osatzen dute.

**Harremanetarako helbidea** CIDOB
Elisabets, 12 • 08001 Barcelona
34 933 026 495 34 933 022 118 • cidob@cidob.org

**Esteka interesgarria** www.cidob.es

| | |
|---|---|
| Izenburua | Kaleko ahotsak. Angola |
| Egilea | One World Action / Development Workshop |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.oneworldaction.org • www.dw.angonet.org |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara, ingelesa |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |
| Laburpena | Bideo hau Luandako txaboletan edo musseque deitutakoetan girotuta dago. Testuinguru horretan, oso ohikoak dira txirotasun larriena, umeen hilkortasun handia, ur kutsatuak eta zabortegiak. Development Workshopek, One World Action-eko toki-bazkideak, bertako erkidegoekin lan egiten du, osasuna, mikrokredituak eta ur edangarria hobetzeko eta, are garrantzitsuagoa dena, oinarrizko zerbitzuei buruzko erabakiak hartzeko orduan hiritarrek hitza edukitzeko. |
| Harremanetarako helbidea | Hegoa<br>Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao<br>✆ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es |
| Esteka interesgarria | www.hegoa.ehu.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Makiladorak |
| Egilea | Reyes, G. |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Bideo honetan, Nikaraguan gero eta hedatuago dagoen esportaziorako ehungintzaren eta bertan diharduten langileen lan-baldintzen berri ematen da. Globalizazioaren testuinguruan, AEBekin merkataritza askerako sinatutako hitzarmenak kontuan hartuta, esportaziorako ehungintza mana omen da, garapenerako bide bakarra, alegia. Nolanahi ere, langileen oinarrizko eskubideak behin eta berriro urratzen direnez, ingurumeneko legeak betetzen ez direnez edo zergak salbuetsi egiten direnez, ekoizpen-sistema honen beste aurkia geratzen da agerian. Izan ere, eskulanaren esplotazioan oinarrituta dago, eta ez du herrialdearentzako aberastasunik sortzen.<br>Hegoa-k Germán Reyesek zuzendutako eta Fons Catalá de Cooperació al Desenvolupament-ek ekoitzitako bideo originala itzuli eta editatu egin du. |
| Harremanetarako helbidea | Hegoa<br>Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao<br>✆ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es |
| Esteka interesgarria | www.hegoa.ehu.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | ACSUR-Las Segovias |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | GGKE |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | ACSUR-Las Segovias herritar anitzez osaturiko erakundea da, mundu osoan garapen eredu zuzena, iraunkorra eta demokratikoa eraikitzeko gizarte eraldaketako ekintzak bultzatzen dituena. ACSUR-Las Segoviasek nazioarteko lankidetzaren, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan lan egiten du.<br>Erakundearen iritziz, garapenerako hezkuntza aldaketarako kontzientzia politikoa eta herritarren partaidetza demokratikoa sortzeko bidea da; garapen iraunkorra, genero berdintasuna eta etorkinen eskubideekiko errespetua lortzeko, instantzia ordezkatzaileekin eta espazio publikoa antolatzen eta kudeatzen dutenekin hitz egiteko eta negoziatzeko.<br>Bere web orrialdeak proiektuei buruzko informazioa eskaintzen du, zenbait gairi buruzko artikulu eta argitalpenez gain: generoa, komunikazioa, partaidetza, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, migrazioak... |
| Harremanetarako helbidea | ACSUR-Las Segovias<br>Cedaceros, 9 - 3º izq. • 28014 Madrid<br>✆ 34 914 291 661 • acsur@acsur.org |
| Esteka interesgarria | www.acsur.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | ALBOAN |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | GGKE |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | ALBOAN Jesusen Lagundiak bultzaturiko eta babesturiko fundazioa da, benetako elkartasunean oinarritutako munduko ordena berri bat sortzea posible dela sinesten duten pertsona anitzez osatua. Bere jarduera hainbat arlotan dago egituratuta: nazioarteko lankidetza, elkartasunerako hezkuntza, boluntariotza, ekintza politikoa eta sareak. Bere web orrialdearen bidez hainbat zerbitzu eskura daitezke, eta baita argitalpen eta artikulu ugari deskargatu ere. Horrez gain, bertatik ALBOAN-ek kudeatutako beste bi orrialde interesgarrira sar daiteke: Topaleku –boluntarioentzako gunea- eta Sistematizazioa –giza garapenari buruzko esperientziak–. |
| Harremanetarako helbidea | ALBOAN<br>Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao<br>✆ 34 944 153 592 ℻ 34 944 161 938 • info@alboan.org |
| Esteka interesgarria | www.alboan.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | CIDAC - Centro de Informação para o Desenvolvimento Amilcar Cabral |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | GGKE |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | CIDACek zenbait balio bere gain hartzeko konpromisoan oinarritu du egitekoa. Hona hemen balio horietatik nabarmenduko genituzkeen batzuk: solidaritatea, justizia nazioarteko harremanetan, identitateak eta tokiko baliabideak aintzat hartzea eta baloratzea, gizarte zibilak soluzio alternatiboak eraikitzeko duen berariazko betebeharra, ezarritako botereen aurrean independentzia eta autonomia eta lankidetza bidezko esku-hartzea. Honela zehaztu dute erakundearen misioa: "CIDACek herrialdeen arteko solidaritatea sustatzen du, hiritartasun aktiboaren osagai gisa elkarmenpekotasun mundial progresiboa ezaugarri duen testuinguruan. Parte hartzeko modu pribilegiatutzat jotzen dira garapenerako lankidetzarako jarduerak eta garapenerako hezkuntzarakoak, baita pertsonengan eta komunitateetan oinarria duten eta garapena sustatzen duten beste jarduerak ere".<br>CIDACek lau arlo nagusitan lan egiten du, klabetzat jotzen dituenetan, bai iparraldean bai hegoaldean:<br>• Merkataritza eta garapena.<br>• Migrazioak eta garapena.<br>• Garapenerako lankidetza.<br>• Garapenerako hezkuntza.<br>CIDACen Dokumentazio Zentroan hainbat monografia, aldizkako argitalpenak, prentsa eta ikus-entzunezko material ugari dago. Denak erabilgarri kontsulta eta mailegu zerbitzuaren bidez. |
| Harremanetarako helbidea | CIDAC<br>Rua Pinheiro Chagas, 77 - 2. Esq. • 1069-069 Lisboa (Portugal)<br>✆ 351 21 317 28 60 ✆ 351 21 317 28 70 • cidac@cidac.pt |
| Esteka interesgarria | www.cidac.pt/ |



| | |
|---|---|
| Izenburua | CONCORD - European NGO Confederation for Relief and Development |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Koordinakundea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | CONCORD plataforma 2003. urtean sortu zen, Europako GKEen batzordea ordezkatzeko asmoz. Nazioarteko 18 sarek eta Europar Batasuneko estatuetako zein herrialde atxikigaietako 20 erakundek osatzen dute, guztira 1500 GKE ordezkatzen dituelarik.<br>Bere helburuak hauek dira:<br>• GGKEen arteko lankidetza koordinatzea, eztabaida politikoan eragiteko eta garapenaren eta laguntza humanitarioaren arloko politikak bultzatzeko.<br>• Europako GGKEen legitimotasuna handitzea eta beren interes politikoak defendatzea, GGKEak Europar Batasuneko erakundeen kide estrategiko bihurtuz.<br>• Egonkortasuna eta kalitatea bermatzea Europar Batasuneko eta haren erakundeetako finantzaketa lortzerakoan.<br>• GGKEen lanaren kalitatea handitzea, batez ere Hegoaldeko gizarte zibilarekin duten harremanari dagokionez.<br>• GGKEen gaitasunak indartzen laguntzea. |
| Harremanetarako helbidea | secretariat@concordeurope.org |
| Esteka interesgarria | www.concordeurope.org |



| | |
|---|---|
| Izenburua | CONGDE - Coordinadora de Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo - España |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Koordinakundea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |

**Laburpena**

CONGDE Koordinakundea 98 GGKEk eta GGKEen 14 Koordinakunde Autonomikok osatzen dute, eta nazioarteko elkartasunaren arloan diharduten 400 erakunde inguru biltzen ditu guztira.

- Koordinakundea GGKEentzako bilgunea da, kezkak partekatzeko eta proposamenak egiteko, eztabaidarako eta gogoetarako toki bat.
- Koordinakundeak GGKEen lanaren berri ematen du; lan hori ez da lankidetzako proiektuetara mugatzen, baina hori da erakundeon alderdirik ezagunena.
- Koordinakundeak Gobernuari, Espainiako herri administrazioei - Aldundiak, Udalak...- eta Europako zein nazioarteko beste erakunde batzuei neurriak hartzeko eskatzen die, beren politika komertzial, ekonomiko eta finantzarioetan Hegoaldeko herrialdeen interesak errespeta eta kontuan har ditzaten. Eta baita ere, garapenerako lankidetzako politiken laguntza eraginkorra eta gardena dela ziurtatzeko, eta pobrezia errotik kentzeko erabiltzen dela bermatzeko.
- Bestalde, Koordinakundearen bidez, GGKEk gizarteko beste sektore antolatu batzuekin hitz egin dezakete (alderdi politikoak, sindikatuak, enpresarien erakundeak, gizarte mugimenduak...), lankidetzaren inguruko ekimenak koherenteak izateko.
- Koordinakundeak GGKEei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie.

**Harremanetarako helbidea**

CONGDE
Calle de la Reina, 17 - 3º • 28004 Madrid
34 915 210 955 34 915 213 843 • coordinadora@congde.org

**Esteka interesgarria**

www.congde.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | El valor de compartir beneficios. Las ONGD y el marketing con causa: retos y oportunidades |
| Egilea | García Izquierdo, B. |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Deustuko Unibertsitatea |
| Urtea | 2000 |
| ISBN | 84-7485-675-2 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |

**Laburpena**

Espainiako gizartean, enpresa eta GGKE batzuen arteko harremanaren berri ematen duten iragarki ugari agertu dira azken urteotan. Hitzarmen horiek irabazi-asmorik gabeko marketingeko azken joeren emaitzak dira, eta enpresak merkatuan lekuratzeko estrategia berritzailea da. GGKEen eta enpresen eginkizunak desberdinak direnez, oso egokia izango litzateke aztertzea nolako inplikazioak izan ditzaketen ekimen horiek elkarteetako mugimendu zibilaren etorkizuneko garapenean. Egileak aztertu egiten du nolako abantailak eta desabantailak eskaintzen dizkion irabazi-asmorik gabeko sektoreari horrelako estrategiak. Era berean, behar den moduan garatzeko orduan, nolako baldintzatzaileak hartu behar diren kontuan azaltzen du, bai eta eraginkorra izateko zer urrats eman behar diren ere. Hausnarketa hori gaiari buruzko ikerketa berrietan eta benetako zenbait kasuren azterketan oinarrituta dago, eta, amaieran,

zenbait gomendio eta aukerako proposamen egiten ditu, GKEen eta enpresen arteko etorkizuneko lankidetzak bideratzeko.

**Harremanetarako helbidea**
Cuadernos Deusto Derechos Humanos
Deustuko Unibertsitatea
Posta-kutxa 1 • 48080 Bilbao

**Esteka interesgarria** www.deusto.es

---

**Izenburua** Informe de la CONGDE sobre el sector de las ONGD 2004
**Egilea** Sánchez Naranjo, Mª J. eta Mataix Aldeanueva, C. (koord.)
**Edizioaren lekua** Madril
**Argitaletxea** Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea - Espainia
**Urtea** 2005
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Liburua
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak

**Laburpena**
Txosten hau hemendik aurrera urtero argitaratuko da, eta bi zati izango ditu: GGKEen baliabide eta ekintzei buruzko zati bat, aldatuko ez dena –sektorearen bilakaera aztertu ahal izateko-, eta argitalpen bakoitzean desberdina izango den beste zati bat, gai zehatzekin loturiko azterketez osatua. Lehen txosten honen bigarren zatiak Jokabide Kodea eta Kalitatearen Kudeaketa jorratzen ditu; izan ere, Koordinakundeko GGKEek gero eta garrantzia handiagoa ematen diote beren jardueren eraginkortasunaren etengabeko hobekuntzari.
Txostenak Koordinakundeak urtero kaleratu ohi zituen Direktorioak ordezkatu ditu, eta bere web orrialdean dago eskuragarri, euskarri informatikoan.

**Harremanetarako helbidea**
Coordinadora de ONG de Desarrollo
Calle de la Reina, 17 - 3º • 28004 Madrid
☎ 34 915 210 955 📠 34 915 213 843 • coordinadora@congde.org

**Esteka interesgarria** www.congde.org/CONGDE2004.pdf

---

**Izenburua** La palabra empeñada. Los Objetivos 2015 y la lucha contra la pobreza
**Egilea** 2015 y más Plataforma
**Edizioaren lekua** Madril
**Argitaletxea** Los Libros de la Catarata
**Urtea** 2004
**ISBN** 84-8319-187-3
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Liburua
**Hartzaileak** Jendea oro har

**Laburpena**
Argitalpen hau 2015 y más Plataformaren urteko bigarren txostena da. Plataforma bera bere ibilbidea luzea da hegoaldeko herriekiko lankidetzan.
Eduardo Galeanoren esanetan, “liburu honetan ez dago zoriontasun unibertsalerako errezetarik. Orrialdeok hain bidezkoa eta hipokrita ez den mundua sustatu nahi dute. Liburuan jasotako lanen oinarria sendoa da, independentziak bakarrik eskaintzen duen zintzotasuna daukate eta hitzen zein egintzen arteko desadostasuna neurtzen dute. Milurteko berria hasi zenean, munduko herrialde guztiek honako konpromiso hauek hartu zituzten: txirotasuna gutxit-

| | |
|---|---|
| | zea, osasuna hobetzea, ingurumena zaintzea, giza eskubideak babestea eta bake unibertsala lortzea. Zer gertatu zen konpromiso horiekin? Zer diote jarraipen-adierazleek proposatutako helburuei buruz? Herrialde pribilegiatuek ez omen dituzte sinatutako hitzarmenak betetzen, neurri handi batean euren ongizatea gainerakoak irainduta lortzen badute ere. Liburu honek erantzukizunari dei egiten dio. Mundua gogaituta dago, jabeek adarra jotzen diotelako. Premiazkoa da emandako hitza betetzea. Izan ere, aginduetatik errealitateetara dagoen urruntasuna gaur egungo erronkaren adierazgarri da oraindik itxaropenaren eta etsipenaren artean aukeratzerik badagoela uste dugun guztiontzat". |
| Harremanetarako helbidea | Los Libros de la Catarata<br>Fuencarral, 70 • 28004 Madrid<br>☎ 34 915 320 504 ℻ 34 915 324 334 • catarata@loslibrosdelacatarata.org |
| Esteka interesgarria | www. loslibrosdelacatarata.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Las ONG en España. De la apariencia a la realidad |
| Egilea | Gómez Gil, C. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Los Libros de la Catarata |
| Urtea | 2005 |
| ISBN | 84-8319-221-5-7 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Gobernuz kanpoko erakundeekin zerikusia duen guztia eztabaidaezintzat jotzen da orokorrean, erakunde horiek egiten duten lanaren dimentsio humanitarioagatik eta erakunde horien inguruan balio positiboak biltzen direlako. Liburu honetan Espainiako GKEek izandako bilakaerari buruzko analisi kritikoa egiten da, gaur egun betetzen duten zeregina aztertuz eta Espainiako ereduaren ezaugarriak eztabaidatuz. Gure herrialdean hazkuntza handia izan duten arren, bai kopuruan bai garrantzian, ez dute independentzia maila minimorik lortu. Gehienak alderdi politikoek, sindikatuek, enpresek eta erakunde erlijiosoek sortu, babestu edo zuzentzen dituzte, edo haiekin nolabaiteko lotura dute; finantzaketa estatal handiagoko interbentzio-espazioetara egokitzeko, erakundeon zatiketa gero eta progresiboagoa egin da eta eskura dituzten ondasunak handitzearen eta euren jarduerek komunikabideetan eragin handiagoa izan dezaten alde jokatu dute, eta ez giza oinarria zabaltzearen eta parte hartzeko bide berriak eskaini edo esku-hartze eginkorragoaren alde. Egoera horretan ezinbestekoa da eztabaidari bide ematea, erakundeon jardueren transparentzia ezagatik azaldutako kezkak argitzeko, erakundeon ekintzapideak gauzatzerakoan inolako irizpiderik ezari konponbidea emateko eta interes partikularren alde eskaini ohi duten zerbitzua ekiditeko. Azken batean, erakundeoi euren jardueretan zorroztasun handiagoa, giza bidegabekerien aurrean jokaera kritikoagoa eta euren jarreretan pauta etiko berriak erakutsi ditzaten eskatzea da asmoa, gaur egungoa bezalako gizarte aldakorrean bideratzen dituzten jarduera guztien ardatz pertsonak izan daitezen. |
| Harremanetarako helbidea | Los Libros de la Catarata<br>Fuencarral, 70 • 28004 Madrid<br>☎ 34 915 320 504 ℻ 34 915 324 334 • catarata@loslibrosdelacatarata.org |
| Esteka interesgarria | www.loslibrosdelacatarata.org |

Izenburua: Canal Solidario
Egilea: Chandra Fundazioa
Hizkuntza: Gaztelania, katalana
Baliabide mota: Web orrialdea
Hartzaileak: Jendea oro har

Laburpena: Canal Solidario-OneWorld lankidetzari, garapenari, bakeari, giza eskubideei eta gizarterapenari buruzko komunikazio-proiektua da, eta, 1999. urteaz geroztik, honako hau eskaintzen du Interneteko atariaren bidez: gaurkotasun handiko informazioa, zerbitzuak, baliabideak eta gizarte-partaidetzarako eremuak. Chandra Fundazioak bultzatu du Caixa Catalunyako Un Sol Món Fundazioaren babesaz, eta partaidetzan oinarritutako eta bidezkoagoa den gizarte bateratzaileranzko aldaketa sustatutako komunikazio aske bezain anitzarekin konpromisoa duten kazetarien talde batek garatu du. Nazioarteko OneWorld sarearen barruan dago, eta tokian tokiko 12 zentro eta 1.700etik gora erakunde kide ditu mundu zabalean.

Harremanetarako helbidea:
Chandra Fundazioa
Jaén 13, local • 28020 Madrid
( 34 915 534 547 • fundacionchandra@fchandra.org

Esteka interesgarria: www.canalsolidario.org

Izenburua: Choike. Un portal de la sociedad civil del Sur
Iturria: www.item.org.uy/
Hizkuntza: Gaztelania, ingelesa
Baliabide mota: Web orrialdea
Hartzaileak: GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena: Choike.org Hirugarren Munduko Institutuaren ekimena da. Atariak hegoaldeko GKEek ekoitzitako edukien ikusgarritasuna hobetzea du helburu. Plataforma horretan, gainera, GKEek euren lana zabaldu dezakete, eta, aldi berean, hegoaldeko gizarte zibilaren ikuspegitik antolatutako informazio-iturrietatik elikatu daitezke.

Hona hemen zer eskaintzen duen Choike-k:

- Gaien arabera antolatutako GKEen direktorioa. Ez da zerrenda zehatza, gune erabilgarri eta nabarien aukeraketa baizik. Direktorioan, gainera, hegoaldeko GKEen guneak baino ez dira agertzen. Beste iturri batzuetatik datorren informazioa, ordea, beste atal batzuetan dago ikusgai.
- Bilatzaileari esker, GKEen guneetako informazioa arakatzen da. Tresna horri esker, kalitatekoak eta garrantzitsuak izateagatik direktorioan dauden web orrien multzo mugatuan bilatu daiteke. GKEek Choike-ko bilatzailea euren gunean jarri nahi badute, atariaren beraren bidez egin dezakete.
- GKEek ekoitzitako edukien aukeraketa. Informazio nabarmena dute gizarte zibilarentzat eta bere ikuspegietan interesa dutenentzat. Txostenen, albisteen eta informazio-baliabideen bitartez, eduki horietara sartuko gara.
- Gai garrantzitsuei buruzko txosten bereziek oinarrizko informazioa eskaintzen dute, eta ikuspuntu desberdinak erakusten dituzte, gizarte zibilak euren aurrean hartu duen jarrera, batez ere.
- GKEen ekintzen eta kanpainen hedapena.

Harremanetarako helbidea: info@choike.org

Esteka interesgarria: www.choike.org

**Izenburua** Gloobal. La cooperación en red
**Egilea** IEPALA
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak

**Laburpena**

GLOOBAL hainbat erakunde eta sareren ilusioen, borondate politikoaren eta ahalegin bateratuaren emaitza izan da. Ezaugarri desberdinak dituzten arren (ekintza ildoak eta esparruak; gaiak eta sektoreak; geografiak...), erakundeok elkarren osagarriak dira, eta denek bat egin dute gizarte zibilaren zerbitzura dagoen baliabide berritzaile bat sortzeko eta herritartasunaren kontzeptua berreraikitzeko.

GLOOBALek zera erakutsi nahi du: informazioa –bestela esanda, ezagutza- eta Informazioaren Teknologia Berriak behar-beharrezkoak direla XXI. mendeko erakunde eta gizarte mugimenduentzat, ezinbestean agertoki globaletan kokatzen diren premia lokalei behar bezala erantzuteko.

GLOOBAL informazio eta komunikazioko sistema integratua da, garapenerako baliabide estrategiko bihurtu nahi duena. Bere helburua zera da: Iparraldeko eta Hegoaldeko erakunde zein sareei gune berritzaile, zorrotz, independente eta eraginkor bat eskaintzea, bertan informazioa trukatu eta elkarri lagun diezaioten. Gune hori Hegoaldeko herrialdeen zerbitzura egongo da, eta baita garapen iraunkorra, lankidetza, genero berdintasuna, ingurumena eta giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde, sare eta gizarte mugimenduen ehunaren zerbitzura ere.

**Harremanetarako helbidea**

IEPALA
García Noblejas, 41 - 8º • 28037 Madrid
34 914 084 112 34 914 087 047 • iepala@eurosur.org

**Esteka interesgarria** www.gloobal.info

**Izenburua** ITeM. Instituto del Tercer Mundo
**Hizkuntza** Gaztelania, ingelesa
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak

**Laburpena**

Hirugarren Munduaren Institutuak (ITeM) garapena eta ingurumenarekin loturiko informazio, komunikazio eta hezkuntza jarduerak egiten ditu estatu mailan zein nazioartean. Gizarte zibiletik sortutako erakundea da eta gizarte zibilaren zerbitzura dago, eta herritarren partaidetza bultzatzen du erabaki hartzeen prozesu globaletan. ITeMen helburuak hauek dira:

- Demokrazia eraikitzen laguntzea, prozesu horretan gizarte zibileko erakundeek duten funtsezko eginkizuna azpimarratuz. ITeMek batez ere Hirugarren Munduko erakundeei laguntzen die, eta munduko pobreen, emakumeen eta gutxiengo zapalduen interesak eta nahiak defendatzen ditu bereziki. Sareak bultzatuz, hau da, informazioa eta ezagutza sozializatuz, ITeMek demokratikoak, bidezkoak eta ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorrak diren gizarteak eraiki nahi ditu.
- Giza eskubideekiko errespetua bultzatzea, batik bat adierazpen askatasuna eta informaziorako sarbide librea defendatuz. ITeM aitzindaria izan da sare elektronikoak helburu horiek erdiesteko tresna gisa erabiltzen.

- Herritarren erakundeez osaturiko sare nazional zein internazionalen sorrera bultzatzea, esperientziak trukatzeko eta guztien intereseko gaien inguruko ekintzak diseinatu eta burutzeko.
- Hirugarren Munduak dituen arazoak aztertzea, diagnostikatzea eta konpontzen laguntzea. ITeMek ikerketak egin, emaitzak argitaratu eta arazoei irtenbide bat ematen lagunduko duten politikak bultzatzen ditu.

Harremanetarako helbidea: ITeM - Instituto del Tercer Mundo PO Box 1539 • 11000 Montevideo (Uruguay)
598 2 419 6192 598 2 411 9222 • item@item.org.uy

Esteka interesgarria: www.item.org.uy/

Izenburua: OMAL - Observatorio de Multinacionales en América Latina
Egilea: Paz con Dignidad
Iturria: www.pazcondignidad.org/
Hizkuntza: Gaztelania
Baliabide mota: Web orrialdea
Hartzaileak: GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena: OMAL plataformak askotariko jarduerak egiten ditu: txostenen prestakuntza, datuen analisia, informazio trukea, prestakuntza eta sentsibilizaziorako ikasgelak. Horrez gain, bere web orrialdean Espainiako enpresa transnazionalek Latinoamerikan eragindako kalteei buruzko salaketa foroak aurkituko ditugu.

OMALEK dokumentu ugari eskaintzen dizkie erakunde sozial, politiko eta sindikalei , behatokiak berak edo beste norbaitek eginak, eta baita ere zentro instituzional zein akademikoei eta ikerketa sozialak eta ekonomikoak egiten dituztenei.

Behatokiak hainbat gai jorratzen ditu:

- Gizartea eta Ekonomia.
- Giza Eskubideak.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboa.
- Ekologia eta Ingurumena.
- Erakunde Zibilak.
- Hedabideak.
- Inbertsioak eta Enpresa Politikak.

Harremanetarako helbidea: OMAL - Observatorio de Multinacionales en América Latina
Asociación Paz con Dignidad
Gran Vía, 40 - 5ª planta, local 2 • 28013 Madrid
34 91 523 38 24 • observa.empresas@omal.info

Esteka interesgarria: www.omal.info

**Izenburua** BRIDGE development-gender
**Hizkuntza** Ingelesa, frantsesa, gaztelania, arabiera, txinera
**Baliabide mota** Baliabide zentroa
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak



**Laburpena**

BRIDGEk eragile politiko nahiz sozialek genero politikak bultzatzeko egiten dituzten ahaleginak babesten ditu; horrez gain, teoria eta praktikaren arteko hutsunea betetzen saiatzen da generoari buruzko informazio anitza eta ulerterraza eskainiz.

BRIDGE 1992an sortu zen, Sussex-eko Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikasketa Institutuaren barruan (Institute of Development Studies - IDS), generoa eta garapenaren arloko informazio eta ikerketa zerbitzu gisa.

BRIDGEn helburua zera da: Hegoaldean kokaturiko ekintzaile, aditu eta eragile politikoen informazio premiak betetzea. Generoari buruzko informazioa sortzen eta trukatzen du, erabiltzaileekin eta erabiltzaileen artean elkarreraginak bultzatuz generoaren zeharkakotasuna lortzeko. Gaur egun herrialde ez anglofonoetako erakundeekin harremanetan dago, frantsesez, gaztelaniaz, arabieraz eta txineraz idatzitako materialen ekoizpena handitzeko. Izan ere, Interneten ingelesa da nagusi, eta nazioarteko foro askotan, generoari buruzko literaturaren zati handi bat hizkuntza horretan bakarrik dago eskuragarri. Ezinbestekoa da informazio hori beste hizkuntza batzuetan ere edukitzea. Ingelesaren nagusitasunari aurre egiteko, BRIDGEk bi gauza egiten ditu: batetik, materialak ingelesa ez diren hizkuntzetara itzultzen ditu; bestetik, ingelesez ez dauden generoari buruzko eztabaidak aztertu eta ingelesezko eztabaidatan sartzen ditu.

Bere web orrialdeak generoarekin loturiko informazioa eta baliabideak eskaintzen ditu, eta gai hauei buruzkoak ere bai: herritartasuna, migrazioak, partaidetza, gatazka armatuak, GIB/HIESa, aldaketa kulturala...

**Harremanetarako helbidea**
BRIDGE, Institute of Development Studies (IDS) University of Sussex
Brighton BN1 9RE (United Kingdom)
☎ 44 (0) 1273 606 261 ℻ 44 (0) 1273 621 202 • bridge@ids.ac.uk

**Esteka interesgarria** www.bridge.ids.ac.uk

**Izenburua** Siyanda - Mainstreaming gender equality
**Hizkuntza** Ingelesa
**Baliabide mota** Baliabide zentroa
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak



**Laburpena**

Siyanda generoa eta garapenarekin loturiko Interneteko datu basea da. BRIDGEk kudeatzen du; hau da, Sussex-eko Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikasketa Institutuaren (Institute of Development Studies - IDS) generoa eta garapenaren arloko informazio eta ikerketa zerbitzuak. Datu baseak gaikako bilaketak edo hitzen araberakoak egitea ahalbidetzen du. Emaitzak fitxa bibliografiko baten modura azaltzen dira, edukiaren laburpenarekin, eta nahi izanez gero testu osoa deskarga daiteke.

Bestalde, Siyandak generoa eta garapenaren arloan diharduten pertsona zein eragileei gune interaktibo bat eskaintzen die beren ideiak, esperientziak eta baliabideak trukatzeko.

Siyandara harpidetzeko aukera ere badago, web orrialdeari erantsitako azken dokumentuei buruzko informazio eguneratua jasotzeko.

**Harremanetarako helbidea**
BRIDGE, Institute of Development Studies (IDS) University of Sussex
Brighton BN1 9RE (United Kingdom)
☎ 44 (0) 1273 606 261 ℻ 44 (0) 1273 621 202 • www.bridge.ids.ac.uk • siyanda@ids.ac.uk

**Esteka interesgarria** www.siyanda.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Guía de género. Guía útil de recursos en internet sobre género y desarrollo |
| Egilea | Salas, J.; Cabello, I.; Ramos, M. eta Torres de Dios, L. |
| Edizioaren lekua | Kordoba |
| Argitaletxea | MZC |
| Urtea | 2004 |
| Iturria | www.mzc.es |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Garapeneko teknikariak |
| Laburpena | Ezeren gainetik, gida hau tresna erabilgarria da, GGKEetako edo administrazio publikoetako lankidetzako eta garapenerako hezkuntzako profesionalei generoa lantzen laguntzeko. Horrez gain, galdeketa-tresna ere bada, generoaren ikuspegitik lankidetzara eta garapenerako hezkuntzara hurbildu nahi duten pertsona guztientzat. Beijingen Emakumeei buruz egindako Nazioarteko IV. Bileran adierazitako hamabi gai kezkagarrien eta genero-metodologiari buruzko beste gai baten inguruan antolatuta dago informazioa. Gai bakoitzean, gainera, gaiari buruzko esteka guztiak agertzen dira, orri-moten arabera sailkatuta eta interesaren arabera antolatuta. |
| Harremanetarako helbidea | MZC<br>Goya, 33 • 14011 Córdoba<br>34 957 08 20 00 • educacion@mzc.es • guiagenero@mzc.es |
| Esteka interesgarria | www.guiagenero.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Sortuz. Emakumeen eskubideei buruzko material didaktikoak |
| Egilea | Arartekoa; Mugarik Gabe |
| Edizioaren lekua | Vitoria-Gasteiz |
| Argitaletxea | Ihardun |
| Urtea | 2004 |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Genero-ikuspegian oinarrituta giza eskubideei buruz sortutako material hau ARARTEKOAREN erakundeak antolatutako eta Mugarik Gabe GGKEri esleitutako bekaren emaitza da. "Sortuz" CDak emakumeen eskubideak sakon aztertzeko laguntza eskaintzea du helburu. Artekoak giza eskubideetan oinarrituta hezkuntzarako sustatutako ikasmaterialen bildumakoa da. Material horiek, gainera, "genero-teoriaren" eta emakumeen giza eskubideen arazoen ezagutzarako informazioa eta tresnak eskaintzea du oinarrizko xede. Irakasleen eta ikasleen lana erraztu nahi dute era guztietako jarduereetan: oinarrizko kontzeptuen azalpena, jarrera edo jokabide zehatzen gaineko eztabaidak, lan monografikoak, pertsonalak edo taldekoak... Hala ere, jarduera "formalak" ez ezik, jokoen bidez gaira egindako hurbilketak ere agertzen dira. CDak kontzeptuak ezarri nahi ditu, guztion arteko berdintasuna zein antzeko balioak sustatu nahi ditu, oraindik oso hedatuta dauden generoko zereginak eta estereotipoak auzitan jarri nahi ditu eta aldaketa nahiz partaidetza bultzatu nahi ditu desberdintasunak hobeto errespetatzen dituen gizarte bidezkoagoaren eraketan. |
| Harremanetarako helbidea | Mugarik Gabe - Itziar Elkarte Etxea<br>Zalburu plaza z/g • 01003 Vitoria-Gasteiz<br>34 945 277 385 • araba@mugarikgabe.org |
| Esteka interesgarria | www.ararteko.net |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Emakumeak eta gizonak munduan |
| Egilea | Direction de L'Egalité des Chances; Le Monde selon les Femmes; Cécile Bertrand (il.) |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.hegoa.ehu.es |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |



Laburpena

Emakumeak eta gizonak munduan material didaktikoa da, eta genero-desberdintasunak hezkuntzaren esparruan, eskolan nahiz hezkuntza-eremu ez-formaletan, jorratzea du helburu nagusi.

Oso interesgarria iruditzen zaigu egileek egindako proposamen pedagogikoa, gai bakoitzaren sarrera laburrean informazio argia eta eguneratua eskaintzen dutelako; iparraldeko eta hegoaldeko herrialde batzuetako egoerak erkatzeko parametroak ezartzen dituztelako; eta genero-bereizkeria gainditzeko asmoz zenbait lekutako erakunde zibilek sustatutako proposamen positiboak aurkezten dituztelako.

Edizio elebiduna da (euskaraz eta gaztelaniaz dago), eta oso erabilgarria da 12 eta 14 urte arteko gaztetxoekin lan egiteko.

Hegoa-k materiala itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Jatorriz, Direction de l'Egalité des Chances del Ministère de la Communaute française Wallonie-Bruxelles-ek argitaratu zuen Bruselan. "Femmes/Hommes dans le monde" izenburupeko edizio originalean, Le Monde selon les Femmes-en laguntza jaso zuen testuetarako; eta Cécile Bertrand-ena, irudietarako.

Harremanetarako helbidea
Hegoa
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao
☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

Esteka interesgarria
www.mondefemmes.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Coordinadora española para el Lobby europeo de mujeres |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Koordinakundea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |



Laburpena

1990eko irailaren 22an Emakumeen Lobby Europarra sortu zen Bruselan, bertako eta Europa osoko gobernuz kanpoko erakundeen ekimenez. Bere helburua Europar Batasunean bizi diren emakumeen interesak defendatzea da, talde marjinaletako eta gutxiengo etnikoetako emakumeenak barne. 1993ko martxoan, berriz, "Emakumeen Lobby Europarraren aldeko Koordinakundea" jaio zen Espainian.

Bere helburuak hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bultzatzea.
- Emakumeek partaidetza handiagoa izatea gizarteko esparru guztietan.
- Emakumeek erantzukizuneko karguak eta erabaki hartze karguak betetzea.
- Europar Batasuneko emakumeen interesak defendatzea eta politika europarretan eragitea.

| | |
|---|---|
| | • Emakumeen arteko lankidetza eta elkartasuna bultzatzea, Europar Batasunaren barruan eta handik kanpo.<br>Bere ekintza ildoak hauek dira:<br>• Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Epe Ertainerako Ekintza Komunitarioko IV. Programaren, Emakumeei buruzko IV. Munduko Biltzarreko Ekintza Plataformaren eta Espainiako aukera berdintasunerako politikaren jarraipena egitea.<br>• Europan emakumeei buruz dauden legeriak eta proposamenak aztertzea, eta baita Espainiako legegintza neurriak ere.<br>• Estrategiak diseinatzea eta ekintzak bultzatzea emakumeek Europan zein Espainian erantzukizuneko karguak eta erabaki hartze karguak bete ditzaten.<br>• Emakumeen bazterketari eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko neurriak bultzatzea. |
| Harremanetarako helbidea | Coordinadora Española para el Lobby Europeo de Mujeres<br>Almagro 28, bajo • 28010 Madrid<br>34 913 191 195 34 913 191 195 • celem@celem.org |
| Esteka interesgarria | www.celem.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Género y ciudadanía. Un debate |
| Egilea | García, A. (ed.) |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | ACSUR-Las Segovias |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-7426-725-0 |
| Iturria | "Hacia el Sur" bilduma |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
|  Laburpena | Liburu honek hiritartasunaren praktika proposatzen du, eta, bertan, elkartasuna izan behar da ezinbesteko baldintza. Hiritartasun hori, gainera, hiritarrek gai publikoetan duten partaidetza eraginkorra da. Hona hemen hiritartasun berri hori oinarritzeko kontuan hartzen ditugun gai garrantzitsuak: gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdinak, giza eskubideetarako inplikazioak, partaidetzan oinarritutako demokrazia, garapen iraunkorra eta hobeto bizitzeko moduko mundu bidezko eta berdintasunezkoaren aldeko borrokarako baterako erantzukizuna. |
| Harremanetarako helbidea | ACSUR-Las Segovias<br>Cedaceros, 9 - 3. izq. • 28014 Madrid<br>34 914 291 661 • acsur@acsur.org |
| Esteka interesgarria | www.acsur.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | La mitad invisible. Género en la Educación para el Desarrollo |
| Egilea | Antolín, L. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | ACSUR-Las Segovias |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-95039-09-5 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Aberastasuna eta boterea pertsonen eta herrialdeen artean banatzeko orduan dauden desberdintasun-harremanen ezagutza sustatu nahi du garapenerako hezkuntzak, bai eta zergatiak ere. Era berean, elkartasunarekin eta justizia sozialarekin zerikusia duten balioetan eta jarreretan trebatu nahi du, eta gure gizarteen partaidetza eta konpromisoa bultzatu nahi ditu bidezkoagoa den mundua eratzeko orduan. Beraz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-harremanak hartu behar dira kontuan, printzipioak, edukiak eta metodologiak zehazteko orduan, euren ondorioz emakumeak baztertuta daudelako. Feminismoari zor diogun genero-ikuspegia kontuan hartuz gero, desberdintasun-harremanen zergatiak eta ondorioak aztertu eta desagerrarazi egin ditzakegu. |
| Harremanetarako helbidea | ACSUR-Las Segovias<br>Cedaceros, 9 - 3º izq. • 28014 Madrid<br>☎ 34 914 291 661 • acsur@acsur.org |
| Esteka interesgarria | www.acsur.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | ALAI Mujeres |
| Hizkuntza | Gaztelania, portugesa, ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Generoen berdintasunean oinarritutako kultura demokratiko eta partehartzailea eraikitzen laguntzeko, ALAIk nazioarteko programa bat sortu du. Bere helburua da emakumeen mugimendu zein sareen antolamendua, proposamenak eta aldarrikapenak indartzea, komunikazio prozesuen garapenaren bidez. ALAIren Emakumeen Arloak emakumeek komunikaziorako duten eskubidea defendatzen du, eta eskubide hori gauzatzeko sare sozialak sortzen laguntzen du. ALAIren informazio sistematizatuak zein ikerketek Amerikako emakumeen mugimenduen eta mugimendu feministen jarrerak, proposamenak eta arazoak biltzen ditu. |
| Harremanetarako helbidea | info@alainet.org |
| Esteka interesgarria | www.alainet.org/mujeres/ |

Izenburua
## Isis Internacional

Hizkuntza
Gaztelania, ingelesa

Baliabide mota
Web orrialdea

Hartzaileak
GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena
Isis Internacional 1974. urtean sortutako nazioarteko gobernuz kanpoko erakundea da. Gizartean partaidetza zabala izateko, emakumeek behar-beharrezkoa dute baldintza berdinetan informazioa, komunikazio kanalak eta ideiak nahiz esperientziak trukatzeko aukerak edukitzea. Horren ildotik jaio zen Isis Internacional; hainbat herrialdetako emakumeek informazio eta komunikazio zerbitzu propioa izateko premiatik. Bere web orrialdeak zenbait programatarako sarbidea ematen du:

- Informazio eta Dokumentazio Zentroak (CIDOC) informazio ugari eskaintzen du emakumeei eta generoari buruz, Datu Baseetan antolatua eta azkar aurkitzeko modukoa.
- Argitalpen programak emakumeen arteko komunikazioa bultzatzen du argitalpen espezializatuen bidez, eta informazioa zabaltzen du argitalpen elektronikoen bidez.
- Emakumeen Kontrako Indarkeriarik Ez programak indarkeria hori desagerrarazteko diagnostikoak ematen eta zabaltzen ditu, informazio kanpainak egiteaz gain.
- Emakumea eta Osasuna programak informazio espezializatua eskaintzen die arlo honetan diharduten profesional, antolatzaile eta erakundeei.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak programak Interneten bidez informazio eguneratua ematen du.

Harremanetarako helbidea
isis@isis.cl

Esteka interesgarria
www.isis.cl/

Izenburua
## Lobby Européen des Femmes / European Women's Lobby

Hizkuntza
Frantsesa, ingelesa

Baliabide mota
Web orrialdea

Hartzaileak
GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Laburpena
Emakumeen Lobby Europarra (LEF) emakumeen elkarteez osaturiko Europar Batasuneko erakunderik handiena da. LEFen egoitza Bruselan dago, baina Europar Batasuneko 23 estatutan kideak ditu, eta baita zenbait herrialde atxikigaietan ere.

Emakumeen Lobby Europarraren helburua emakumeen eskubideak defendatzea eta Europar Batasuneko gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea da. LEFek hainbat gai jorratzen ditu, besteak beste emakumeen egoera ekonomiko eta soziala, emakumeak erabaki hartzeetan, emakumeen aurkako indarkeria eta aniztasuna. LEFek gehien bat Europar Batasuneko erakundeekin lan egiten du: Europako Parlamentua, Europako Batzordea eta Europar Batasuneko Ministro Kontseilua.

Harremanetarako helbidea
Lobby Européen des Femmes
18 Rue Hydraulique • B-1210 Bruxelles (Belgique)
☏ 32 2 217 90 20 ☏ 32 2 219 84 51 • Ewl@womenlobby.org

Esteka interesgarria
www.womenlobby.org/

| | |
|---|---|
| Izenburua | MujeresHoy. El portal de las latinoamericanas |
| Egilea | Isis Internacional |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | MujeresHoy munduari generoaren ikuspuntutik begiratzen dioten pertsonei zuzenduriko atari latinoamerikarra da, gizon eta emakumeen premiak eta bien arteko harremanak aztertzen dituena. Hedabide tradizionaletan gehienetan aurkitu ezin diren gaiei buruzko informazioa ematen du. Horrez gain, Interneten nabigatzeko datuak eta elkarreraginerako tresnak eskaintzen ditu.<br>Ataria Isis Internacional-ek egin du, 1974. urtetik emakume antolatuen artean sareen eta informazio kanalen eraikuntza bultzatzen daraman gobernuz kanpoko erakundeak. Informazio gehiago: http://www.isis.cl |
| Harremanetarako helbidea | editoras@mujereshoy.com |
| Esteka interesgarria | www.mujereshoy.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Observatorio Andaluz de Publicidad no Sexista |
| Egilea | Andaluziako Emakumearen Institutua |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Behatoki hau prestakuntza, sentsibilizazio eta ikerketarako sortu zen, baina inguratzen gaituzten mezu sexistei buruzko kexak eta balioespenak bideratzeko ere balio du.<br>Bere web orrialdea hurrengo ataletan dago banatuta:<br>• Kode deontologikoa.<br>• Sentsibilizazioa (kanpainak eta publizitatean sexismoa identifikatzeko dekalogoa).<br>• Prestakuntza (aztertutako iragarkiak, baliabide didaktikoak, ikastaroak-jardunaldiak).<br>• Dokumentazioa (legeria, argitalpenak, laburpenak, artikuluak, txostenak).<br>• Harremanak (inprimakiak, sarreren txostenak).<br>• Estekak.<br>• Web baliabideak (deskargak egiteko gunea, web orrialdearen mapa). |
| Harremanetarako helbidea | correo.iam@juntadeandalucia.es |
| Esteka interesgarria | www.iam-publicidad.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | UNIFEM |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | UNIFEM Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Funtsa da, eta emakumeen jabekuntza eta genero berdintasuna bultzatzen ditu. UNIFEMek emakumeen ahotsa Nazio Batuen Sisteman eta mundu osoan entzun dadin bermatzeko lan egiten du, NBEko agentziekin, gobernuekin eta gizarte zibil antolatuarekin elkarlanean. Ondorioz, emakumeekin loturiko gaiak eta emakumeen kezkak agenda nazional, erregional eta globaletan islatzen dira. UNIFEMek lau helburu zehatz ditu:<br>• Pobreziaren eta bazterketaren feminizazioa murriztea.<br>• Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea.<br>• GIB/HIESak emakumeen eta nesken artean duen zabalkundea geraraztea.<br>• Kudeaketa publiko demokratikoan genero berdintasuna lortzea bake denboran, eta gerraosteko berreskuratze etapan. |
| Harremanetarako helbidea | unifem.ecuador@undp.org |
| Esteka interesgarria | www.unifemandina.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Women Watch |
| Egilea | NBE |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Women Watch, Genero Ekitatea eta Emakumeen Jabekuntza, NBEk Interneten duen eremua da, eta emakumeek boterearen eskurapenean egindako aurrerapena dauka hizpide.<br>Honako gai hauei buruko informazio ugari eskaintzen du:<br>• Emakumeen egoera munduko zenbait herrialdetan.<br>• NBEk arlo horretan egindako lana.<br>• Beijingeko goi-bileraren jarraipena.<br>• Albisteak.<br>• Estatistikak.<br>• Adierazleak.<br>• Esteka interesgarriak. |
| Harremanetarako helbidea | womenwatch@un.org |
| Esteka interesgarria | www.un.org/womenwatch/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | WOMENACTION 2000 |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa, frantsesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Informazio eta komunikazio sarea da, eta Beijing +5 prozesuarekin konpromisoa daukaten GKEak elkartzen ditu, epe luzeari begira emakumeen jabekuntza lortzeko, emakumeak eta komunikabideak oso kontuan hartuta. Mundu zabaleko emakumeen sareetarako sarbidea eskaintzen du, bai eta Beijingeko egutegiari buruzko informazioa, Interneteko baliabideak, bilatzeko sistema eta emakume zein komunikabideentzako eremua ere. |
| Harremanetarako helbidea | info@womenaction.org |
| Esteka interesgarria | www.womenaction.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Xantippa. Las mujeres en la Unión Europea |
| Hizkuntza | Gaztelania, frantsesa eta ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Gazteak |
| Laburpena | "Xantippa – Emakumeak Europar Batasunean" emakume europarrei buruzko testu bilduma da, Europako emakumeen bost ikasketa institutuk egina:<br>• Christina Institute. Helsinkiko Unibertsitatea. Finlandia.<br>• Department of Sociology. Bergengo Unibertsitatea. Norvegia.<br>• Equipe Simone. Toulouse-le Mireileko Unibertsitatea. Frantzia.<br>• Emakumeei buruzko Ikasketa Institutua. Granadako Unibertsitatea. Espainia.<br>• Research Centre on Violence, Abuse and Gender Relations. Leeds-eko Unibertsitate Metropolitarra. Erresuma Batua.<br>Testuek ikuspegi bikaina ematen diete ikasleei Europa Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen egoeren arteko berdintasun eta desberdintasunen inguruan.<br>Informazioa hurrengo gaietan dago banaturik:<br>• Historia.<br>• Lana.<br>• Familia.<br>• Mugimendua.<br>• Politika.<br>• Erlijioa.<br>Web orrialdeak, halaber, proiektua osatzen duten bost institutuei buruzko informazioa eskaintzen du, eta hurrengo gaiekin loturiko esteka interesgarriak ditu: berdintasunerako legeak eta programak; estatistikak; generoari buruzko ikerketak; buletinak eta liburutegiak. |
| Harremanetarako helbidea | Pilar Ballarín • ballarin@platon.ugr.es |
| Esteka interesgarria | www.helsinki.fi/science/xantippa/wes/wes20.html |

**Izenburua** Ko'aga Roñe'eta. Revista sobre Derechos Humanos

**Egilea** Nizkor Taldea eta Derechos Human Rights

**Hizkuntza** Gaztelania, ingelesa

**Baliabide mota** Aldizkaria

**Hartzaileak** Irakasleak

**Laburpena** Ko'aga Roñe'eta esaldiak "Orain hitz egingo dugu" esan nahi du guaranieraz (Paraguaiko kultura indigenen hizkuntza).



Ko'aga Roñe'eta giza eskubideei eta zuzenbide humanitarioari buruzko aldizkari elektronikoa da. Giza eskubideen aldeko erakunde, profesional, akademiko, ikasle eta ekintzaileen azterlanak biltzen ditu, eta komunitate globalaren eskura jartzen. Bere helburua da giza eskubideen alde lan egiten duten pertsona zein erakundeei bestela eskuratzeko zailak diren informazioa eta ikerketak eskaintzea.

Aldizkaria hurrengo ataletan dago banatuta: Eskubide Zibilak eta Politikoak; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak; Zigorgabetasuna eta Egia; Gobernuz Kanpoko Aktoreak; Zuzenbide Humanitarioa eta Gerra Auzitegiak; Nazioarteko Erakundeak eta Giza Eskubideen Erakundeak; Giza Eskubideak Amerikan; Giza Eskubideak: Gaiak eta Teoria; Errefuxiatuak eta Asiloa. Beste atal batzuetan bibliografia eta biltzarrak aurkituko ditugu.

**Harremanetarako helbidea** Ko'aga Roñe'eta
Apartado de Correos 15116 • 28080 Madrid
koaga@derechos.org

**Esteka interesgarria** www.derechos.org/koaga/

**Izenburua** HREA - Human Rights Education Associates

**Hizkuntza** Ingelesa, frantsesa, gaztelania, errusiera, arabiera, txinera

**Baliabide mota** Baliabide zentroa

**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak



**Laburpena** HREAk kalitateko hezkuntza eta prestakuntza ematen du, giza eskubideak babesteko eta komunitate justu, libre eta bakezaleak sortzeko behar diren ezagutzak, jarrerak eta ekintzak bultzatzeko asmoz. HREAk giza eskubideen hezkuntzarako programak ezarri nahi dituzten gizabanako, gobernuz kanpoko erakunde, gobernu arteko erakunde eta gobernuekin lan egiten du. Zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Ikasketa planak eta materialak garatzeko laguntza.
- Talde profesionalen prestakuntza.
- Ikerketa eta ebaluazioa.
- Hezkuntzari buruzko informazioa eta ikasmaterialak banatzen dituen zentroa.
- Antolamenduzko garapena.
- Juristekin eta giza eskubideen hezitzaileekin harremanak.

Baliabide Zentroa:

Giza Eskubideen Hezkuntzarako Baliabide Zentro Elektronikoa giza eskubideen hezkuntza eta prestakuntzarako on-line informazio iturria da. Materiala doan eskura daiteke. Giza Eskubideen Hezkuntzarako Liburutegiak 1.000 datu bibliografiko baino gehiago ditu, eta horrez gain hezkuntza planak, glosarioak, testuliburuak eta prestakuntza eskuliburuak ere bai, formatu formal zein informalean.

**Esteka interesgarria** www.hrea.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Direitos Humanos. Guia anotado de recursos |
| Egilea | Lopes, G. (koord.) - IIE (Instituto de Inovaçao Educacional) |
| Edizioaren lekua | Lisboa |
| Argitaletxea | IIE / DEB / DES / CCPES |
| Urtea | 2001 |
| ISBN | 972-783-056-0 |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Baliabideen gida hau giza eskubideetarako hezkuntzaren arloan jarduerak garatzen dituzten irakasleentzako, hezitzaileentzako eta prestatzaileentzako tresna lagungarria da. Berrikuntzaren ikuspegitik, hezkuntza-jardunean lagundu nahi die, diziplina artekotasuna, zeharkakotasuna eta hiritartasunerako hezkuntza bultzatzeko asmoz. Gida hau Hezkuntza Ministerioaren web orrotik ere badago eskuragarri (www.iie.min-edu.pt/inovbasic/biblioteca). |
| Harremanetarako helbidea | Ministerio de Educaçao<br>Av. 24 de Julho, 140 • 1399 - 025 Lisboa (Portugal)<br>351 21 393 45 00 351 21 393 46 95 • dgidc@dgidc.min-edu.pt |
| Esteka interesgarria | www.iie.min-edu.pt |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Civisme et démocratie |
| Hizkuntza | Frantsesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Giza eskubideen ligak eta irakaskuntzaren ligak sortu zuten Gizabidearen eta Demokraziaren CIDEM elkartea. Gaur egun, 11 elkarte biltzen ditu, jarduera ugaritan lan egiten dutenak eta jatorri desberdinetakoak, baina denak hiritar autonomo, solidario eta arduratsuen garapenaren alde lan egiteko borondatea erakutsi dutenak.<br>CIDEMen helburu nagusia gaur egungo gizartean gizabidea dinamizatzea da. CIDEMeko elkarte-sareetan 4 milioi kide baino gehiago biltzen dira eta 50.000tik gora inplantazio lokal bideratu dituzte, guztiak hiritartasuna eta gizabidea sustatzen lanean.<br>CIDEMentzat, gizabidearentzat lan egiteak bai Iparraldearen bai Hegoaldearen solidaritatea eskatzen ditu. Gogoa borondatea eboluzionaraztea da eta bizi garen mundu hau hobetzea, baita gizartearen osagai bakoitzaren jokaerak eta balioak hobetzea ere, "elkarrekin bizi izateaz" jabetu gaitezen.<br>CIDEMen webgunea oso-osorik dedikatuta dago hiritartasunari eta giza ekintzapideei. Halere, gizabideari buruzko dokumentazio ugari eta askotarikoa proposatzen ditu. Bideratutako kanpainetan heziketarako eta informaziorako lagungarri izan nahi du web orrialdeak, bertan kokatutako mikroguneen bitartez.<br>Gainera, CIDEMek tresna pedagogikoak ere garatzen ditu hezitzaileentzat eta irakasleentzat sentsibilizazio kanpainen bidez. |
| Harremanetarako helbidea | cidem@cidem.og |
| Esteka interesgarria | www.cidem.org |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Enciclopédia digital dos direitos humanos |
| Egilea | DHnet. Rede direitos humanos e cultura |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | DHnet - Rede de Direitos Humanos & Cultura giza baliabideen aldeko ekintzaile brasildarren taldeak sortu zuen. 1994. urtean, hain zuzen ere, giza eskubideei eta errealitate birtualari buruzko ikerketak egiten hasi ziren. Honako gai hauek jorratzen ditu sareak: giza eskubideak, ziberhiritartasuna, oroimen historikoa, hezkuntza zein giza eskubideak eta artea zein kultura. Bere web orrialdean, zenbait baliabide daude eskuragarri, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskoletan giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza eta demokraziarako hezkuntza lantzeko. |
| Harremanetarako helbidea | DHnet - Rede Direitos Humanos & Cultura<br>Rua Vigário Bartolomeu, 635 sala 601<br>Caixa Postal 593 Centro CEP 59022-970<br>CEP 59015-001 Natal-RN (Brasil)<br>dhnet@dhnet.org.br |
| Esteka interesgarria | www.dhnet.org.br |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Equipo Nizkor |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Nizkor Taldea giza eskubideen aldeko erakundea da, eta arlo hauetan lan egiten du:<br>• Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbidea eta Zuzenbide Humanitarioa.<br>• Giza Eskubideei buruzko dokumentuen digitalizazioa eta Internet bidezko zabalkundea.<br>• Nazioarteko informazio sarea, gaztelaniaz eta ingelesez.<br>• Premiazko Elkartasun sarea, egoera kritikoei eta giza eskubideen urratzeei buruzkoa, gaztelaniaz eta ingelesez.<br>• Eskubide zibilak eta teknologia berriak.<br>• Nazioarteko Zuzenbidea eta eskubide ekonomiko zein sozialak.<br>Web orrialdeak Giza Eskubideekin loturiko dokumentazio eta informazio ugari eskaintzen du, gaika eta herrialdeka antolaturik. Beste atal aipagarri batzuk hauek dira: albisteak, formatu elektronikoko argitalpenez osaturiko on line liburutegia, posta zerrendak, prentsa eta estekak. |
| Harremanetarako helbidea | Equipo Nizkor<br>Apartado de Correos 156037 • 28080 Madrid<br>nizcor@derechos.org |
| Esteka interesgarria | www.derechos.org/nizkor |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Federación Internacional de Derechos Humanos |
| Hizkuntza | Gaztelania, frantsesa, ingelesa, arabiera |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | 1922an sortua, FIDHek gaur egun ia 100 herrialdetan 116 antolakuntza biltzen ditu. FIDHak haien jarduerak koordinatu eta laguntzen ditu, nazioarte mailan lankidetza eskainiz. Osagai dituen antolakuntzak bezala, FIDH apolitikoa, akonfesionala eta edozein gobernutatik independentea da.<br>FIDHek biktimen babesaren arloan, giza eskubideen zapalketaren prebentzioarenean eta halako egoeren erantzukizuna dutenen zigor judizialean hobekuntza zehatzak lortzeko xedez lan egiten du. FIDHen bokazioa jarduera zehatzak gauzatzean datza, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean bildutako eskubide guztiak errespetatzearen aldekoak, bai eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak zein kulturalak.<br>Web orrialdean albisteak, txostenak, komunikatuak, premiazko deialdiak eta herrialdeka, gai orokorka eta antolakuntza intergubernamentalka antolatutako informazioa biltzen dira. |
| Esteka interesgarria | www.fidh.org/_noticias.php3 |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Hezkuntzaren aldeko Gizarte Foro Iberikoa |
| Hizkuntza | Asturiera, gaztelania, katalana, euskara, galegoa eta portugesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Munduko Gizarte Foroaren eta Munduko Hezkuntza Foroaren esparruan, hainbat eta hainbat erakundek aldez aurretiko eztabaidan eta estatu espainoleko zein Portugalgo herrien eta nazioen Hezkuntzaren aldeko Gizarte Foro Iberikoan (*) parte hartzeko gonbitea egiten dute. Izan ere, foroa 2005eko urrian-azaroan egingo da, Espainiako Kordobako hirian. Hezkuntzaren merkantilizazioaren aurkako eta kalitateko hezkuntza publikorako eskubidearen demokratizazio eraginkorraren aldeko Borrokaren Munduko Sarea sendotzea da helburu nagusia.<br>Hezkuntza eskubide unibertsala eta ondasun publikoa da. Izan ere, hiritar guztiek hezkuntza berdintasunean eskuratzeko eskubidea dute, eta administrazioek eskubide hori bermatu behar dute. Herrien eta kulturen artean, hezkuntza emantzipatzailea sustatzea da helburua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko harremana bultzatzeko eta nazioetako hizkuntzak eta kulturak errespetatzeko. Hezkuntzak, hain zuzen ere, aukera-berdintasuna bermatu behar du, gizarte-desberdintasunak konpentsatu behar ditu eta arrazakeriaren, sexismoaren eta gizarte-bazterketaren aurkako antidotoa izan behar da. Herri eta nazio guztiek (foroa garatzen den eremu geografikokoek ere bai) euren hezkuntza-sistema eratzeko, euren curriculuma sortzeko eta irakaskuntza bertako hizkuntzan emateko eskubidea dute.<br>Foroa proposamenak egiteko eta indarrak bateratzeko eremua da, guztiontzako kalitateko hezkuntza publiko eta laikoaren alde borrokatzen jarraitzeko.<br>(*) Estatu espainoleko eta Portugalgo erakundeekin 2005eko urtarrilaren 13an Madrilen egindako bileran adostutako izena. |
| Harremanetarako helbidea | organización@fsipe.org |
| Esteka interesgarria | www.fsipe.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Human Rights Watch |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa eta beste bat |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Human Rights Watch-ek etengabe egiten ditu giza eskubideen urraketei buruzko ikerketak, mundu zabaleko hirurogeita hamarretik gora herrialdetan. Hori dela eta, funtsezko informazio-iturria da giza eskubideetan interesa duten pertsona eta erakundeentzat. Edozein joera politikotako edo izaera etnikotako edo orientazio erlijiosotako gobernuek giza eskubideen arloan garatutako jarduerak aztertzen dituzte.<br>Nazioarteko zuzenbide humanitariora jotzen dute, barruko edo nazioarteko gatazka armatuetako alderdien jokabidea ebaluatzeko. Human Rights Watch-ek ideia eta adierazpen askatasuna, behar den moduko prozesua eta legearen aurrean izan beharreko berdintasuna defendatzen ditu; gizarte zibil sendoaren garapena sustatzen du; hilketak, desagerpenak, torturak, espetxeraketa arbitrarioak, berezikeria eta giza eskubideen beste urraketa batzuk dokumentatu eta salatu egiten ditu. Larregikeriak prebenitzea eta, larregikeriak egindakoan, gobernuak euren erantzukizuna onartzera behartzea du helburu. |
| Harremanetarako helbidea | Human Rights Watch<br>350 Fifth Avenue, 34th floor • NY 10118-3299 • 4700 New York<br>☎ 1 212 290 4700 ☎ 1 212 736 1300 • hrwnyc@hrw.org |
| Esteka interesgarria | www.hrw.org/spanish |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Minority Rights Group International |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Minority Rights Group International-ek (Gutxiengoen Eskubideen aldeko Nazioarteko Taldeak) mundu zabaleko herri indigenetako gutxiengo etniko, erlijioso eta linguistikoen eskubideak bermatzea du helburu. Erkidegoen arteko lankidetza eta ulermena sustatzen ditu. Onartu egiten du zenbait erkidegotako kideak adinaren, gizarte-mailaren, elbarritasunaren edo genero-harremanen ondorioz baztertu ditzaketela. Duela 30 urtetik hona, nagusi ez diren erkidego erlijioso, linguistiko eta etnikoen alde lan egiten du. Gutxiengoei eta herri indigenei entzuten die, tratu paternalista ekiditeko. 130 bazkide ditu 60 herrialdetan. |
| Harremanetarako helbidea | Minority Rights Group International<br>54 Commercial Street • London E1 6LT (United Kingdom)<br>☎ 44 (0)20 7422 4200 • minority.rights@mrgmail.org |
| Esteka interesgarria | www.minorityrights.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Análisis de la realidad local. Técnicas y métodos de investigación desde la Animación Sociocultural |
| Egilea | Escudero, J. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Narcea |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-277-1468-8 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
|  Laburpena | Arlo soziokulturalean esku-hartzeko proiektuek oinarri sendoa ezezik garatuko direneko inguru lokala etengabe aztertzea ere eskatzen dute. Animazio soziokulturalaren markoak berezkoak ditu batetik profesionalaren edo boluntarioaren konpromisoa herritarrekiko eta, bestetik, metodologia aktibo eta parte-hartzekoez baliatzea. Liburu honetan hainbat iradokizun praktiko eta tekniko sortzaile jaso dira, ingurua aztertzeko erabil daitezkeenak eta, horrela, komunitatearen premietara hobeto egokitutako proiektuak garatzea ahalbidetuko dutenak. |
| Harremanetarako helbidea | Narcea S.A. de ediciones<br>Avenida Dr. Federico Rubio y Galí, 9 • 28039 Madrid |
| Esteka interesgarria | www.narceaediciones.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | "Escuela Libre" Colectivo de Educación Crítica |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
|   Laburpena | "Escuela Libre" Hezkuntza Kritikorako Kolektiboaren helburua da pedagogia berritzea oinarri kritikoetatik abiatuz, "askatasun sozialean eta askatasun sozialerako". Escuela Libre Kolektiboa ez dago irakasleez bakarrik osaturik, eta ezta ere talde profesional horretara bakarrik zuzendurik; hezkuntzaren esparruan lan egitea proposatzen du, gizabanakoari askatasun eta berdintasun baldintzetan garatzea ahalbidetuko dion gizarte eraldaketako proiektu zabal baten barruan. Hortaz, hezkuntza ekintzarako funtsezko eremua izango litzateke, beti ere eraldaketa prozesu zabal eta sakonago baten barruan. Prozesu horrek gizarteko gainerako esparruak ere hartzen ditu bere baitan, eta bere ardatz nagusiak askatasuna eta berdintasuna dira.<br>Kolektiboak lortu nahi duen hezkuntza da:<br>• Librea.<br>• Kritikoa.<br>• Integrala.<br>• Berdinzalea.<br>• Eraldatzailea. |
| Harremanetarako helbidea | escuelalibre@escuelalibre.org |
| Esteka interesgarria | www.escuelalibre.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | EdPAC - Educació per l'acció crítica |
| Hizkuntza | Katalana, euskara, galegoa eta gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Ekimen kritikoa izateko Heziketa (EdPAC) irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta 2003. urteko urtarrilean sortu zuten zenbait arlotako gizarte-partaidetzarekin zerikusia zuten pertsonek. Bartzelonako lurraldean sortutako hasierako gunetik, partaidetzan oinarritutako sareko ekintza-lana proposatzen du. Horrela, bada, beste globalizazioko beste ekimen bat da. Bertan, toki-ekintza (aurrez aurrekoa) eta erkidego-ekintza uztartzen dira.<br>Helburuak:<br>• Pentsaera eta ekintza kritikoa sustatzea.<br>• Gizarte-eragileei behar besteko baliabideak eskaintzea, gaur egungo gizartearen aurrean jarrera kritikoa lantzeko eta aukera bideragarriak bilatzeko.<br>• Inplikazioa eta partaidetza bultzatzea egunerokotasunean oinarritutako ekintza eraldatzailean.<br>• Egiten denaren eta pertsonetan zein ingurunean daukan eraginaren inguruko kontzientzia sustatzea.<br>• Hezkuntzako materialak egitea eta hedatzea.<br>• Komunikabideen eta publizitatearen manipulazioaren inguruko kontzientzia sustatzea.<br>• Kontsumo arduratsu, ekologiko eta iraunkorretan oinarritutako bizimoduak bultzatzea.<br>EdPACek software askea eta copyleft lizentzia erabiltzen ditu. |
| Harremanetarako helbidea | EdPAC - Educació per l'acció crítica<br>Balmes, 64 • 08150 Parets del Vallès - Barcelona<br>( 34 935 620 909 • info@edpac.org |
| Esteka interesgarria | www.edpac.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Éducation et Formation |
| Egilea | Europako Batzordea |
| Hizkuntza | Frantsesa, ingelesa, alemana |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Hezkuntza eta prestakuntzari buruzko Europako Batzordearen web orrialdea. Bertan erakunde horren dokumentu guztiak eskura daitezke: ildo politikoei buruzkoak, egoera analisiak, estatistikak edo Europar Batasuneko proiektuei laguntzeko deialdiak.<br>Hauek dira web orrialdearen atal nagusiak:<br>• Azkeneko albisteak.<br>• Gaurkotasuna.<br>• Programak eta ekimenak (erasmus, comenius, leonardo, lingua, minerva, e-learning...).<br>• Ekintza esparruak (hezkuntza, prestakuntza, teknologia berriak, lankidetza...).<br>• Dokumentazioa (dokumentu ofizialak, txostenak eta ikerketak).<br>• Hezkuntza eta prestakuntza 2010. |
| Harremanetarako helbidea | eac-info@cec.eu.int |
| Esteka interesgarria | www.europa.eu.int/comm/education/index_fr.html |

| | |
|---|---|
| Izenburua | EDUSO – El portal de la Educación Social |
| Egilea | ASEDES - Gizarte Hezkuntzaren Estatuko Elkartea |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Eduso.net Gizarte Hezkuntzaren Estatuko Elkarteak (ASEDES) kudeatutako gizarte hezkuntzako kolektiboen zerbitzua da. Bere helburua da Gizarte Hezkuntzarekin loturiko pertsona zein erakundeei topaketa, eztabaida, laguntza, dinamizazio eta gogoetarako gune bat eskaintzea. Web orrialdeak Gizarte Hezitzaileen Elkarte eta Elkargo Profesionalen zerbitzu propioak eskaintzen ditu, eta baita ere elkarreraginerako eta Gizarte Hezkuntza bultzatzeko zerbitzu orokor publikoak.<br><br>Eduso.net oso atari osatua da, eta gaikako direktorio baten bidez antolatutako informazio ugari eskaintzen du. Enpleguari buruzko atala azpimarratzeko modukoa da –eskaintzak, eskariak, deialdiak-, eta orientabidea ematen duena ere bai. Erabiltzaileek parte hartzeko hainbat gune dituzte. Beste atal batzuetan honako hau aurkituko dugu: elkartasun kanpainei buruzko informazioa, esperientzien aurkezpena eta trukea, hezkuntza baliabideak, aldizkari espezializatuak...<br><br>Bestalde, "Bitakora" izeneko atala oso interesgarria da. Bertan gizarte hezkuntzarekin loturiko gaiei buruzko iritzi artikuluak daude, alderdi guztiak jorratzen dituztenak. Hezkuntzari, kudeaketa ereduei eta emaitzei buruzko gogoeta teorikoa egiteko tokia da. Bitakoran artikulu originalak, adituen biltzarretan hartutako oharrak, aipuen iruzkinak edo laburpenak sar daitezke, beti ere iturria aipatzen bada. |
| Harremanetarako helbidea | ASEDES - Asociación Estatal de Educación Social. Área de Comunicación<br>Periodista Nicolás Ortega Pagán, 2, entresuelo d-derecha • 30003 Murcia<br>eduso@eduso.net |
| Esteka interesgarria | www.eduso.net |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Ecotropía - Actualidad y recursos de las Ciencias Ambientales |
| Egilea | Llebot, J.E. (zuz.); Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Ingurumen Ikasketen Zentroa |
| Argitaletxea | Rubes Editorial, S.L. /BUAko Institut de Ciència i Tecnologia Ambientals (ICTA) |
| ISBN | 1697-414X |
| Iturria | www.mma.es/educ/ceneam |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | ECOTROPÍA aldizkariak ekologia eta ingurumenarekin loturiko gai zientifikoei buruzko informazioa ematen du. Euskarri digitalean argitaratzen da, web orrialdean kontsulta daiteke eta harpidedunei Interneten bidez helarazten zaie. ECOTROPÍAren edukiak kopiatu egin daitezke, beti ere egilearen eta argitalpenaren izena aipatzen bada.<br>Sortutako eta bildutako informazioaren antolamendua eta kudeaketa dela eta, ECOTROPÍA ingurumenaren alorreko gaietan espezializatutako atari zientifikoa da (edo atari bertikala). Bertan, erabiltzaileek informazioa eta albisteak aurkituko dituzte.<br>ECOTROPÍA aldizkari baten egitura duen argitalpen digitala da. Azkeneko albisteak (testuak nagusi dira), artikuluak eta ingurumenari buruzko datu baseak eskaintzen ditu.<br>Informazio premia ugari betetzeko asmoz sortua, ECOTROPÍA ingurumenaren alorreko profesionalei zuzendurik dago, eta batik bat hurrengoei: kazetariak, komunikazio eta dibulgazio zientifikoan adituak diren pertsonak, ingurumenaren sektoreko enpresa zein erakundeak, ekologia, iraunkortasuna eta environmentalismoaren alorrean diharduten ikertzaile nahiz adituak, eta diziplina horietako irakasleak. |
| Harremanetarako helbidea | Rubes Editorial, SL<br>Sicilia, 236 bis, 2 - 2 • 08013 Barcelona<br>✆ 34 932 311 200 ✆ 34 932 311 201 |
| Esteka interesgarria | www.ecotropia.com |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Medio Ambiente para los europeos |
| Iturria | www.mma.es/educ/ceneam |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta italiera |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Hiru hilean behin, Europar Batasuneko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak "Medio Ambiente para los europeos" aldizkaria argitaratzen du. Aldizkaria gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz dago eskuragarri eta doakoa da. Behean azaltzen den web orrialdean paperezko bertsiora harpidetu daiteke, eta bertsio elektronikoa eskuratu ere bai, pdf formatuan. |
| Harremanetarako helbidea | stavros.dimas@cec.eu.int |
| Esteka interesgarria | www.europa.eu.int/comm/environment/news/efe/index.htm |

| | |
|---|---|
| Izenburua | World Watch. La informacion vital del planeta |
| Egilea | Gaia Proyecto 2050; CCOO eta ACSUR-Las Segovias (lank.) |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Gaia Proyecto 2050 |
| ISBN | 1136-8586 |
| Hizkuntza | Gaztelania, ingelesa |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | World Watch Worldwatch Institute-ko hiruhilabetekaria da, eta, batez ere, ekologiako, garapen iraunkorreko, elikaduraren subiranotasuneko... gaiak jorratzen ditu. Horrez gain, gaztelaniazko edizioan, "Hacia el Sur. Cuaderno de ACSUR-Las Segovias" izenburupeko koaderno nagusia argitaratzen du, eta honako gai hauek lantzen ditu bertan: garapenerako lankidetza, garapenerako hezkuntza eta iparraldea-hegoaldea harremanak, baina hegoaldearen begiradatik. |
| Harremanetarako helbidea | Gaia proyecto 2050<br>Gobernador, 3 - 3º • 28014 Madrid<br>worldwatch@nodo50.org |
| Esteka interesgarria | www.nodo50.org/worldwatch |



| | |
|---|---|
| Izenburua | CENEAM - Centro Nacional de Educación Ambiental |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Baliabide zentroa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Ingurumen Hezkuntzarako Zentro Nazionalaren (CENEAM) helburu nagusia herritarrak ingurumenarekiko kontzientziatzea da, Ingurumen Hezkuntzaren bidez.<br>CENEAMek ingurumen hezkuntzan espezializatutako hainbat lan ildo ditu: ingurumen dokumentaziorako zentroa, ingurumen hezkuntza eta interpretazioko programak, prestakuntza programa, mintegi iraunkorrak, erakusketak, argitalpenak, ikasmaterialak eta material dibulgatzaileak, eta irakasleei, ikasleei eta gaia interesatzen zaion edozeini zuzendutako beste baliabide batzuk. |
| Harremanetarako helbidea | Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala<br>Paseo José María Ruiz Dana s/n • 40109 Valsaín - Segovia<br>34 921 471 711 34 921 471 746 • ceneam@oapn.mma.es |
| Esteka interesgarria | www.mma.es/educ/ceneam |



**Izenburua:** Centro de Recursos Virtual de Educaçao Ambiental
**Egilea:** ASPEA
**Hizkuntza:** Portugesa
**Baliabide mota:** Baliabide zentroa
**Hartzaileak:** Hezitzaileak



**Laburpena:** Aspea irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta Ingurumen Hezkuntza hezkuntza formalaren nahiz ez formalaren esparruan garatzea du helburu. Bere web orrialdean Centro de Recursos Virtual de Educaçao Ambiental delakoa aurkituko dugu; bertan irakasleei eta ikasleei zuzendutako hainbat ikasmaterial eskura daitezke.

**Harremanetarako helbidea:** Centro Associativo do Calhau - Parque Florestal de Minsanto
Apartado de Correos 4021 • 1500-001 Lisboa (Portugal)
351 217 724 827 351 217 724 828 • aspea@aspea.org

**Esteka interesgarria:** www.aspea.org

**Izenburua:** CRAN - Centro de Recursos Ambientales de Navarra
**Egilea:** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Saila; Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A.; Navarra de Medio Ambiente Industrial S.A.
**Iturria:** www.mma.es/educ/ceneam
**Hizkuntza:** Gaztelania
**Baliabide mota:** Baliabide zentroa
**Hartzaileak:** Hezitzaileak



**Laburpena:** Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroaren web orrialdeak zerbitzu eta jarduera hauek eskaintzen ditu:

- Ingurumenari buruzko informazioa eta dokumentazioa.
- Teknologia garbiei eta erakusketei buruzko informazioa.
- Prestakuntza programen kudeaketa eta aholkularitza.
- Gizartea eta ingurumenari buruzko ikerketen sustapena eta zabalkundea.
- Ingurumen Hezkuntzarako Nafarroako Estrategiaren bidez bultzaturiko sare sozialen dinamizazioa.
- Ura, airea, lurzorua, energia, biodibertsitatea eta hondakinei buruzko hezkuntza eta gizarte neurrien programa espezifikoen garapena (jardunbide egokiak).
- Ingurumen boluntarioen sustapena.
- Toki entitateetan, lantokietan, enpresetan, herritarren elkarteetan, ikastetxeetan, unibertsitateetan etab. ingurumen eta gizarte ekimenak burutzeko aholkuak.

Ekimen horien artean "Energiak Batuz" Foroa nabarmendu behar da. Ekimenak Nafarroako gizartearen energia kultura aldatzea du helburu, energia aurrezteko eta energia kontsumo eraginkorragoa lortzeko, gizarteko sektore guztien partaidetzaren bidez. Dokumentuen eta jardueren atalek Foroari buruzko informazio ugari eskaintzen dute.

Horrez gain, CRANek RedENEA buletin elektronikoa kaleratzen du. Bere helburua da Ingurumen Hezkuntzarako Nafarroako Estrategiaren barruan dauden erakundeei zein gainerakoei ingurumen hezkuntzarekin loturiko albisteak ematea, eta baita ere programak, deial-

| | |
|---|---|
| | diak, ikastaroak zein esperientzia interesgarriak jakinaraztea. Buletina posta elektronikoz jaso daiteke, harpidetu ondoren. |
| Harremanetarako helbidea | Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa<br>Padre Adóain, 217 etxabea • 31015 Iruñea<br>34 948 140 818 34 948 123 235 • crana@crana.org |
| Esteka interesgarria | www.crana.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Educação Ambiental. Guia anotado de recursos |
| Egilea | Lopes, G. - IIE (Instituto de Inovaçao Educacional) |
| Edizioaren lekua | Lisboa |
| Argitaletxea | IIE / DEB / DES / CCPES |
| Urtea | 2001 |
| ISBN | 972-783-056-0 |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Baliabideen gida hau ingurumen-arloko hezkuntzarako tresna lagungarria da, eta era guztietako euskarrietan sortutako bitartekoak antzematen ditu, ezagutzak sakon aztertzeko, ingurumen-arloko hezkuntzaren jardun pedagogikorako oinarriak eskuratzeko eta diziplinazko edukiak osatzeko.<br>Laburbilduta, gidak irakasleen lana erraztu nahi du, ingurumen-arloko hezkuntzako proiektuak sortzeko, prestatzeko eta garatzeko orduan. |
| Harremanetarako helbidea | Ministerio de Educaçao<br>Av. 24 de Julho, 140 • 1399 - 025 Lisboa (Portugal)<br>351 213 934 500 351 213 934 695 • dgidc@dgidc.min-edu.pt |
| Esteka interesgarria | www.iie.min-edu.pt |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Guía de recursos para la Educación Ambiental |
| Egilea | González de la Campa, M. (koord.) |
| Edizioaren lekua | Segovia |
| Argitaletxea | CENEAM |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 311-04-102-9 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Baliabideen gidak profesionalei eta erabiltzaileei Hona hemen gai-multzoak:<br>• Nor da nor? Ingurumen-arloko hezkuntzan diharduten erakundeei buruzko direktorioa (administrazio publikoak, gobernuz kanpoko erakundeak eta enpresak).<br>• Ekipamenduak. Natura-gelei, baserri-eskolei, interpretazio-zentroei... buruzko informazioa. Besteak beste, honako hauei buruzko datuak eskaintzen dira: kokapena, azpiegitura, programak eta edukiak. |



- Materialak. Espainian ingurumen-arloko hezkuntzari buruz argitaratutako bibliografia, agiriak, bideoak, multimedia... Batzuetan, materialaren laburpentxoa jaso da; eta beste batzuetan, testu osoa.

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | CENEAM - Centro Nacional de Educación Ambiental<br>Paseo José María Ruiz-Dana s/n • 40109 Valsaín - Segovia<br>✆ 34 921 471 711 • info.ceneam@oapn.mma.es |
| Esteka interesgarria | www.mma.es/ceneam |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Con la comida no se juega. Alternativas autogestionarias a la globalización capitalista desde la agroecología y el consumo |
| Egilea | López Garcia, D. eta López López, J. A. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Traficantes de sueños |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-932982-7-1 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Argitalpen honek nekazaritza ekologikoa eta kontsumoa ditu hizpide nagusi, eta, diziplina arteko ikuspegi integraletik, ez dira nekazaritza industrialeko larregizko jarduera zehatzak kontrolatzeko edo kudeatzeko arazotzat hartzen, gizarte-bizimoduko arlo guztietara iristen den egiturazko ordenatzat baizik: sistema ekonomikoa, hiri-ereduak... Horrela, bada, liburuak alderdi horiek aztertzen ditu, eta autokudeaketarako zenbait aukera erakusten dizkigu, nekazaritza ekologikoan eta kontsumoan oinarrituta. Horra hor BAH aukera (Asfaltoaren azpian dago baratzea) eta nola erantzun nahi dion harreman ekonomiko eta sozialen egitura bidegabe horri, nekazaritza ekologikoko eta kontsumoko talde-esperientzian oinarrituta. |
| Harremanetarako helbidea | danielote@hotmail.com • jall18m@hotmail.com • traficantes@traficantes.net |
| Esteka interesgarria | traficantes.net |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Ecoeduca – El portal de Educación Ambiental de América Latina |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Ecoeduca.cl irakasleei, ikasleei eta erabiltzaile guztiei zuzenduta dagoen gaztelaniazko Ingurumen Hezkuntzako Ataria da. Bere helburu nagusia Ingurumen Hezkuntza indartzea da, ingurumena, hezkuntza eta teknologia uztartzen dituen tresna birtual baten bidez, besteak beste hezkuntza baliabideen bilaketa errazteko.<br>Ecoeduca.cl atariak zera ahalbidetzen du:<br>• Gaika antolatutako ingurumenari buruzko beste web orrialde batzuetara sartzea.<br>• Jarduerak, aholkuak eta hezkuntzarekin loturiko albisteak bilatzea. |



- Ingurumen Hezkuntzaren alorrean diharduten edo gai horretan interesatutako pertsonekin esperientziak trukatzea eta elkarri eragitea.
- Fitxak, argitalpenak eta dokumentuak deskargatzea.
- Gaikako bilaketak egitea.

**Esteka interesgarria** www.ecoeduca.cl

| | |
|---|---|
| Izenburua | Ekologistak Martxan |
| Hizkuntza | Gaztelania, katalana |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Ekologistak martxan estatuko konfederazioa da, eta 300etik gora talde ekologistak bat egin zutenean sortu zen. Gizarte-ekologismoaren alde dagoenez, bere ustez ingurumeneko arazoen jatorria gero eta globalizatuago dagoen ekoizpen eta kontsumo ereduan dago, horren ondorioz beste arazo batuk ere sortzen dira eta eredu hori eraldatu egin beharra dago, krisi ekologikoa ekiditekotan.<br>Horretarako, sentsibilizazio-kanpainak, jendaurreko salaketak edo legezko salaketak egiten ditu ingurumenean eragin kaltegarria duten jarduketen aurka. Aldi berean, aukera zehatzak eta bideragarriak egiten ditu, bere jardueraren helburu den arlo bakoitzean. |
| Harremanetarako helbidea | Ekologistak martxan<br>Pilota kalea 5 • 48005 Bilbao<br>( 34 944 790 119 • bizkaia@ekologistakmartxan.org |
| Esteka interesgarria | www.ekologistakmartxan.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Ecoportal.net – El directorio ecológico y natural |
| Iturria | www.mma.es/educ/ceneam |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Ecoportal interneteko baliabide ekologikoa da, 1999. urtean Latinoamerikan sortua.<br>Ecoportal ataria hurrengo atalek osatzen dute: Transgenikoak, Berokuntza Globala, Edateko Ura, Ozono Geruza, Energia Garbiak, Zaborra-Hondakinak eta Baso Soiltzea-Desertifikazioa. Arazo bakoitza azaltzeaz gain, atariak azkeneko albisteak, gai horiekin loturiko estekak eta informazio gehiagorako sarbidea ematen du.<br>Bestalde, Ecoportal-ek zerbitzu hauek eskaintzen ditu:<br>• Doako aholkularitza, kontsultei e-mail bidez erantzuten dien aditu talde baten eskutik.<br>• "Ambiente y Sociedad" doako astekari elektronikoa. Bost kontinenteetan zehar 50.000 harpidedun baino gehiago ditu.<br>• Gizartea eta ingurumenarekin loturiko ikastaroak eskaintzen dituen Campus Birtuala. UNIDA Fundazioarekin eta Gizarte Zientzien Kontseilu Latinoamerikarrarekin (CLACSO) sinaturiko hitzarmenaren emaitza da. |

- Ingurumenarekin loturiko informazioa doan bidaltzeko zerbitzua, hainbat gairi buruzko on-line kontsultei erantzuten diena.
- Munduko Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) direktorioa.
- Interes publikoko kanpainak, ingurumena zaintzeko, eskualdeko ekosistemak babesteko, galzoriko espezieak defendatzeko eta abar.
- Ingurumenaren arloko hitz erabilienak jasotzen dituen glosario zabala, definizio ulergarriak, argiak eta zehatzak dituena.
- Ingurumenarekin loturiko gaztelaniazko 2.500 atari baino gehiagorako esteken direktorioa, kategoriaka sailkatua.
- Tokiko eta nazioarteko ingurumen legeriari buruzko laburpena.

**Harremanetarako helbidea**
Ecoportal.net
Gurruchaga 2459, 1º, departamento "D" • CP c1425fek Buenos Aires (Argentina)
webmaster@ecoportal.net

**Esteka interesgarria**
www.ecoportal.net

**Izenburua** Educacionambiental.net
**Iturria** www.mma.es/educ/ceneam
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** Hezitzaileak

**Laburpena**

Educacionambiental.net ingurumenari eta ingurumen hezkuntzari buruzko argitalpenak biltzen dituen Interneteko liburutegia da. Bertan Ingurumen Ministerioak, Sustapen Ministerioak eta Parke Nazionalen Erakunde Autonomoak egindako argitalpenak on line eska daitezke, eta baita argitaletxeek, erakundeek eta fundazioek kaleratutako beste material batzuk ere. Atariak ingurumen hezkuntza eta dibulgazioarekin loturiko edozein material aurkitzeko laguntza eskaintzen du, beste zerbitzu osagarri batzuez gain.

Argitalpenen bilaketa hainbat modutara egin daiteke:

- Argitaratzailearen arabera (Ingumen Ministerioa eta Sustapen Ministerioa, Parke Nazionalak, SEO-Birdlife, Lunwerg, Exlibris).
- Gaika (ingurumen hezkuntza eta politika, ingurumen kudeaketa, ingurumen inpaktua, natura ingurunea, gizarte ingurunea...).
- Informazio Iturrien, Giden eta Materialen arabera (DVDa, Kartografia, Gidak, Katalogoak, Aldizkariak, Dokumentazio Zentroak, Bibliografia, CD-ROMa, Bideoa, Ingurumen Enpresak, Agendak eta Egutegiak, Kartelak).
- Euskarri elektronikoaren arabera, ikus entzunezkoen atalean (Audio CDa, CD-ROMa, argazkien CD-ROMa, DVDa, diapositibak, bideoak).

**Harremanetarako helbidea**
Bioestrategia S.L.
Avenida Reina Victoria, 18 • 28003 Madrid
34 915 346 964 34 915 346 961

**Esteka interesgarria**
www.educacionambiental.net

| | |
|---|---|
| Izenburua | Greenpeace |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | *Greenpeace* antolakuntza ekologista, politiko eta ekonomiko independentea da. Ez du onartzen ez dirulaguntzarik, ez gobernu eta enpresen presiorik. Beraren helburu nagusienen artean daude ingurumenaren kontrako atentatuak salatzea eta ingurumena babesteko beren betebeharrak betetzen ez dituzten gobernu, erakunde eta enpresak presionatzea.<br>Greenpeace 40 herrialdetan baino gehiagotan dago. Ingurumena babestu eta defendatzea ditu xede, eta hainbat kanpaina gauzatzen ditu aldaketa klimatikoa gelditzeko, biodibertsitatea, basoak eta ozeanoak babesteko, transgenikoei ezetza emateko, energia nuklearraren erabilera ekiditeko eta bakea sustatzeko, besteak beste. |
| Harremanetarako helbidea | Greenpeace España<br>San Bernardo, 107 • 28015 Madrid<br>✆ 34 914 441 400 ℻ 34 914 471 598 • informacion@greenpeace.es |
| Esteka interesgarria | www.greenpeace.org/espana/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Ollie's worldwide |
| Iturria | www.global-education.asn.au |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Lehen Hezkuntza (6-12 urte) |
| Laburpena | Web orri honek ingurumen-arloko hezkuntzarako baliabideak eskaintzen ditu. Bi atal ditu: umeentzakoa eta helduentzakoa. Lehenengoan, honako kontzeptu hauek lantzen dira: murriztu, berrerabili, birziklatu eta berriro pentsatu. Bigarrenean, ordea, irakasleentzako eta hezitzaileentzako atal berezia ere badago. |
| Harremanetarako helbidea | Sustain Ability International Pty Ltd<br>P.O. Box 75 • Camberwell - 3124 Victoria (Australia)<br>info@olliesworld.com |
| Esteka interesgarria | www.ollierecycles.com.au |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Sustainable technology education project |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Web orri honek irakasleentzako zein ikasleentzako informazioa eta baliabideak eskaintzen ditu, teknologia iraunkorraren eta aukeratzen ditugun aukera teknologikoek ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen arloan duten eraginaren inguruko kontzientzia sustatzeko asmoz. Batez ere, diseinuko eta teknologiako irakasleak ditu helburu, baina beste arlo batzuetako irakasleek ere erabili dezakete. Honako hau eskaintzen du web orrialdeak: benetako arazoei emandako irtenbide praktiko eta iraunkorretan oinarritutako kasuen azterketak, ikasleentzako baliabideak, irakasleentzako orientazioak, ikasle eta irakasleentzako ariketak eta lotura duten web orrietarako estekak. |
| Esteka interesgarria | www.stepin.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Luces en el laberinto audiovisual |
| Egilea | Pérez, Mª A. (zuz.); Aguaded, J. I. eta Rodríguez, P. (koord.) |
| Edizioaren lekua | Huelva / Kordoba |
| Argitaletxea | Grupo Comunicar Ediciones / Grupo de Investigación @gora de la Universidad de Huelva |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-932380-0-7 |
| Hizkuntza | Gaztelania, portugesa |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Liburu elektroniko honetan, 2003ko urrian Huelvan (Espainian) egindako "Argiak ikus-entzunezkoen labirintoan" Komunikazio eta Hezkuntza Biltzar Iberoamerikarrean aurkeztutako lanak, azterlanak eta ikerketak jasota daude. Labirinto horretan bat egiten duten begiradak ekarpen interesgarriak dira alfabetizazio teknologikoari begira, ia-ia beti XXI. mende honetako "gizarte-hausturaren" adierazgarri den haustura digitala saihesteko.<br>Argitaratzaileei buruzko informazioa jasotzeko:<br>• www.grupo-comunicar.com • www.uhu.es/agora |
| Harremanetarako helbidea | Grupo @gora. Departamento de Educación<br>Universidad de Huelva<br>Dr. Cantero Cuadrado, 6 • 21071 Huelva<br>☎ 34 959 218 000 • agora@uhu.es |
| Esteka interesgarria | www.uhu.es/agora |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Cultura popular, industrias culturales y ciberespacio |
| Egilea | Aparici, R.; Marí, V. M. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | UNED - Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-362-4972-0 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Garai honetan, komunikazioa, sareak eta informazioaren teknologiak nagusi dira arlo ekonomiko, politiko eta kulturalean. Testuinguru horretan, lan honek balio handia du ezagutzaren arlo horretan interesa duten ikasle eta ikertzaileentzat. "Cultura popular, industrias culturales y ciberespacio" gidan, egile klasikoen testu garrantzitsuak (Theodor Adorno, Pierre Bordieu, Néstor García Canclini, Jesús Martín Barbero, Len Masterman, Luis Ramiro Beltrán) eta komunikazioko zein ziberespazioko korronte berrietako ordezkarien testuak jasota daude. Horrez gain, oinarrizko bibliografia eta iruzkindun webgrafia agertzen da atal bakoitzean, gaia sakon aztertzeko eta ikasketa-ibilbide pertsonalak eratzeko. |
| Harremanetarako helbidea | Librería UNED<br>Bravo Murillo, 38 • 28015 Madrid<br>☎ 34 913 987 560 • librería@adm.uned.es |
| Esteka interesgarria | www.uned.es |



| | |
|---|---|
| Izenburua | Alterperiodismo. Los medios de comunicación y las causas solidarias |
| Egilea | Casablancas, D. |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Intermón fundazioa |
| Urtea | 2005 |
| ISBN | 84-8452-314-4 / 84-8452-315-2 |
| Hizkuntza | Gaztelania, katalana |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Kazetaritzaren unibertsoak, erritmo bizkorrak eta boterearen presioa ezaugarri dituenak, ez dirudi eszenatokirik egokiena planetako desberdintasunen zergatiak azaltzeko informazioak biltzeko. Halere, zenbait GKE eta giza mugimenduk normalizatu egin dute kazetaritzan duten presentzia. Baina, “solidario” deitutako zein arazo integratu dira panorama komunikatiboan? Zergatik lortu dute antolakuntza batzuek euren espazio mediatikoa eta bete batzuek ez? Liburua galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatzen da. |
| Harremanetarako helbidea | Intermon Oxfam<br>Urkixo zumarkalea, 11 • 48008 Bilbao<br>info@intermonOxfam.org |
| Esteka interesgarria | www.intermonoxfam.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Dominatrix. La influencia de los medios de comunicación |
| Egilea | Steven, P. |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Intermón fundazioa |
| Urtea | 2005 |
| ISBN | 84-8452-312-8 / 84-8452-313-6 |
| Hizkuntza | Gaztelania, katalana |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Komunikabideek gaur egun inoiz baino botere handiagoa dute ideiak eta iritziak taxutzeko. Gure bizimodua zehazten dute eta ekonomia eta politika globalean eragiten dute. Baina... zeintzuk dira gaur egungo komunikabideen joerak eta zein erantzun eragiten dituzte munduan? Nola ulertzen dituzte komunikabideak demokrazia defendatzen dutenek? Horiek eta beste zenbait galdera planteatzen ditu *Dominatrix*ek, gaur egungo munduko komunikazio mediatikoaren panoramika bikaina eskainiz. |
| Harremanetarako helbidea | Intermon Oxfam<br>Urkixo zumarkalea, 11 • 48008 Bilbao<br>info@intermonOxfam.org |
| Esteka interesgarria | www.intermonoxfam.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | La ética de las ONGD y la lógica mercantil |
| Egilea | Nieto, L. (koord.) |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Icaria |
| Urtea | 2002 |
| ISBN | 84-7426-613-0 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | GGKEen eta nazioz haraindiko enpresa handien arteko muga argia desagertzen ari da, globalizazioaren ondorioz sortutako aldaketak ezartzen diren abiada berberaz. GGKE batzuk enpresen logikarantz bilakatu dira azkar baino azkarrago, eta lan egiteko modu asistentzialistagoa utzi dute albo batera, gero eta handiagoa den elkartasun-emaileen merkatuan lehiatzeko. Era berean, nazioz haraindiko enpresa handiak ere badabiltza garapen-bidean dagoen merkatu horretako txokoaren bila. Hori dela eta, merkatuko estrategia berriak sortu dituzte ("Arrazoidun marketinga" edo "Marketing soziala"), euren irudia garbitzeko eta elkartasun-pantaila sortzeko, kontsumitzaile askoren kontzientzia-aldaketaren aurrean konpromisorik sortzen ez dieten jarrerak eta ekintzak aldatu gabe. Bost saiakeraren bidez, liburuak bi erakundeen (GGKEen eta nazioz haraindiko enpresen) bilakaera azaltzen digu, mezu "solidario" batzuen atzean ezkutatzen diren interesak uzten ditu agerian eta GGKE batzuen ideologia jartzen du auzitan. |
| Harremanetarako helbidea | Paz con Dignidad<br>Gran Vía, 40 - 5º 2 • 28013 Madrid<br>✆ 34 915 233 824 • pazcondignidad@nodo50.org |
| Esteka interesgarria | www.revistapueblos.org/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | La publicidad en el Tercer Sector |
| Egilea | Benet, V. J.; Nos Aldás, E. (ed.) |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | Icaria |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-7426-680-7 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | GGKE eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | GKEen komunikazio-jarduerek eta komunikazio-moduek eragin handia dute gaur egungo gizarteak erakundeok landutako egoeren inguruan daukaten irudian eta konpromisoan. Azterlan honek egoeraren zirriborroa egiten du, komunikaziorako estrategiok berriro zehazteko eta eztabaidatzeko prozesuan daudenean. Komunikazioaren arlo horretako ezaugarriak kontuan hartuta, diziplina arteko hausnarketa egin beharra dago, euren konplexutasunean eraginkortasunez barruratu nahi izanez gero, gaur egungo kulturak onetsitako balioekin eta sinboloekin lotuta daudelako ondorioak. Helburuotan oinarrituta, liburu honek jarrera teorikoa eta kontzeptuala nahasten du ondorioak eta proposamenak argitu nahi dituzten landa-azterlanekin edo azterketa zehatzekin. |
| Harremanetarako helbidea | Icaria editorial, S.A.<br>Ausiàs Marc, 16 - 3º 2ª • 08010 Barcelona<br>✆ 34 933 011 723 ✆ 34 933 178 242 • icaria@icariaeditorial.com |
| Esteka interesgarria | www.icariaeditorial.com |

**Izenburua** ALAI - América Latina en movimiento

**Hizkuntza** Gaztelania, portugesa, ingelesa

**Baliabide mota** Web orrialdea

**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak

**Laburpena** Latinoamerikako Informazio Agentzia -ALAI- eskualde horretako garapen eta zeregin publikoan giza eskubideak, genero berdintasuna eta herritarren partaidetza bultzatzen dituen komunikazio erakundea da. Bere ekintzak komunikazioaren demokratizazioaren aldeko borrokan kokatzen dira, komunikazioa ezinbestekoa delako demokrazia eta justizia soziala lortzeko.

ALAIk honako hau eskaintzen du:

- Informazio sistematizatua.
- Lotura eta antolamenduzko garapena, koordinakunde eta erakunde sozialen arteko esperientzia, ezagutza eta estrategia trukea bultzatzeko, eta baita ere, erakunde horiek komunikatzeko eta nazioarteko agertokietan esku hartzeko duten gaitasuna indartzeko.
- Komunikaziorako eskubidea aldarrikatzea: jendea sentsibilizatzeko ekintzak, proposamenak, erabaki espazioetan parte hartzea. ALAIk garrantzia berezia ematen dio genero ikuspegiari eta sare alternatiboen garapenari. Ildo horretatik, ALAIk antzerako erakundeekin adostutako ekimenak bultzatzen ditu.
- Emakumeen Arloa. Emakumeen mugimenduen nahiz sareen antolamendua eta proposamenak indartzen ditu, beren komunikazio prozesuak garatuz.
- Programa sektorialak: egungo dinamika sozialean duten garrantzia dela eta, ALAIK arreta berezia eskaintzen die giza eskubideei, nekazarien erakundeei eta herri indigena zein gutxiengo etnikoei, jorratzen dituen arlo guztietan.

**Harremanetarako helbidea**
ALAI
Casilla 17-12-877
Av. 12 Octubre, 18-24, Of. 503 • Quito (Ecuador)
593 2 250 50 74 • 593 2 222 15 70 • 593 2 250 50 73 • info@alainet.org

**Esteka interesgarria** www.alainet.org/

**Izenburua** Diagonal. Periódico quincenal de información crítica

**Hizkuntza** Gaztelania

**Baliabide mota** Web orrialdea

**Hartzaileak** Jendea oro har

**Laburpena** Diagonal gaurkotasun albisteak, eztabaida, ikerketa eta analisia uztartzen dituen egunkaria da, Madrildik hamabost egunean behin kaleratzen dena, munduko hainbat tokitako pertsonen partaidetzari esker. Egungo ordena aldatzeko borrokan diharduten gizarte mugimenduetatik jaioa eta haiek bultzatua, komunikazio alternatiba serioa eta kalitatezkoa da Diagonal, gizartean zabalkunde handia izan nahi duena.

**Harremanetarako helbidea** info@diagonalperiodico.net

**Esteka interesgarria** www.diagonalperiodico.net

| | |
|---|---|
| Izenburua | Indymedia. Euskal Herria |
| Hizkuntza | Euskara, gaztelania eta frantsesa |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Indymedia sarea Seattle-eko matxinadaren ondorioz sortu zen, globalizazioaren aurkako mugimenduaren funtsezko zati gisa. Hedabideetako ekintzaile ehunka batzuk, hacker-ekin eta software librea garatzen ziharduten pertsonekin batera –batzuek urteak zeramatzaten komunikazio alternatiba aktibo eta independenteak garatzen-, Seattle-en elkartu ziren azaroaren amaieran Hedabide Independenteen Zentroa sortzeko eta MMA/WTOaren aurkako protesten berri emateko. Web orrialde honek ia milioi eta erdi bisitari izan zituen Seattle-eko gailurraren kontrako protesten egunetan; eta globalizazioaren bihotzean bertan, bere komunikabide nagusian , "beste" komunikazio bat defendatzen zuen sare bat sortzen lagundu zuen. Gaur egun, sareak ehun nodo baino gehiago ditu bost kontinenteetan zehar banatuta. |
| Harremanetarako helbidea | general@indymedia.org |
| Esteka interesgarria | www.euskalherria.indymedia.org |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Observatorio de Corporaciones Transnacionales |
| Egilea | IDEAS eta ECO-JUSTO |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | Jendea oro har |
| Laburpena | Konpromiso sozialaren eta marketingaren arteko marra lausoa argitu egin behar dela jakinda, Nazioz haraindiko Korporazioen Behatokia sortzen da enpresen gizarte-erantzukizunaren inguruan. Gizarte eta ingurumen arloko erantzukizunaren irizpideetara atxikita, enpresa batzuek egiaztatu egin dute aldaketak egin daitezkeela. Zoritxarrez, azterketen arabera, kasu askotan larregizko marketinga eta merkataritza ezkutatzen dira ustezko gizarte-erantzukizunean. Gai horri buruzko ikerketa ugari egin dituzte. Nolanahi ere, estatu espainolean horri buruzko informazio gutxi eta kalitate eskasekoa dago gaztelaniaz. Sarritan, antolatu edo eguneratu gabeko informazioa da, eta, kasu askotan, ez dago erkatuta. Beste batzuetan, ordea, dimentsio edo erabilgarritasun eskasekoa da. Laburbilduta, beharrezko informazioa ez da erraz eskuratzen. IDEAS eta ECO-JUSTO, Behatokiarekin batera, gai horri buruzko ikerketak egiten dituzten erakundeak dira. |
| Harremanetarako helbidea | IDEAS eta ECO-JUSTO<br>Amargacena Pol. • Avda. Amargacena, Parc. 9 - Nave 7 • 14013 Córdoba<br>( 34 957 428 090 • observatorio@ideas.coop |
| Esteka interesgarria | www.ideas.coop/html/OCTinicio.htm |

**Izenburua** RedconVoz
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

**Laburpena**

Komunikabideen mundua demokratikotasuna galtzen doa, gero eta gehiago. Komunikabideak esku gutxitan biltzen dira, beraietan askok hitz egiten du, baina ahots gutxi entzuten da. Albisteek informazioa eskaini barik, entzulea distraitu egiten dute; argitu beharrean, nahastu egiten dute; parte-hartze demokratikoa erraztu beharrean, isolatu eta desintegratu egiten dute. Komunikabide gehienek “lo-belarraren efektua” eragiten dute hiritarrengan eta parte-hartze demokratikorako duten gaitasunean. Komunikabideen ugaritasunak ez du handitu hiritarren ezagutza eta informazio maila; aitzitik, arlo sozial eta politikoarekiko interesik eza orokortu du. Agenda informatiboa komunikabideen boterea dutenen interes ekonomiko eta politikoen arabera egituratzen da.

Egoera horri aurre egiteko sortu da ConVoz informazio-sarea. Hauek dira beraren ezaugarriak:

- Irrati-komunikazio komunitarioan informazioa demokratizatzeko espazioa.
- Gizarte zibil antolatuan informazioa trukatzeko espazioa: haien proposamenak, salaketak, hausnarketak, jarduerak eta abar.
- Irrati komunitarioen mugimenduak aktore sozial gisa duen eginbeharra sendotzeko proposamena, eta jendarteko iritzian aldaketarako agente gisa duen eragina indartzea. Gizarte zibil antolatuak eraikitzen dituen prozesuei laguntzea, gizarte demokratikoago eta solidarioagoaren eraikuntzatik sortutako gaiak agenda publikora ekarriz.

ConVoz sareak informazio demokratikoaren aldeko apustua egin du, albisteen beste era bateko kontzeptuaren aldekoa: albisteek informatu egin behar dute –gizartearen ikuspegi erreala eskainiz–; azaldu –gertatzen denaren prozesuak, kausak eta ondorioak–; hegoaldeari entzun behar diote –hegoaldeari buruz nagusitzen den informazioari ikuspegi alternatiboa eskaini behar dio, haren kosmoikuspegi etnozentrikoa, kolonizatzailea eta erredukzionista bideratzen baititu–.

ConVoz sare informatiboa Centro Comunicación y Democraciaren ekintzapidea da. Antolakuntza horrek 1998tik dihardu lanean eta beraren helburu nagusiak komunikabide komunitarioen garapena eta komunikazioaren demokratizazioa dira.

**Harremanetarako helbidea**

Centro Comunicación y Democracia
Puerto del Milagro, 6 posterior • 28018 Madrid
34 913 806 530 • cyd@redconvoz.org

**Esteka interesgarria** www.redconvoz.org

| | |
|---|---|
| Izenburua | Opcions. Información para el consumo responsable |
| Egilea | CRIC - Centre de Ricerca i Informació en Consum |
| Edizioaren lekua | Bartzelona |
| Argitaletxea | CRIC - Centre de Ricerca i Informació en Consum |
| ISBN | 1579-9395 |
| Hizkuntza | Katalana, gaztelania |
| Baliabide mota | Aldizkaria |
| Hartzaileak | Jendea oro har |



Laburpena

Opcions kontsumo arduratsuaren aldizkaria da, eta katalanez zein gaztelaniaz argitaratzen da. Ale bakoitzean, produktu eta/edo zerbitzu baten azterketa sakona egiten da. Zenbait atal ditu (denak ez dira ale guztietan agertzen), eta hiru artikulu-mota eskaintzen dituzte:

- Praktikoak (aukerak, ideiak, tresnak): eguneroko kontsumoan erabili daitezkeen informazioak.
- Prestakuntzakoak (zergatiak, argudioak, aukerak, iruzurrak, loturak): gure mundua nola dabilen eta zentzuzko kontsumoa (kontsumo arduratsua) nolakoa den hobeto ulertzeko.
- Hausnarketa eta eztabaidakoak (aukerak, begiradak, bidaiak): oso ezagunak ez diren iritziak, errealitateak, gure bizimoduari buruzko hausnarketa aberasteko.

Harremanetarako helbidea

Revista Opcions
Ausiàs March, 16 - 3er 2a • 08010 Barcelona
✆ 34 934 127 594 ✆ 34 933 178 242 • cric@pangea.org

Esteka interesgarria: cric.pangea.org/cast/contenidos.html

| | |
|---|---|
| Izenburua | Fabricado en... Guía de recursos y actividades sobre consumo responsable |
| Egilea | Antolin, L. (koord.); Garcia, C. eta Real, L. |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | ACSUR-Las Segovias |
| Urtea | 1999 |
| ISBN | 84-95039-05-2 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |



Laburpena

Fabricado en... gazteentzako baliabideen eta jardueren gida da. Jokabide kooperatiboak sustatzea eta iparraldearen zein hegoaldearen arteko bidezko truke solidarioen garapena bultzatzea du helburu nagusi. Horretarako, kontsumitzaileak kontsumo kritiko bezain arduratsuaren inguruan hezteko eta prestatzeko prozesua jartzen du abian. Gida honetako jarduerek, hain zuzen ere, Espainiako eta mundu zabaleko langileen bizi-baldintzak eta lan-baldintzak aztertzea dute helburu, egunero erabiltzen ditugun produktuak abiapuntutzat hartuta. Gida honetan aurkeztutako baliabideak eta jarduerak Irlandako DEFY sareak (Development Education For Youth-ek) "Off your trolley. The great supermarket challenge" izenburupean egindako karpeta didaktikotik itzuli eta egokitu egin dira.

Harremanetarako helbidea

ACSUR-Las Segovias
Cedaceros, 9 - 3º izq. • 28014 Madrid
✆ 34 914 291 661 • acsur@acsur.org

Esteka interesgarria: www.acsur.org

Izenburua — Coordinadora estatal de Comercio Justo
Hizkuntza — Gaztelania
Baliabide mota — Koordinakundea
Hartzaileak — GGKE eta Gizarte Mugimenduak



Laburpena — 1996. urtean sortu zen, estatu espainolean bidezko merkataritza sustatzeko asmoz. Hain zuzen ere, produktuak inportatzen dituzten erakundeak eta produktuak saltzen dituzten dendak dira koordinakundeko kideak. Hona hemen helburu nagusiak:

- Komunikazioa koordinatzea eta bideratzea bidezko merkataritzako erakundeen artean.
- Irizpideak bete egiten direla bermatzea.
- Bere kideak estatuko eta nazioarteko erakundeen aurrean ordezkatzea.
- Irizpide etikoei buruzko eztabaida sustatzea merkataritzako jarduereta.
- Bidezko merkataritzaren sustapenerako jarduerak eta ekimenak bultzatzea eta bertan parte hartzea.
- Gizarteari informazioa eskaintzea eta sentsibilizatzea.
- Inportazioen eta merkataritzako jardueren koordinazioa sustatzea bidezko merkataritzako erakundeen artean.

Harremanetarako helbidea — Bidezko Merkataritzarako Estatuko Koordinakundea
Mendeurrenaren plaza 3, etxabea • 20006 Donostia
34 943 461 578 • coordinadora@comerciojusto.org

Esteka interesgarria — www.e-comerciojusto.org

Izenburua — ConsumeHastaMorir
Egilea — Ecologistas en acción
Hizkuntza — Gaztelania
Baliabide mota — Web orrialdea
Hartzaileak — Jendea oro har




Laburpena — ConsumeHastaMorir.com bizi garen kontsumo gizarteari buruzko gogoeta da, gizarte horretako tresnetako bat erabiltzen duena, publizitatea, kontsumoarengatik jendea hil egin daitekeela erakusteko. Proiektua 1998an sortutako Ecologistas en Acción-en ekimena izan da, Espainia osoko 300 talde ekologista baino gehiago biltzen dituen elkartearena.

Web orrialdeak herritarrak kontzientziatu nahi ditu, gure gizartean kontsumo arduratsu, kritiko eta bidezkoan oinarritutako kultura sor dadin, helburu hauek erdiesteko: giza balioak, balio sozialak eta ingurumenarekin loturikoak zaintzea; denen artean mundu bidezkoagoa, natura eta bizitzarekiko errespetu handiagoa, eta ondasunen banaketa solidarioa lortzea (gogora dezagun munduko baliabideen %84a biztanleen %16aren esku dagoela); eta bizitzari zentzua ematen dioten balioetan oinarritutako bizimodua eramatea.

Harremanetarako helbidea — consume@letra.org

Esteka interesgarria — www.letra.org

**Izenburua** FACUA
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** Jendea oro har
**Laburpena** FACUA Federación de Consumidores y Consumidoras en Acción delakoaren siglak dira. Federazio honetako kide diren elkarteen helburua da kontsumitzaileen eskubideak defendatzea merkatuaren gehiegikerien aurrean.

Federazioaren web orrialdeak hainbat atal ditu:

- Informazioa. Tokikoa, autonomikoa, estatukoa eta nazioartekoa.
- Gaikako kanalak. Osasuna, elikadura, ingurumena, zinema, publizitatea, banka, telefonia, Internet, etxebizitza, etxeko hornidurak....
- Zerbitzuak. Hurrengo atalez osaturik dago: “Zure Salaketak”, "Zure Eskubideak", "Tarifa Telefonikoak".
- Argitalpenak. Kontsumerismo Aldizkaria; Kontsumoko Koadernoak; Kontsumitzailearen Gidak.

**Harremanetarako helbidea** FACUA - Oficinas Centrales
Bécquer, 25 A • 41002 Sevilla
facua@facua.org • comunicación@facua.org

**Esteka interesgarria** www.facua.org

**Izenburua** I.D.E.A.S.
**Hizkuntza** Gaztelania
**Baliabide mota** Web orrialdea
**Hartzaileak** GGKE eta Gizarte Mugimenduak
**Laburpena** Ekonomia Solidarioa eta Bidezko Merkataritzaren ekintza esparruaren barruan, I.D.E.A.S.en helburu nagusia da Tiendas de la Solidaridad (marka erregistratua) denda sarean bidezko merkataritzaren irizpideen arabera ekoiztutako janaria, artisautza eta arropak saltzea. Dendek, halaber, Iparraldea-Hegoaldea gaiari eta lankidetzari buruzko informazioa ematen eta jendea sentsibilizatzen dute.

Bestalde, I.D.E.A.S.ek Iparraldea-Hegoaldea harreman bidegabeen inguruko sentsibilizazio eta presio kanpainetan parte hartzen du.

I.D.E.A.S.en bidezko merkataritza kolektiboen arteko truke zuzena da, honako hau bultzatzen duena:

- Justizian eta berdintasunean oinarritutako nazioarteko ordena berri baten aldeko konpromiso sozio-politikoa.
- Giza eskubideekiko errespetua.
- Herrien independentzia eta kultura aniztasuna.
- Kolektiboen autokudeaketa, autoenplegua eta demokrazia ekonomiko zein soziala.
- Ingurumenarekiko errespetua.
- Gizabanakoaren garapen integrala eta kontsumo kontziente eta arduratsua. Gainera, I.D.E.A.S. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko (R.E.A.S.) kidea da, eta beraz, Espainian alderdi hauen aldeko mugimenduan parte hartzen du:

- Nekazaritza ekologikoa eta soziala.
- Hondakinen berreskurapena eta birziklatzea.
- Ekonomia soziala eta solidarioa.
- Banka eta finantzaketa alternatiboa.

| | |
|---|---|
| Harremanetarako helbidea | info@ideas.coop |
| Esteka interesgarria | www.ideas.coop |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Red Andaluza de Consumo Responsable |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Web orrialdea |
| Hartzaileak | GGKEak eta Gizarte Mugimenduak |
| Laburpena | Web orrialdean kontsumo arduratsuari –etikoa, solidarioa, ekologikoa– eta bidezko merkataritzari buruzko informazioa eskaintzen da.<br>Material eta dokumentu ugari bildu dira bertan, oso-osorik jaitsi daitezkeenak:<br>• Kontsumo arduratsuaren gida (Kontsumo arduratsurako Granadako kanpaina).<br>• Kontsumo arduratsuaren unitate didaktikoa (Giza Eskubideen aldeko Andaluziako Elkartea).<br>• Egin dezagun ingurumen hezkuntza iraunkorra eta koherentearen alde.<br>Hainbat kanpaina, ikastaro, berri, jarduera eta gaiarekin erlazionatutako estekari buruzko informazioa ere badago. |
| Harremanetarako helbidea | info@consumoresponsable.com |
| Esteka interesgarria | www.consumoresponsable.com/ |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Gente que mueve su casa. Una teoría sobre la migración |
| Egilea | Centro Comunicación y Democracia / Contamíname Fundazioa |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Centro Comunicación y Democracia / Contamíname Fundazioa |
| Urtea | 2003 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | CD-ROM edo DVDa |
| Hartzaileak | Hezitzaileak |
| Laburpena | Gente que mueve su casa Centro Comunicación y Democracia eta Contamíname Fundazioak abiarazitako proiektua da. Irabazi asmorik gabeko bi erakunde horiek kultura artekotasunaren alde lan egiten dute. Lehenengo CDan, Espainiara iristen diren bost pertsonen istorio eta bost abestiren bidez - abesti bakoitzak pertsona bakoitzari laguntzen dio bere gorabeheretan-, etorkinen bizitzako alderdi nagusiak ikusiko ditugu: iristerakoan dituzten itxaropenak, ilegal izateak dakarzkieten arazoak, beren egoeraren urrakortasuna, gizarte bazterketa jasateko dituzten arriskuak eta gizartean integratzeko dituzten aukerak. Bigarren CDa, berriz, inmigrazioaren fenomeno konplexua ikasle taldeekin aztertzeko gida didaktiko bat da. Lehenengo CDko istorioekin loturiko unitate pedagogikoez osaturik dago. Tailer eta dinamiketarako proposamenak, dinamizatzailearentzako argibideak, eztabaidatutako gai bakoitzari buruzko laburpenak eta abar ditu. |
| Harremanetarako helbidea | Centro de Comunicación y Democracia<br>Puerto del Milagro, 6 posterior • 28018 Madrid<br>( 34 913 806 530 • cyd@redconvoz.org |
| Esteka interesgarria | www.contaminame.org/01contaminame/uno.htm |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Inmigración, interculturalidad y ciudadanía. Nuevas realidades y estrategias de acción en la España del siglo XXI |
| Egilea | Aguilar Idáñez, Mª J. (zuz.) |
| Edizioaren lekua | Gaztela-Mantxa |
| Argitaletxea | Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 84-688-8487-1 |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | CD-Roma edo DVDa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Nazioarteko migrazioak, kultura artekotasuna eta hiritartasun berriak DVD honetan jorratutako gai nagusiak dira. Gaioi buruzko ezagutza zientifikoa hedatzeko asmoz, arlo horretan egindako ikerketa eta azterlan nazional nabarienak jasota daude. Beraz, mila bostehunetik gora testu-agiri, datu, audio eta irudi jasotzen dituzten prestakuntzako eta informazioko baliabideak eskaini nahi dizkie migrazioen arloan lan egiten duten profesionalei, ikertzaileei, irakasleei eta ikasleei. |
| Harremanetarako helbidea | GIEMIC<br>Grupo Interdisciplinar de Estudios sobre Migraciones, Interculturalidad y Ciudadanía<br>E. U. de Trabajo Social (Edificio Melchor Cano) • María José Aguilar Idáñez (directora)<br>Camino del Pozuelo s/n • 16071 Cuenca |
| Esteka interesgarria | www.giemic.uclm.es |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Aprender com a Diversidade - Um Guia para o Desenvolvimento da Escola |
| Egilea | Caldeira, E.; Paes, I.; Micaelo, M.; Vitorino, T. |
| Edizioaren lekua | Lisboa |
| Argitaletxea | ACIME |
| Urtea | 2004 |
| ISBN | 972-98959-8-8 |
| Hizkuntza | Portugesa |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Gida hau ACIMEk eta Oinarrizko Hezkuntza Sailak argitaratu dute batera, eta Portugalgo Hezkuntza Berrikuntzako Institutuko “Hezkuntza Bateratzailearen Sustapena” proiektuko taldeak egin du. Portugalgo eta beste herrialde batzuetako esperientzien bitartez, zenbait ideia garrantzitsu antzematea da helburu nagusia. Horiek horrela, eskolaren hobekuntzarako prozesuetan erabili ahal izango dira, arazoei aurre egiteko, lehendik dauden baliabideak sustatzeko eta etorkinen laguntzarako oztopoak gainditzeko eraginkortasuna bultzatzeko. |
| Harremanetarako helbidea | Alto Comissário para a Imigração e Minorias Étnicas (ACIME)<br>Rua Álvaro Coutinho, 14 • 1150-025 Lisboa (Portugal)<br>351 218 106 100 351 218 106 117 • acime@acime.gov.pt |
| Esteka interesgarria | www.acime.gov.pt |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Hiritartasuna eta ikuspegi musulmanak |
| Egilea | Islamic Relief eta Tide |
| Edizioaren lekua | Bilbao |
| Argitaletxea | Hegoa |
| Urtea | 2005 |
| Iturria | www.hegoa.ehu.es |
| Hizkuntza | Gaztelania, euskara |
| Baliabide mota | Gida didaktikoa |
| Hartzaileak | Bigarren Hezkuntza (12-16 urte) |
| Laburpena | Material honek helburu bikoitza dauka: batetik, kultura arteko hezkuntzaren haritik lan egin beharra dagoela erakustea; eta bestetik, norberarenak ez beste kultura batzuen ikuspegi sinplifikatzaileak eta homogeneizatzaileak aurrez aurre jartzea. Izenburua bera ere (Ikuspegi musulmanak) mundu musulmanean dauden ikuspuntu eta joera anitzen adierazgarri da. Proiektu hau irakasleek batera egindako lanaren emaitza da, eta Ingalaterran sortu zen, elkarmenpeko gizarte globalean lan egiten duten ikastetxeen premiei erantzuteko asmoz, 2002ko irailaren 11ren ostean (2004ko martxoaren 11 ere aipatu genezake) musulmanak komunikabideen helburu nagusi izan zirenean. Edizio elebiduna da (euskaraz eta gaztelaniaz dago), eta oinarrizko zenbait eduki aurkezten ditu, kultura eta erlijio musulmanera hurbiltzeko. Era berean, kasu batzuk aztertu eta proposamen didaktikoak ere egiten ditu. Hegoa-k gida didaktiko hau itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Jatorriz, Islamic Relief-ek eta Tide-k (Teachers in Development Education-ek) 2003. urtean argitaratu zuten Londresen, "Citizenship and Muslim perspectives. Teachers sharing ideas" izenburupean. |
| Harremanetarako helbidea | Hegoa<br>Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao<br>34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es |
| Esteka interesgarria | www.islamic-relief.com/ |

**Izenburua** Penser l'accueil autrement. Dossier pédagogique
**Egilea** Annoncer la Couleur
**Edizioaren lekua** Brusela
**Argitaletxea** Annoncer la Couleur
**Urtea** 2001
**Hizkuntza** Frantsesa
**Baliabide mota** Gida Didaktikoa
**Hartzaileak** Gazteria

**Laburpena**

Honako dossierrak migrazioen eraginak aztertu eta analizatzeko baliabideak eskaintzen ditu harrera-herrialdeetan, baita gaiarekin zerikusia duten zeharkako gaiak. Lehen atalak 1950. urtetik gaur egundaino izandako migrazio-politikak eta sorrarazi dituzten harrera-ereduak aurkezten dira, hala nola bata zein bestearen eboluzioa. Bigarren atalak “bestearekiko” onartze- eta ukatze-jarrerak, estereotipoak, diskriminazioa eta arrazakeria-ekintzak nola sortzen, nola osatzen diren aztertzen du. Hirugarren atalak zehazki Belgikako gizartearen erreakzioa ikertzen du, nola jokatu izan duten hango gizarte-mugimenduek, sindikatuek, elizak eta etorkinen elkarteek. Azken atalak harrera-ereduak mundu zabaleko esparruan aztertzen ditu.

Atal bakoitzean adituen testuak eskaintzen dira; oinarrizko artikuluen eta baliabide pedagogikoen sorta bat; eta lanteldeekin aritzeko aktibitate fitxa bat edo bi.

**Harremanetarako helbidea**
Annoncer la Couleur
Rue Haute, 147 • 1000 Bruxelles (Belgique)
☎ 32 2 505 18 22 Fax 32 2 505 18 21 • annoncerlacouleur@btcctb.org

**Esteka interesgarria** www.annoncerlacouleur.be

**Izenburua** Programa de sensibilización infantil en Interculturalidad
**Egilea** Survival
**Hizkuntza** Gaztelania, katalana, ingelesa, frantsesa eta italiera
**Baliabide mota** Gida Didaktikoa
**Hartzaileak** Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

**Laburpena**

Survival GKEaren helburua da egun bizirik irauten gizarte indigenen errealitatea eta bizimoduarekiko jendea sentikor bihurtzea, gizarte tribalak onartzen ikasterakoan gure inguruko pertsonak onartzeko gaitasuna indartzen dugunaren uste osoarekin. Survivalen iritziz, herri indigenekiko errespetuak erabat antiarrazistak diren balio etikoak dakartza berarekin, eta eskolak balio horiek irakatsi behar ditu. Horregatik, haurrak kultura aniztasunaren inguruan sentsibilizatzeko programa bat diseinatu du, 8 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendua, hezitzaileek gainbegiratuta eskoletan gara dadin. Programak hainbat jarduera gidatu proposatzen ditu, eta baita material lagungarria eskaini ere: arriskuan dauden herri indigenei buruzko informazioa dakarren mapa, haur indigenen bizimodua erakusten duten 3 poster, banakako jarduerak egiteko orria eta hezitzaileentzako gida.

**Harremanetarako helbidea**
Survival
Príncipe, 12 - 3º ☎ 34 915 217 283 Fax 34 915 231 420 • info@survival.es
28012 Madrid

**Esteka interesgarria** www.survival.es

| | |
|---|---|
| Izenburua | ¿Asimilar o Integrar? Dilema ante el multilingüismo en las aulas |
| Egilea | Martín Rojo, L. (zuz.) |
| Edizioaren lekua | Madril |
| Argitaletxea | Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Informazio eta Argitalpenen Zuzendaritzaorde Nagusia |
| Urtea | 2003 |
| ISBN | 84-369-3699-X |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
| Laburpena | Liburu honek gure ikastetxeetako errealitate aldakor eta konplexura hurbiltzen gaitu. Kultur eta hizkuntz aniztasuna ikastetxeetako testuinguruan kudeatzeko modu onenak aurkitzeko kezka duten pertsonentzat bereziki idatzita dago, eta kudeaketa horren ondorio sozial eta edukatiboen berri izan nahi dutenentzat.<br>Lehenbiziko zatian politika eta ideologia edukatibo eta linguistikoei buruzko marko teorikoa planteatzen du, geroago ikastetxeetako bizimoduaz egiten den deskripzioari zentzua emateko tresna gisa. Deskripzio hori zehatz jorratzen duen bigarren zatiaren ondoren, hirugarrenean hausnarketa egiten du horretan jardun duten zenbait lantaldek izandako esperientziez eta planteatu diren dilemei buruz. Jarduera-lerro batzuk ere iradokitzen dira. Irakurketarako lagungarri, eta anbiguokeria ahal den neurrian ekiditearren, amaieran terminoen glosarioa erantsi da, ikastetxeen deskripzioen eta antolaketan erabili ohi diren hitzekin eta argitzea komeni den beste hainbat kontzepturekin. |
| Harremanetarako helbidea | luisa.rojo@uam.es |
| Esteka interesgarria | www.aulaintercultural.org/IMG/pdf/Asimilar_o_integrar.pdf |

| | |
|---|---|
| Izenburua | Diversity and equality in early childhood training in Europe |
| Egilea | Van Kaulen, A.; Malleval, D.; Mony, M.; Murray, C.; Vanderbroeck, M. |
| Argitaletxea | DECET |
| Urtea | 2004 |
| Hizkuntza | Ingelesa |
| Baliabide mota | Liburua |
| Hartzaileak | Irakasleak |
